

GURE SALBAZIÑO - EGINTZA

KEREXETA

# gure salbaziño - egintza

alhartasun barria

ascea

## KEREXETA'REN BESTE ZERBAIT

1. **ORBELAK** (1958).
2. **BITARGI** (1960).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (lau Ebanjeliok alkartuta: 1960-1961).
4. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (1961).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE ETA APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965).
8. **APOSTOLUEN EGIÑAK ET IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955).
9. **ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIAK** (1965).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (lau Ebanjeliok alkartatuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (lau Ebanjeliok: 1966).
13. **ITUN BERRIA** (Gipuzkeraz: Orixe-Kerexeta-Zugasti: 1967).
14. **SALMUTEGIA** (1967).
15. **SALMUDIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1968).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969).
17. **UMEEN BIBLIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** (cuatro volúmenes: 1970-1971-1972).
22. **GURE SALBAZIÑO-EGINTZA** (Alkartasun Barria; Ascea-PPC'na: 1972).
23. **ALKARTASUN BARRIA** (osorik; 2'garren argitarapena: 1972).
24. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1972).

*Zuzenbide onetara egin zure eskabideak:*

**SECRETARIADO DIOCESANO DE LITURGIA.**


Henao, 7. Bilbao (9).

*Edo-ta*

**JAIME KEREXETA (Pbro).**

San Roque, 16. Elorrio (Bizkaia).

Kereketatar Jaime



**GURE  
SALBAZIÑO-  
EGINTZA**

2. - Alkertasun Barria

*(Erderazko 2'garren argitarapenetik euskeratuta)*

ASCEA - BILBAO

1972



Euskeratzaile:

Kerexeta'tar Jaime, abadea, Euskaltzaindikoa.

Erderaz:

Historia Sagrada.—2. La Nueva Alianza.

Argitaratzaile:

ASCEA.—Bilbao.

Nihil obstat:

Dr. Antonio Zaldua.

Imprimatur:

Dr. León María Martínez, Vic. Gen.

Bilbao, 4-8-1972.

Depósito Legal: VI 793-1972.

Irar-lantegia:

Gráficas ESET.—Gazteiz-Vitoria (Araba).

*Emen dozu, irakurle, BIBLIA'ko "Alkartasun Zaarra" osotzen dauan zati au : ALKARTASUN BARRIA.*

*Eta norentzat?*

*—eskoletako nagusitxoentzat. Orretarako, ikaskizun bakotxak iru atal dakaz : Itaunketak-Egitekoak-Otoitz egizu ;*

*—osterantzeko gazteentzat, aitaturiko iru atalok alde batera itzirik.*

*Batzui eta bestetzui "eskua" luzatu nai dautsegu Alkartasun Barriko liburu bakotxean zear joan daitezcan, len Alkartasun Zaarreko liburuakaz egin genduanez.*

*Ez da naikoa Biblia eukitea. Bearrezkoa da, gaiñera, bere lengo egoeran ulertzea, gaur bere "Misterioa" bizi izateko. Misterio ori, Kristo da. Eta Kristo'gan auxe ikusiko dogu :*

*1.º Alkartasun Zaarreko agintzariak eta itxaropenak Aregan bete zirala.*

*2n. Jainko gizon egiña eta geure istoriako lagunkidea.*

*3n. Kristo bizia ta Elizaren bizi-emoillea egun oroko bizitzan, Liturgia santuan eta kristau guztien biotzean.*

*4n. Gizaldien azkenean etorriko dan Jauna.*

*Onenbestez, esan dautsudaz "itz bi". Jo egizu orain aurrera, gazte lez.*

*Elorrio'n, 1972, Epaillak 19.*

## Kristo eta Alkartasuna Barria

- I. Sarritan, **kristau-ezaugarriak** ikusten dozuz:  
Gurutzea; Eukaristi-batzarra; elizkizunen bat...  
Zeu be kristau zara.

Eta itaun egin daikeozu zure buruari: **Guzti au, zer dala-ta?**  
Kristo, biztua eta aintzatsua, **geure aldiko NORBAIT** dalako,  
Elizan bizi izaten irauten daualako.

2. Noiz asi zan Kristo geure artean egoten? Noiz asi zan gure bizitzako zerbait izaten?

Batez be, **bere eriotzatik eta BIZTUERATIK** asi zan Jesus gizonen artean egoten.

Olantxe beteten ditu Jaungoikoak Alkartasun Zaarrean egin ebazan Salbaziño-agintzariak.

3. Orain, Jesus nor dan esan nai dautsugu, Kristo, Jaungoiko Seme gizon egiña nor dan. Bera izan zanez eta danez erakutsi nai dautsugu, Elizeak sinismenaren argitan ikusten dauanez.

Orretarakoxe eskintzen dautsugu Salbaziño-egintzaren bigarren zati au: **Alkartasun Barria**.

4. Alkartasun Barriko liburu santuak 27 dira:

—**lau Ebanjelioak:** Jesus'en irakatsia azaltzen dauskue, bako-  
txak bere eratara;  
—lenengo kristauen **bizikera**, labur-labur;  
—lenengo Elizako buru eta Artzain batzuk egindako **idazki batzuk**;  
—**Apokalipsis** izeneko **liburua**; liburu onek, Jesus Biztua aintzaz beterik etorri arte lur oneta burrukan diardugun kristauoi adorea ta itxaropena emoten dausku.

5. Jesus'en bizitza, batez be lau Ebanjelioetan azaltzen da. Ebanjelio-liburuok, idatziak izan arte, olantxe sortu ziran:

1) Jesus'ek irakatsi zoragarri bat iragarten dau, eta mirari arrigarriak egiten dauz, gizonok Jaungoikoaren seme lez bizi gaitazan.

2) Il eta biztu ondoren, Jauna Aitagana doa barrero, eta bere Elizan egoten jarraitzen dau. Jesus'en Biztuera aurrean eta ostean Aregaz batera bizi izan ziran Apostoluak, Kristo Salbatzailea dala iragarten dautse guztia. Eta kristauak argi ikusten dabe, Itza entzutean, Sakramentuak artzean eta besteci laguntza emotean, Jesus'ek salbatu egiten dauzala.

3) Jesus'en Irakatsi Salbatzailea **lau idazketa ez-bardiñetan** dago idatzita: Mateo'k, Markos'ek, Lukas'ek eta Joan'ek dakarrenez. Eta olantxe sortzen dira Ebanjelioak.

Ebanjelari bakoitxak gauza batzuk aukeratzen dauz, batzuetan labur-labur eta beste batzuetan luzeago azaldurik; beste gauza batzuk, barriz, fededunen egoera eta bizi diran laguntaldeak begira azaltzen dauz. Olan, Jaungoikoaren Semeak egin eta irakatsi ebana esaten dauskue zintzoro, **guk sinistu eta Aregan bizia izan dagigun**.

6. Orain Elizeak, Ebanjelioen eta Alkartasun Barriko beste liburu batzuen bidez, **Jaun Berbiztua** jakiñerazoten dausku. Berak Jesus'i buruz beti uste izan dauana irakasten dausku.

Ez da, ba, zoragarria gure elburua? Biztuera-argiaz beterik Jauna ezagutu, gaur Elizaren bidez salbatzen gaituan Jaungoikoaren Seme gizon egiña ezagutu.

Arduratu zaitez Jesus'i buruz. Egun baten bere ikasleai itandu eutsena itanduko dautsu ikaskizun bakoitxean:

**Zuek, nor nazala doñozue?**

Erantzun egiozu Pedro'k lez:

**Zu, Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea.**

Edo-ta Marta'k lez:

**Zu Mesias zara, Jaungoikoaren Semea, mundura etorteko zana.**

7. Jaunagaz alkarrizketa onetara eltzeko, Alkartasun Barriko liburu santuak irakurri bear dozuz, euron **teknika-ezaguera** pizka bat dozula.

Biblia Santuko liburu bakoitza ataletan eta ataltxoetan dago zatituta.

Txatal edo zati bat aitatzen danean, liburuaren izenaren asie-

rako letrak ipinten dira lenengo. Gero, irakurgaiaren asierako atala ta ataltxoa, eta, marra zear\* bataz bananduta, irakurgaiaren amaierako atal eta ataltxoa.

Adibidez: San Joan'en Ebanjelioa aitatu gura ba'dozu, 3'garren ataleko 1.º ataltxotik 5'garren ataleko 3'garren ataltxora, olantxe ipiñiko dogu: Yn. 3, 1-4, 3.

Baiña, irakurgai atal beraren barruan ba'dago, liburuaren izenaren asierako letrak ipinten dira, gero irakurgaiaren asierako atala ta ataltxoa, eta, marra zear bataz bananduta, irakurgaiaren amaierako ataltxoa.

Adibidez, San Joan'en Ebanjelioa aitatu gura ba'dogu, 3'garren ataleko 1.º ataltxotik 4'garrenera, olantxe idatziko dogu: Yn. 3, 1-4.

Emen dozuz, Alkartasun Barriko liburuak aitatu bear diranean euroi ipinten yakezan asierako letrak:

1. **EBANJELIOAK:** San Mateo'rena (Mt.); San Markos'ena (Mk.); San Lukas'ena (Lk.); San Joan'ena (Yn.).
2. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (Ap. Eg.).
3. **SAN PAULO'REN IDAZKIAK** (amalau):  
Erroma'koi (Errom.).  
Korinto'koi 1.ª eta 2.ª (Kor. 1.ª; Kor. 2.ª).  
Galazia'koi (Ga.).  
Efeso'koi (Ef.).  
Filipos'koi (Flp.).  
Kolosas'koi (Kol.).  
Tesalonika'koi 1.ª eta 2.ª (Ts. 1.ª; Ts. 2.ª).  
Timoteo'ri 1.ª eta 2.ª (Tm. 1.ª; Tm. 2.ª).  
Tito'ri (Tt.).  
Filemon'i (Flm.).  
Ebertarrai (Eb.).
4. **GUZTIENTZAKO IDAZKIAK** (zazpi):  
Santiago'rena (St.).  
San Pedro'ren bi (Pe. 1.ª; Pe. 2.ª).  
San Joan'en iru (Yn. 1.ª; Yn. 2.ª; Yn. 3.ª).  
Judas'ena (Jud.).
5. **SAN JOAN'EN APOKALIPSIS** (Ap.).

8. Orain, **Aurrera!** dirautsugu. Zoaz Jaunaren atzean. Jarraitu egiozu, Pedro'k eta Apostoluak, Marta'k eta Mari'k egin ebenez.

\* Marra zear: raya horizontal.

## Nori jarraitu bear dautsazu?

Entzun San Joan'ek bere Ebanjelioaren asieran azaltzen dautsuna:

(1) "Asieran Itza ba-zan, eta Itza Jaungoikoagan egoan, eta Itza Jaungoikoaz zan.

Asieran Itza Jaungoikoagaz egoan.

Dana Berak egiña da, eta Bera bagarik ez da egin egindakorik ezer.

Itza, egiazko argia zan, mundu onetara datorren edozein gizon argitzen dauan argia.

Munduan egoan, eta mundua Berak egiña izan zan, eta munduak ez eban ezagutu.

Bere etxera etorri zan, eta bereak ez eben ondo artu.

Bera artu eben guztiai, barriz, **Aren izena sinistu ebenai**, Jaungoikoaren seme egiteko eskubidea emon eutsen; **au ez da odoletik jaio, ez aragi-guraritik, ez giza-guraritik, Jaungoikoagandik baiño.**

Eta Itza aragi (gizon) egin zan, eta bere Bizitokia geure artean jarri eban; **eta bere aintza ikusi dogu, Seme bakarrari dagokionez Aitagandik artzen dauan aintza, graziz eta egiaz betea".**

(Yn. 1, 1-14)

## ITAUNKETA

1. Esan egizuz kristau-ezaugarri batzuk. Zegaitik dira kristau-gauzok eta egin-tzok?
2. Noiz asi zan Kristo, batez be, geure artean egoten?
3. Jesus'en bizitza azaltzen dauan Salbazio-istoriaren zatiak, zelan dauko izena?
4. Zenbat dira Alkartasun Barriko liburu santuak? Egizu euron laburpen bat.
5. Zein da lau Ebanjelioen asiera idatziak izan arte?
6. Zer jakiñerazoten dauku Elizeak lau Ebanjelioen eta Alkartasun Barriko beste liburu santuen bidez?
7. Aurkitu ta esan egizuz lau Ebanjelioen txatal batzuk, Alkartasun Barria erraz-erraz erabilten jakin dagizun arte.
8. Nor da Jesus?


(1) Ebanjelioko zati guztiak Kerexeta'tar Jaime'ren "Jesukristo'ren Barri Ona" izeneko liburuan datozenak dira (1972'garren urteko argitarapena). Salmuak, barriz, ebetar Bibliako zenbakiak dakarrez.

EGITEKOAK

—Irakurri egizu San Joan'en Ebanjeliaren sarrera. Eta egizu zure lan-kuadernuan Jaungoikoaren Asmo Salbatzailearen laburpen bat.  
Kristau-bizitzako kuadernu au ardura andiz erabili bear dozu ikastaro guztian.

—Egizu Salbaziño-Istoriaren laburpen bat Jesukristo gure Jai-naren etorrera arte, "Alkartasun Zaarreko 1, 13, 15, 18, 24, 54, 55, 96, 97, 98, 125'garren zerbakietatik 129 ta 162'garrenera.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, ikusi dagidala".



LENENGO ZATIA

SALBATZAILLEA MUNDURA DATOR:

JESUS'EN UMETZAROA TA BIZITZA EZKUTUA





## LENENGO ZATIARI SARRERA ZABALA

9. San Lukas'en eta San Mateo'ren Ebanjelioen lenengo atalak Jesus'en umetzaroa ta bizitza ezkutua azaltzen daukue. Atal oneik, UMETZAROKO EBANJELIOA dabe izena. Atal oneitan, ebanjelari bakotxak Jesus'en umetzaro ta bizitza ezkutuko jazopen pillo bat jakiñerazoten dauku, Alkartasun Zaarraren bidez argi egin da eta gero Ebanjelio guztian zabaldua, Alan, obeto dirauskue Jesus nor zan.

10. San Lukas'ek eta San Mateo'k Umetzaroko Ebanjelioa idatzi orduko, apostoluak Jaunaren Biztueraz guztiz ikararuta, Jesus'en bizitza iragarri dabe. Areik eta lenengo kristauak ba-dakie, ba, Belen'go ta Nazaret'eko Jesus, Mesias dana, Alkartasun Zaarrecan iragarria eta "Yabe'ren beartsuak" itzaroten ebena.

Jesus Jaungoiko dala sinisten dabe gaiñera.

Elizeak bere bizitzan dauan sinismen guzti au, ebanjelariak Jaunaren lenengo unealdietara eta bizitza ezkutura jaurtiten dabela esan daikegu. Eta ori, guztiz ondo eta bereztasun osoz egiten daben ezker, berealaxe konturatzen gara Jesus, asierarik, munduaren Salbatzailea dana, Jaungoikoaren Semea, Jauna dana; Beronegan beteten dira Mesias'i buruz egindako profetia guztiak.

11. Jesus'en umetzaro ta bizitza ezkutuari buruzko atalak irakurtean, eta Jesus Ume ta Gazteaz pentzatzeaz, biztu egizu sinismena zure barruan: sinistu Jesus geure Erosle dana, Jaungoikoaren Semea, Aitaren Bialdua, Israel-erriaren Aintza, jentil guztien Argia; azken onein artean gagoz geu be.

Orixe berori egiten eben lenengo kristauak. Ebanjelariak be Jesus'en Umetzaroko Ebanjelioa idaztean egin ebenez.

### ITAUNKETA

9. Zeri deritxagu Umetzaroko Ebanjelioa?
10. Azaldu egizu zelan idatzi dan Umetzaroko Ebanjelioa.
11. Zer egin bear dozu Umetzaroko Ebanjelioko atalak irakurtean eta Jesus Ume ta Gazteaz pentzatzean?



## Salbatzaillearen Erria

12. Jaungoikoa ez dabil arrapataka. Gogoratu egizu zelan jardun eban bere erriaz: Ejipto, Sinaï, Agindutako Lurra, Erregeak, Profetak, JUDAR ERRIA.

Batez be Babilonia'tik biurtu ondoren, judar-erriak Jaungoikoaren Erri zintzoa izateko alegin andiak egin ebazan.

Zelakoa da Mesias'en egunetarako Jaungoikoak gertatu dauan erria?

Berealaxe ikusiko dozu.

### Palestina.

13. Israel edo Palestina Jesus'en aberria da. 25.000 kilometru lauki daukaz luze-zabal; Iparraldetik Egoaldera, 200 kilometru gutxi gora-beera, eta zabaleran, 150 geien.

Israel'ek, Jesukristo'ren egunetan, bi milloeren bat bizilagun ebazan; orreitatik, eun milla-edo Jerusalem'en, uri nagusian, bizi ziran.

Mediterraneo izeneko itxas-bazterrean dagoan lur-zati estu onen egutaroa edo giroa epela ta biguna da, sarritan aizeak jotzen dabela eta neguz euriak ugari.

14. Palestina'ko mugak, eguzki-sortzaldetik, **Jordan ibaia** eta Itxaso Illa dira. Jordan'ez beste aldeak, Transjordania dau izena, eta Iturea ta Trakonitida artzen dauz, iparraldean; Dekapolis, erdian; eta Perea, egoaldean. Palestina'k iru lurralde ditu: **Galilea**, iparraldean; **Samaria**, erdian, eta **Judea**, egoaldean. Lurralde orreitan egin ziran, geien be, Jesus'en bizitzako jazopenak.

Israel'go egoaldean Idumea dago.

15. **Galilea** da Israel'go lurralderik ederrena, atsegingarriena eta frutuz ugariena. Ementxe dago **Jenesaret'eko itxaso**a, inguruan aranak eta menditxoak dauzala. Palmondoak, granadoak, intxaurreondoak, pikondoak, eta bedarra ta lorak ugari azten dira.

Galilea'k uri asko daukaz. Areitariko bitan, **Nazaret'en** eta **Kafarnaun'en**, Jesus luzaro bizi izan zan.

Galilearrak mardulak eta lan-zaleak dira. Barruko lurraldekoak nekazaritzan egiten dabe lan, eta itxasaldekoak arrantzan.

16. **Samaria**.—Samaria'ko lurraldea mendiz beterik dago, zearretara ainbat aran eta frutuz ugaritsuak dituala. Samaria-erdiruntz **Garizim mendia** jaqiten da; ementxe euken samaritarrek euren eliza nagusia. Jesukristo'ren egunetan ez euken eliza nagusirik ez abaderik; Israel'egaz bat egiten ebela uste eben eta Mesias'en zain egozan. Judarrak eta samaritarrek ez eben alkar ondo ikusten.

17. **Judea**'ko alderdiak ez dauko Galilea'koaren antzik be: Juda'ko mendiak murrututa dagoz, mendi-sakonez beterik eta bat edo beste aran naikoa legortsuak; arriz beteriko lur legorra, basamortuaren antzekoa.

Egoalderantz bakarrik —**Belen** erria dagoan aldean— aldutzen da alderdia, eta zelai ederrak, maatsondoak eta oriondoak dagoz.

Judea'k bizi andia ba'dauko, **Jerusalem'i**, ango uri nagusiarri, zor dautso; uri au, Jaungoikoaren Erriaren erlejiño ta politikaren erditokia da. Jerusalem'en dago Israel'go Auzitegi Nagusia edo **Sanedrina**, baita Jaunaren **Eliza Nagusia** be; ementxe gurtzen da be judarrak euren Jaungoikoa, Yabe.

Judearrak, euren alderdiari dagokionez, indartsuak, latzak eta bakartsuak dira. Nekazaritzan egiten dabe lan, eta, batez be, artzaintzan, Biblical ainbat bidar agertzen dan artzaintzan.

Gureztat garrantzi andikoa da Juda'ko Belen uri apala; antxe jaio zan Dabid erregea, baita beronen ondorengo bat be: Jesus, gure Salbatzaillea.

#### **Politika eta erlejiñoa judar-errian.**

18. Erroma asi zaneko 747'garren urtean, Palestina erromarren menpean dago, **Erodes Andia** agintari zala; au, errege egin da. Baiña biotz-gogorra ta odol-zalea dan ezker, egunetik egunera judarren gorrotoa irabazi dau.

19. Politikak berakada andia egiñarren, Jaungoikoaren erriak, Jaungoikoa ezagutzen ez daben errien inguruan egonarren, Jaungoikoaren Agerpen aberatsa gordeten dau, eta euren oiturak be

zintzo-zintzo beteten dabez. Geiago be bai: judarrak, lengo aldie-tako aldean, euren erlejiño ta moral-oiuretan bikaindu egin dira.

Euren elizkizunak aundikiro egiten dabez Eliza Nagusian, eta, Biblia Santua irakurteko ta otoitzak egiteko, zapatuetan euren sinagogetan batzen dira.

Urte oro, Pazko-egunean, Jerusalem'era joaten dira, Jaungoikoaren Erri lez euren batasuna barrizten dabela.

20. Judarrak ospatzen dabezan jaiak, Jaungoikoari eskiñita dagoan aste oroko zapatuaz gaiñera, Legeak agindutako urrengo iru erri-jai nagusi oneik dira:

—**Pazko-eguna**, Ejipto'ren menpetik askatu ziran eguna.

—**Pentekoste-eguna**, Pazko-egunetik berrogeta amar egunera; Sinai-mendian Jaunak emondako Legea gogoratzeko ospatzen da.

—**Txabola-eguna**, basamortuko berrogei urteak gogoratzeko.

Beste jai batzuk be ba-dagoz gaiñera: Eliza Nagusiaren **Ezkintza**, Judas Makabeo'ren egunetan barriztua; eta **Ordaintze-eguna**: Abade Nagusia Eliza Nagusiko Toki guztiz Santuan sartzen da eta, zeremoni batzuk egiñik, erri guztia ren pekatuak parkatzeko eskatzen dautso Jaungoikoari.

21. Elizkizunen ardurea abadeak dabe; abade guztiak **Lebi'** ren jatorrikoak dira. Onein artean, mailla ez-bardiñak dagoz:

—**Abadeak**: elizkizunen eta oparien ardurea dabenak dira. Sardu' en ondorengoak izan bear dabe, Aaron'en senitartekoak. Euren eginkizunak aste oro txandaka egiten dabez, eta txanda bakotzekoak euren artean banantzen dabez eliz-arazoak. Legeak izten dautsenez, oparietariko zerbaite eurentzat artzen dabe.

—**Lebitak**: Abadeen laguntzailleak dira. Euron arazorik nagusiena Eliza Nagusiaren ardurea izatea da, eta, soiñulari ta kantari lez, Jaungoikoaren gorapenak zuzentzea.

22. **Sanedrina**, edo Batzar Nagusia: erlejiño-agintaritza nagusia da. Politika, auzi ta diru-kontuetan be aginpiderik nagusienera dabez, baiña erromarren mendean Jesus'en egunetan. Sanedrina 71 batzarkidek osotzen dabe, eta Abade Nagusiak egiten

dau buru. Irutariko gizonak egiten dabe Sanedrina: 1.º. Abadeen Nagusiak. 2n. Idazlariak edo Lege-irakasleak. 3n. Erriaren ordezkari nagusiak, "zaarrak" eritxenak.

23. Judar-erriaren bizitzan indarrrik geieneko taldeen artean, pariseuen eta saduzeuen alderdiak dagoz.

**Pariseuak** erriak begirune andia dautse; pariseuak erromarren arerio dira, baiña indarkeri bagarik. Moises'en Legea zeatzegi azaltzen dabe, eta azalutsak eta andiputzak izateko arriskua dabe.

**Saduzeuak:** agintari nagusietarikoak eta euron ordezkariak diran judarrak; Jaungoikoa gogora lar ekarri bagarik, aukeran bizi izatea yake gogoko, eta erbestekoakaz artu-emonak izatea.

**Esenio** izeneko erlejiño-talde bat be ba-dago; oneik, otoitzari ta garbatzeari ekiten dautsoe, eta orrela, Mesias'en etorrerako gertatzen dira.

Judarren erlejiño ta gizarte-bizitzan naikoa garrantzi daben taldeak, oneixek dira:

- Idazlariak**, edo Lege-irakasleak. Eurak irakasten eta adierazoten dabez Legea eta Profetak, edo bardin dana, Biblia Santua. Nagusienai, "errabinuak" deritxe.
- Erodestarrak:** Eroses'en erregetzaren aldekoak.
- Publikanuak**, edo zerga-batzailleak: Erroma'rentzako zergak (tributuak) jasoten dabezanak; fariseuek pekataritzat artzen ebezan.

#### Jainko-Erriaren gauzarik garrantzitsuena.

24. Jaungoikoaren Erriak garrantzi andiko gai bat darabil bere erlejiño-bizitzan: bere itxaropen andiak. Jaungoikoak, agintariak beteten, beti zintzoa dala sinisten dabe judarrak. Orregaitik, gero ta geiago gura dabe **Mesias'en etorrera**, eta, Mesias'en bitartez, ainbeste bidar iragarritako Jaungoikoaren erregetza. Erromar jentillan azpian egoteak, gurari ori biztu baiño ez dau egiten.

25. Geienak, Mesias, erregea izango dala uste dabe, eta, Israel lagun artuta, atzerriak menperatu ta Yabe'gana biurtuko eba-zala.

26. Baiña judar geienon artean, batzuek era batera uste dabe eta beste batzuek bestetara Mesias'i ta beronen erregetzari buruz.

**Erriko talde andi** batek, Mesias askatzaille andi bat izango dala uste dau. Berak askatuko ditu erromarren menpetik, eta erri askatua, aberatsa ta indartsua egingo dau Israel.

**Pariseuak**, Moises'en Lege-zale gartsuak, Mesias'ek judar guztiai Legea zeatz-zeatz beteazoko dautsela uste dabe, baita jentillai eurai be.

**Eseniuak:** Itxaso II-ondoan baztartuta bizi diran judar lagunarte txikiak, Mesias bi itxaroten dabez: bata, Dabid'en ondorengoa, eta errege izango da; eta bestea, Aaron'en ondorengoa, eta abadea izango da.

27. Beste persona **bakun, lau ta apalak** be ba-dira, **Yabe'ren Txiroak** izenaz ezagutzen diranak; oneik, neke askoren artean bizi-zarren, Jaungoian jarri dabe euren itxaropena. **Jeremias** profeta dabe eredutzat, eta **Yabe'ren morroia**'ri buruzko profetia edo igarpena ausnartzen dabe sarritan. Oneintzat, Mesias errege bakezalea, apala ta errukiorra izango da; gaiztakeri-erreñua ondatu egingo dau, eta txiroentzat batez be salbamena, Israel'go erri guztiai pozbidea eta jentillai argia ekarriko dautse.

Mesias'ek jarriko dauan Jaungoikoaren erregetza **Alkartasun Barri** bat aziko da. Jaungoikoaren eta gure arteko maitasun-itunpen barri au, batez be biotz-barruetan egingo da. Biotzak, euren pekatuetatik garbituta gero, barri lez geldituko dira. Olan, Jaungoikoaren eta Mesias'en erreñua, Jaungoikoagana eta beste gizonakanako maitasunez beteriko gizonak osotuko dabe. Oneitari-koak edo **Yabe'ren Txiroak** dira Zakarias, Elizabet, **Yon Bateatzaillea**, Simeon, Ana igarlea, **Andra Mari**, San Jose ta beste batzuk.

Baiña, zelakoa izango da ain luzaro itxaroten dan Mesias? Zer izango da Jaungoikoak Mesias'en bitartez emongo dauskun salbazio ori? Judar geienak itxaroten daben salbazioa baiño garaia-goa izango ete-da? Itau interesgarriak dira benetan; urrengo orrialdeetan aurkituko dabe erantzuna.

#### ITAUNKETA

12. Znbatu egizuz Jainko-Erriaren Istoriako aldi nagusiak Alkartasun Zaarrean.
13. Zelakoa da Palestina, Jesus'en aberria?
14. Zenbat lurralde ditu Palestina'k?
15. Zelakoa da Galilea?
16. Zelakoa da Samaria?

17. Zelakoa da Judea? Zek emoten dautso bizia Judea'ri?
18. Zelakoa da judar-erriaren politika-bizitza Jesus jaio danean?
19. Zelakoa da judar-erriaren erlejiño-bizitza Jesus jaia danean?
20. Zeintzuk dira judarren jai nagusiak?
21. Nortzuek egiten dabez judar-erriaren elizkizunak eta opariak?
22. Zer da Sanedrina?
23. Zeintzuk dira Judar-erriaren bizitzan indarrak geien daben taldeak?
24. Zein da Jainko-Erriaren gauzarik garrantzitsuena?
25. Zelan uste dabe judarrik geienak Mesias'i buruz?
26. Zelan uste dabe Mesias'i ta onen erregetzari buruz erriko talde andi batek, periseuak eta eseniuek?
27. Zelakoa izango da Mesias eta onen erregetza Yabe'ren Txiroen ustez?

#### EGITEKOAK

—*Palestina'ko mapa bat marraztu, Jesus'en bizitzari dagokiozan lurraldeak eta uriak ipini. Beste zeaztasun garrantzitsu batzuk be ipini.*

—*Azaldu egizu judar-erlejiñoaren edertasunaren eta apalak daben Mesias'i buruzko iixaropenaren artean dagoan aldea. Eta ezarri egiozu Elizari gogapen au.*

OTOITZ EGIZU: "Jauna, egin zuzenbidea apalai".



#### 2'GARREN IKASKIZUNA

## Jaungoikoaren Erriak sarritan agindutako Salbatzaillea itxaroten dau

28. Alkartasun Zaarrean, Jaunak, noizean bein, agintzariak egiten dautsaz bere Erriari; eta onek, Jaungoikoak egintzariok beteiko dauzanaren itxaropen osoa dau. Baiña, **itxaroten dauan baiño geiago emongo ete-dautso Jaungoikoak?** Bai, orixe: Jaungoikoa bereak diranen erdian bizi izango da, eta Jesus izango dau izena.

Ikusi daiguzan orain Jesus'en umetzaroko jazopen ezkutuek. Jazopenok Jaungoikoaren asmoen barruan dagoz, gizon guztiok salbatzeko. Orregaitik, sinismen eta apaltasun aundiz ausnartu bear doguz.

#### Joan'en jaiotzaren barri-emotea.

29. Ain-Karim'go baserri txikian, Judea'ko mendien barrenean, atso-agura ezkondu bi bizi dira: Zakarias eta Elizabet. Jaungoikoak biok oso gogoko ditu; Aren aginduak bete egiten dabez eta laster etorriko dan Mesias'en etorreraren zain dagoz. Sendi (famili) onetatik aukeratzen dau Jaungoikoak Mesias'en bideak atonduko dauzan arduraduna, baita judar-erriari aurkeztuko dautsana be, iragarrita egoanez. Yon da, eta izena "Bateatzaillea" ezarriko dautsoe. Alkartasun Zaarrak Isaak, Samuel eta Elias aundi-kiro aitatzan dituan ez aitatzan dau Ebanjelioak Joan.

30. **Zakarias**, Jaunaren abadea da Jerusalem'go Eliza Nagusia. Guztiak lez, Mesias'en egunak itxaroten dauz, eta Gabriel aingeruak aldi aretan iragarriko ebala, Daniel'en ikuskizunetan irakurten danez (Daniel, **8**, 15-18 eta **9**, 21-23).

Egun baten, Eliza Nagusiko Toki Santuan (1) sartzeko eguna

(1) Santutegiak edo, obeto esateko, Eliza Nagusiak toki bi ebazan: "Santua" eta "Gutziz Santua".

datorkio intzentzia eskintzeko; bitartean, kanpokaldean, erriak otoitz egiten diardu, Mesias eta beronen erregetza etorri daiten.

Intzentzia erre odoren, Jaunaren aingeru bat agertzen yako, zutik, altarako eskumaldean, onen eta argi-mutillaren\* bitartean.

Zakarias ikaratu egiten da, baiña aingeruak baretu egiten dau, ari dirautsala:

"Ez bildurtu, Zakarias; zure eskaria entzuna izan da; zure emazte Elizabet'ek seme bat egingo dautsu, eta izena Yon ezarriko dautsazu (Yon izenak "Jaungoikoak errukia izan dau" esan gura dau). Au andia izango da eta Jaunaren aurrean joango da Elias'en adoreaz eta indarraz.

Zakarias'ek aingeruari auxe esan eutsan: "Nire emaztea ta ni onezkeru zaarrak gara". "Ni Gabriel naz —erantzuten dautso aingeruak—, eta ezagurri bat emoten dautsut Jaungoikoaren izenean: Nire berbok sinisten ez dozuzan ezkeru, mutu geldituko zara zure semea jaio arte". Eta alantxe jazo zan.

#### **Aingeruak Jesus'en barri emoten dau.**

31. Sei illebeta geroago, aingeruak barri andiago bat emoten dautso Maria izeneko Nazaret'eko neskatilla bati. Neskatilla onek Jose'ri ezkontzeko berbea emon eutsan; Jose, barriz, Dabid'en etxeko ondorengoa ta gizonezko zintzoa zan.

Ebanjelioko zatia irakurtean, Alkartasun Zaarreko Jaungoikoaren agintzariak gogoratuko dozuz, bere Erriari poza ekarten dautsen agintzariak; Erri orren orde, orain Maria dago.

Gabriel aingeruak, begirune andiz, onetaraxe agurtzen dau Maria:

"Postu zaitetz, graziaz bete ori, Jauna da zugaz". Berbok entzunda, Maria ikaratu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabillen gogoan. Aingeruak auxe esan eutsan: "Ez izan bildurrik, Maria, Jaungoikoaren aurrean ederra aur-

Toki **Santuan** urrezko altarea egoan, eta an intzentzia erreten zan; zazpi besoko argimutilla, urrez egina, eta maia, urrezkoa au be, Jaunari ogiak eskintzeko.

Toki **Guztiz Santua** gela illun eta oso santua zan, toki **Santutik** zapi andi bat az bananduta. An, Abade Nagusia bakarrik sartu zeitekean urtean bein, Ordaintze-egunean. Lenengo Eliza Nagusia, toki onetan gordeten zan Alkartasun-kutxa.

Eliza Nagusiaren aurrean, eta aldamenetan, atadiak eta elizpeak egozan. Abadeen atadian abere-opariak egiten ziran altarea egoan.

\* Argi-mutil: candelabro.

kitu dozu-ta; sabelean semea sortu ta egingo dozu, eta izena Jesus ezarriko dautsazu. Aundia izango da, eta Gorengoaren Seme esango dautsoe, eta Jaungoiko Jaunak Aren aita Dabid'en errege-jarlekua emongo dautso; Jakob'en etxeko errege izango da betiko, eta Aren erregetzak ez dau azkenik izango".

(Lk. 1, 26 eta urrengoak)

Baiña, zelan izango da jaiotza au? Jaungoikoaren egintza miragarri baten bidez izango da, datorrena Jaungoikoaren Semea bera da-ta. Izan be, "Jaungoiko geugaz dago". Olantxe diño Ebanjeliok:

Maria'k aingeruari auxe esan eutsan: "Zelan izan daiteke ori, gizonezkerik ez dot ezagutzen-eta?".

Aingeruak auxe erantzun eutsan: "Espiritu Santua etorriko da zure gainera, eta Gorengoaren indarrak bere gerizpean artuko zaitu; orregaitik, jaioko dana, santu izango da, eta Jaungoikoaren Seme esango dautsoe".

Maria Neska-birjiña eta Ama izango da. Jaungoikoak eragiten diardu Maria'gan, Alkartasun Zaarreko erriaren erdian jardun eban antzera: orduan, odelaren gerizpeaz zaintzen eban bere erria.

#### **Maria'ren erantzuna Jaunari.**

32. Jaunak, gizonoi dei egiten dauskunecan, dei ori askatasunez artu dagigula eskatzen dausku. Maria. "Yabe'ren Txiroak" lez, beti dago gogo onez Jaungoikoaren aurrean, Beronen Itza artzeko gertu. Entzun Ebanjeliok:

Maria'k auxe esan eban: "Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zeuk diñozunez". Eta aingeruak, Maria itzita, alde egin eban.

"Eta Itza aragi egiten da, eta bere Bizitokia geure artean jarten dau".

Nazaret'eko Birjiña gaztean gizon guztien izenean eta aldi guztietako gizon guztien alde erantzun dau. Beragan batzen dauz, obeto ezinean, Alkartasun Zaar guztian sinismenez eta itxaropenez aundiki ospetsuak Jaungoikoari emon dautsoezan "baietz" guztiak.

Maria'k, edozetarako gertu dagoala diño Jaungoikoaren aurrean, baita Beroni gogoko dakiona egiteko be.

Beti jazoten da bardin: Jaungoikoak persona esaneko ta ger-tuen bidez erooten ditu aurrera bere asmoak, Maria Birjiñaren antzekoen bidez.

### Zelakoa da Maria'ren Semea?

33. Maria'ren biotz-zabaltasunari eskerrak, Jaungoikoa gizonakaz bizi izaten asten da; Isaías profetak iragarritako Emmanuel edo Jaungoikoa gugaz egiten da benetan.

Aldi berean, Jaungoikoa gizon egiten da, giza-endakoa\* da, geuretariko bat da.

Jesus, Jaungoiko Aitaren Semea da eta Maria'ren semea, egiazko Jaungoikoa eta egiazko gizona.

### Zer egingo dogu gizon egin dan Jaungoikoaren Semearen aurrean?

34. Jazopen onein aurrean, gizonen istoria guztiko jazopenik aundienaren aurrean, Jesus gurtzen dogu berez, Jaungoikoaren Seme gizon egiña.

Goizean, eguerdian eta gabean "Anjelus" otoitza esan dagigula dirausku, Jainko-Semearen Gizakundearen\* misterio andia gogoratu dagigun. Une onetan auxe diñogu: "Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done orrek, Jesukristo'ren agintzariak jaristeko gai izan gaitezan".

### Maria'ren ikustaldia Elizabet bere lengusiñari.

35. Gabriel aingeruak Maria'ri be iragarri eutsan, beronen lengusiñea, Elizabet, iru illebeta barru ama izango zala. Jaungoikoaren Ama Judea'ra doa Zakarias'en emaztea dan Elizabet'i ikustaldi bat egitera; Zakarias eta emaztea, orain Arin-Karim deritxon baserrian bizi dira.

Maria arein etxean sartzean eta bere lengusiña Elizabet agurtezan, onen semea ikaraka asten yako sabelean. Eta Espiritu Santuaren argiz beterik, Elizabet'ek Maria'ri auxe dirautso:

"Bedeinkatua zu emakumeen artean eta bedeinkatua zure sabeleko frutua. Nor naz ni, baiña, nire Jaunaren ama etorri dakidan? Zorionsua, Jaunaren izenean esan yakozanak beteko zirala sinistu dauana!".

\* Giza-enda; raza humana.— Gizakunde: Encarnación.

### Maria'ek bere biozkadak agertzen dauz.

36. Alkartasun Zaarrak azaltzen daukun emakume zintzo ta bikaiña Maria da, baita Jaungoikoaren Erri guztiaren ordezeko dana be. Ondo ezagutzen ditu Salmuak, baita Alkartasun Zaarreko beste ereserki\* santu batzuk be. Berbakera onetan agertzen dira Ebanjelioan Maria'ren biozkadak, baita beronek ordezeko egiten dauktan Erriarenak be. Maria'ren gorespen-abestia da, **Magnificat** izeneko ereserki\*. Entzun abesti onen bertso batzuk:

"Nire arimeak Jauna goratzen dau, eta nire gogoa Jaungoiko nire Salbatzaileagan pozten da, bere mirabe onen apaltasuna begiratu dau-ta.

Aurrerantzean, gizaldi guztiak zorion-agurrak emongo daustez, Altsuak nire alde arrigarriak egin dauz-ta, Santua da Aren izena. Beretzat artu eban Israel bere morroia, Abraham eta onen ondorengoakanako errukia betiko gogoraturik, gure gurasoi agindu izan eutsenez".

(Lk. 1, 46-55).

Esanaldi orrekaz —batzuk Alkartasun Zaarretik ataratakoak dira—, geuk be Jaungoikoari geure eskerrona agertzen dauzagu: izan be, Jesus Maria'ren bitartez emoten dauzku ta, Beragana erooteko, batzuetan bide ez-ezagun eta ezkutuetatik zuzentzen gaitu.

### Yon Bateatzaillea jaioten da.

37. Umea egiteko aldia eltzen yako Elizabet'i, eta seme bat jaioten yako. Zorionak emotera etorri yakozan auzoko ta senideak, aitaren izena, Zakarias, jarri dagiola dirautsoe. Elizabet'ek, osterá, ezetz: "Ez, Yon izango dau izena". Bere senarrari eskatzen dautso eritzia, eta onek, oraindiño mutu dagoan ezkerre, argizarizko oltxo bat eskatu ta auxe idazten dau: "Yon da orren izena".

Bat-batean berbea datorkio; eta, Maria lez, Jaungoikoa goratzen asten da ereserki batz; bertoko bertsoak, Salbaziño-Istorian zear Jaungoikoaren ontasuna abesten dabe; Jaunak Salbaziñoa asti-ro-astiro une gorenera dakar, Mesias'en etorrera-aldira.

Irakurri, biotza sinismenez eta pozez beterik dozula, Zakarias'en abesti-zati au:

"Bedeinkatua Israel'en Jaungoiko Jauna, bere erria ikusi ta erosi daualako".

\* Ereserki: himno.

"Eta uri, umetxo orri, Gorengoaren profeta esango dautsue,  
Jaunaren aurrean joango zara-ta,  
Aren bideak atontzera,  
Aren erriari salbaziñoa iragarririk,  
baita euren pekatuen parkamena be".

(Lk. 1, 68-70).

Berba onekaz, Jaungoikoak bere semeari izentatu dautsan egin-kizuna agertzen dau Zakarias'ek: Jesus Salbatzailearen bidea aton-duko dau.

#### ITAUNKETA

28. Noren asmoan dagoz Jesus'en Umetzaroko jazopen ezkutukoak?  
Zelan urreratuko gara jazopen ezkutu oneitara?
29. Zelakoak ziran Yon Bateatzailearen gurusoak?
30. Noiz eta zelan iragarten yako Zakarias'i seme bat jaioko yakola?
31. Zelan iragarten dautso aingeruak Maria'ri Jaungoikoaren Ama izango zala?
32. Zer erantzuten dautso Maria'k Jaungoikoaren mandatariari?
33. Nor da Maria'ren Semea?
34. Zeintzuk izan bear dabe gure biozkadak Jainko gizon egifaren misterioaren aurrean?
35. Azaldu egizu Maria'k Elizabet'i egin eutsan ikustaldia.
36. Zelan agertzen dauz Maria'k bere biozkadak bere lengusiñaren agurra-on-doren?
37. Zer jazoten da Yon Bateatzailea jaiotean?

#### EGITEKOAK

- Ze esangura dauko guretzat ain-geruak Andra Maria'gaz izan eban alkarrizketak?
- Billatu ta azaldu egizu San Pau-lo'k Galazia'koai egin eutsen idazkia, 4, 1-7.
- Lan bat egizu Abenduko liturji-aldiari buruz, aldi onetako me-

zetan Isaia's'en, Yon Bateatzai-  
learen eta Maria'ren esaera ba-  
tzuk aukeraturik.

—Margozki bat egin, "slogan"  
onetaz: "Agindutako erregea",  
72'garren Salmuko esaerak ar-  
turik.

OTOITZ EGIZU: "Ona emen Jaunaren mirabea".

#### 3'GARREN IKASKIZUNA

## Jaungoikoak gizonen Salbatzailea bialtzen dau

38. Gorengoaren Semea ume makal eta txiro egiten da. Eta beste edozein gizonek lako bizitza eroaten dau. Euretarike bat da, anai bat. Jesus, benetan, Yabe'ren Txiroak itxaroten eben Mesias da. Emmanuel, Jaungoikoa gugaz, Bakearen Buruzagi.

39. Jesus bere bizitza agirian agertuko danarren, San Lukas' ek eta San Mateo'k, Umetzaroko Ebanjelioan, oraintxe be curkez-ten dauskuez Jaunaren lenengo artu-emonak gizonakaz: Israel-erriagaz artzaiñak ordezeko egiten dabela, eta enparauakaz, Az-  
tiak ordezeko egiten dabela.

40. Jesus'en aurrean, artzaiñak eta Aztiak egin ebenez, emon daiozugan eskerrak Jaungoikoari Belen'go Umeagan erakusten dauskun maitasun guztiagaitik. Bertan-beera itzi al izango gaitu orain, ainbeste maite izan gaituan Jaungoikoak?

#### Jesus, Mesias, Belen'en jaioten da.

41. Maria iru illebeteen dago Elizabet bere lengusiñaren etxean. Gero, Nazaret'era biurtzen da.

Baiña, igarleak iragarri izan ebanez, Jesus'ek, Dabid'en ondo-  
renngoak, ez eban jaiot bear Nazaret'en, Belen'en baiña.

42. Erroma sortu zanetik 748'garren urtean, Zesar Augusto'k, erromar agintari nagusiak, agindu bat emoten dau: bere agintari-tza-barruan dagozanak, bakotxa bere jatorri-etxeke errira joan dai-tzela, izena emotera.

Maria ta Jose Dabid'en etxetik datozen ezker, Galilea'ko Na-zaret'etik Dabid'en erria dan Juda'ko Belen'era igoten dira. Orreta-rako, 160 kilometru egiten dabez ibillian.



43. Belen'era eldu diranean, Jose ta Maria ostatu baten billa dabiz, baiña ez dabe lekurik aurkitzen; orduan, besterik ezean, artzaiñen eta abareen estalpea zan koba batera doaz. A lako koba asko dagoz Belen'go inguruetan.

An egozala, umea egiteko egunak bete yakozan Maria'ri. Eta Maria'k **"bere len-semea izan, oialetan batu eta aska baten ipiñi eban"**.

#### Artzaiñak Jesus ikustera.

44. Mesias jaiio da. Aregana urreratzen diran lenengoak, artzain lau batzuk dira. Ebanjelioak onetaraxe azaltzen dausku:

Lurralde aretan artzain batzuk egozan, kanpoan lo egiten ebenak, eta euren ardiak gabez txandaka zaintzen ebezanak. Jaunaren aingeru bat agertu yaken, eta Jaunaren edertasunak inguratu ebazan bere argitan; eta bildurrez beterik gelditu ziran. Aingeruak auxe esan eutsen: "Ez bildurtu, erri guztiarentzat poz aundia izango dan barri bat dakartsuet-eta: **Salbatzaille bat jaiio yatzue gaur Dabid'en urian, Kristo Jauna dana;** eta auxe izango dozue ezaugarritzat: ume bat oialetan batuta eta askan etzunda aurkituko dozue".

Bat-batean, aingeruagaz zeruko talde aundi bat alkartu zan, Jaungoikoa goratzen eta auxe iñoela:

**AINTZA JAUNGOIKOARI GOIETAN, ETA BAKEA LURREAN AREN GOGOKO DIRAN GIZONAI!**

Artzaiñak lenbailen joan ziran, eta Maria, Jose eta askan etzunda egoan Umea aurkitu ebezan. Umea ikustean, ume aretzaz esan eutseen a adierazo eben: eta ori entzun eben guztiak, artzaiñek zirautseenaz arrituta egozan.

**Maria'k, barriz, gorde egiten ebazan berba guztiok eta bere biotzean ausnartzen ebazan.**

Artzaiñak, entzun eta ikusi izan eben guztiagaitik, Jaungoikoa goratzen eta ospatzen biurto ziran.

(Lk. 2, 1-20).

45. Zer irakasten dausku Jesus'en Jaiotzak? Jazopen andi au, Jaungoikoaren aintzaren agertze ikusgarri bat da gizon guztiarentzat;

guztietariko ondasunak dakaz, guztiak "Bakea" itzaz batuta.

Jesus'ek bakea dakar, batez be txiroentzat; onein ordezeko, barriz, Jesus ikustera lenen datozen artzaiñak dira.

#### Zer izango da Ume au?

46. Jesus'ek artu bear dauan bidea, Aitareen Naia, lenengo une oneitatik agertzen da: **Jesus'ek gizona txirotasunean eta naigabean salbatuko dau.** Orrexegaitik jaioten da estalpe baten. Olan, gutxiago ikaratuko gara, gurutzean, Maria bere amaren ondoan ilten ikusi dagigunean. Jaunaren bizitza guztia bere **Pazkorantz** begira dago.

47. Beste gauza batek be agertzen dausku Jesus'en etorkizun mingarri au: Ume au, jaiio ta zortzi egunera, erdaindu\* egiten dabe.

**Erdainkuntza**, Abraham'en errian sartzeko egiten dan erlejiñozeremoni bat da. Ume jaiobarriari ebagi mingarri bat egiten yako aragian, lenengo odola urtetan yakola. Ume erdainduak orduantxe artzen dau bere izena. Belen'go Umeari izena **Jesus** ezarri eutsoen, aingeruak Maria'ri ikustaldia egin eutsanean esandako izena bera.

Jesus'ek —izen onek "Yabe'k salbatzen dau" esan gura dau—, geu salbatzeko isurten dauz bere lenengo odol-tantak. Gurutzean ilteko ordua eldu dakionean, edo bardin dana, salbatu gagizanean, **Jauna** izango da.

San Pedro'k auxe esango dautso laguntaldeari:

"Ez dago salbabiderik beste iñoan, gizonoi eguzkipean ez yaku beste izenik emon gu salbatzeko-ta".

(Ap. Eg. 4, 12).

#### Andra Maria'ren Garbikundea eta Jesus Eliza Nagusian Eskintzea.

48. Legeak diñoamez (Leb. 12), judar amak, semearen jaiotzatik berrogei egunera, Eliza Nagusian aurkeztu bear dau, garbitua izatera. Abadeak aren alde erregutzen dau, eta, aurrerantzean, artu daike parte elizkizunetan. Olakoetan, ama aberatsa ba'da, bildots bat eskintzen da; txiroa ba'da, barriz, uso-turtura bi edo usakume bi.

\* Erdaindu: circuncidar.

Maria Lege onen esaneko egiten da, beste andrak lez; eta, txiroa dan ezkeru, txiroai dagokiena eskintzen dau.

49. Jesus Andra Maria'ren len-semea izatean, Maria'k Jaungoikoari eskintzen dautso. Izan be, gizonezko len-semea Jaunari eskintzeko agintzen dautse Legeak gurasoi, Ejipto'ko urteera eta azken-zigorren gomutaz (Ex. 13, 2-16). Orregaitik, Ebanjelioak Jesus'i buruz len-semea dala diño.

Maria'k Umea eskintzen dau, eta, barriro beragaz eroateko, zidarrezko bost diru emoten ditu.

Bere lenengo-egunetik, Jesus Legepean jarten da, Berak bikainduko dauan Legepean; bere anai gareanokaitik Aitari bere burua eskintzen dautsan len-semea da.

#### Batzuk Mesias'en alde eta, beste batzuk, aurka.

50. Jesus Eliza Nagusia aurkitu ebenean, garrantzi andiko gauza bat jazoten da.

Simeon izeneko agura bati, Jaunaren bialdua ikusi arte ez zala ilgo agindu izan eutsan Jaungoikoak. Espiritu Santuak eraginda, Simeon Eliza Nagusia dator Maria ta Jose Jesus'egaz sartzen diran une berean.

Umea ikustean, artzen dau besoetan eta Jaungoikoari otoitz au egiten dautso:

"Orain, Jauna, itzi daikeozu otsein oni bakean joaten, berba emon zeutsanez: ikusi dabe nire begiak zure osasuna-ta, erri guztien aurrean gertu dozun osasuna: jentillak argitzeko argia, eta zure Erri Israel'en aintza".

(Lk. 2, 29-32)

Eta, Umea amari biurtzean, semea dala-ta naigabe andiak izango dituala iragarten dautso Maria'ri:

"Ume au askoren jausterako ta gorapenerako dago jarria Israel'en, baita ukatuko dabenen ezaugarri-rako be; eta zeuri be, ezpata batek zulatuko dautsu arimea alderik alde, biotz askoren asmoak agirian gelditu daitezam".

Simeon'ek auxe esan nai dau: Jesus andi egin eta Mesias lez

agertu daitenean, batzuek Aren alde jarriko dirala eta Aregan sinistuko dabela; beste batzuek, barriz, Aren aurka jarri ta ez dabela Aregan sinistuko.

51. Simeon'egaz batera, Ana izeneko andra alargun Jainko-zale bat be ba-dago Eliza Nagusia, larogei ta lau urtekoa. Umea ikustean, Jaungoikoa goratzen asten da, eta, Israel'en salbazioa itxaroten eben guztiai, Umeari buruz egiten dautse berba.

Atso-agura biok, Simeon eta Ana, apalak eta lauak dira, **Yabe'ren Txiroen** artekoak: oneik, otoitzari ta baruari ekiten dautsoe eta Mesias'en etorrera itxaroten dabe, beti Jaungoikoari atse-gingarri izateko gurariaz bizi izanik.

#### Aztiak\* Jesus'en aurrean.

52. Judar batzuk Eguzki-sortaldean, Babilonia'n eta Persia'n bizi ziran. Erbeste-aldia amaituta gero gelditu izan ziran an. Areik be Mesias'en etorrera itxaroten eben, judarren sinismena begi onez ikusten ebenean artean; Jerusalem ikustera be etorten ziran, judarren jai nagusiak zirala-ta.

Ebanjelioak jentillak Jesus'i egin eutsoen ikustaldia argi agertu nai dau: Eguzki-sortaldeko Azti batzuk dira, ortziko\* izarrak eza-gutzen trebeak ziran, eta izar barriren bat ikusten ebenean, gizon ospetsuen jaiotza iragarten ebala uste eben.

Jesus jaioten danean, Azti oneik izar bat agertzen ikusten dabe. Sinismenak Jerusalem'era daroetz. An judarren sinismen otza aurkitzen dabe. Irakurri dagigun Ebanjelioa:

"Erodes erregearen egunetan, Juda'ko Belen'en Jesus jaiot zanean, azti batzuk eguzki-sortaldetik Jerusalem'era etorri ziran, esanez: "Nun dago judarren errege jaiobarria? Eguzki-sortaldean Aren izarra ikusi doguta, gur egitera gatorkioz". Ori entzunik, Erodes erregea larritu egin zan, baita aregaz batera Jerusalem guztia be. Abadeburu ta erriko idazlari guztiak batu-erazo ebazan, eta Kristo'a nun jaiotko zan itandu eutsen. Areik auxe esan eutsoen: "Juda'ko Belen'en, olantxe dago igarleak idatzita-ta".

\* Azti: mago.— \* Ortzi: cielo atmosférico.

Gero, Jerusalem'dik bederatzi kilometrora dagoan uri txiki orretara bialtzen ditu, eta barriakaz etorri daitezala dirautse, bera be ara joan daiten.

Jerusalem'dik urtetea, barrero izarra agertzen yake, eta Sendi (Famili) Santua bizi dan etxe-gaiñean gelditzen da. Eta bertan sar-turik, Aztiak Jesus Umearen aurrean auzpazten dira eta opariak eskintzen dautsoez: urrea, intzentzia ta mirra.

53. Aztiak Israel'dik kanpo dagozan laguntaldea ta errien ordeko egiten dabe. Guztiok gara Jesus'ek ekarritako Bakea, Bizia ta Salbazioa artzeko deituak. Jaunaren dei orri erantzuten dau-tsen jentil-erriñ aurrelari lez dira Aztiak.

Jaunak Aztiak egin eutsen deiak, gure Bateo-egunean Jaunak bere seme izateko deitu genduzan eguna gogoratzen dausku. Arrezkero, Jesus Salbatzaileagan dogu sinismena. Aztiak lez, ja-rraitu daiogun zintzo-zintzo sinismen-izarrari, eragozpen guztiak bazarturik.

54. Gero, Erodes'egan ez biurtzeko burubidea amesetan ar-tuta, Aztiak euren errialdera beste bide batetik doaz. Baiña, Erodes erregeak, Aztiak joan egin zirala jakin ebanean, Belen'en eta inguruetan jaiotako urte birik beerako ume guztiak ilteko agintzen dau. Olan, Jesus iltea uste dau. Ogei ume-edo dira il dabezanak; baiña Erodes'en asmoak uts egiten dau: Jose'k, Jaunaren ainge-ruak eraginda, Umea ta onen ama artu ta Ejipto'ra egiten dau iges. Lurralde onetantxe aurkitu eben igesleku milla ta zazpi-reun urte lenago euren aurretikoak, israeldarrak, Jakob'en semeak.

**Jesus, Moises barria, Ejipto'tik Nazaret'era dator.**

55. Gogoan izango dozu Moises be beronen umetzaroan aurrean erabili ebena; geroago, barriz, Jaungoikoaren antxiñako Erria izatera eldu ziran israeldarren buru egiten ebala, Ejipto'tik alde egin eban; berak eroan eban erri ori Agindutako lurralde-ondora. Alan ba, Erodes il zanean, Jesus'ek barrero egiten dau erri orren bidea eta Agintzari-Lurraldean sartzen da, Jaungoikoaren Erri barria eratzeko eta gizon guztiak salbatzeko. Eta, Jose ta Maria'gaz, Nazaret'en gelditzen da, Galilea'ko baserri apalean. Igarleak iragarritako au bete da: "Nire Semeari Ejipto'tik egin neutsan dei". Egiaz, Jesus Israel erria baiña askozaz be Seme aukeratuagoa da.

## ITAUNKETA

38. Nor da Jesus?
39. Zelan erakusten dauskuz San Lukas'ek eta San Mateo'k, Umetzaroko Eban-jelioan, Jesus'en lenengo artu-emonak gizonakaz?
40. Ze jokabide artu bear dogu Jesus jaiotako barriaren aurrean?
41. Noiz biurtzen da Maria Nazaret'era?
42. Zegaitik igo bear dabe Jose'ek eta Maria'k Belen'era?
43. Zein gora-beeren artean jaioten da Jesus?
44. Esan egizu artzaiñena.
45. Zer irakasten dausku Jaungoiko Aitak Jesus'en jaiotzaz?
46. Nora joten dau Jesus'en bizitza osoak bere jaiotzatik?
47. Zer esan gura dau Erdainkuntzan ipiñitako izenak?
48. Azaldu egizu Maria'ren Garbikundea.
49. Azaldu egizu Jesus Eliza Nagusian eskintzea.
50. Zer iragarten dau Simeon agureak Jesus'i ta onen Amari buruz?
51. Zer egiten dau Ana Jainko-zaleak Jesus Umea ikustean? Nortzuen artekoa dira Simeon eta Ana?
52. Azaldu egizu Aztien ikustaldia Jesus Umeari.
53. Zer ekarten dausku gogora Jaungoikoak Aztiak egin eutsen deiak?
54. Azaldu egizu Jesus'en igesa Ejipto'ra.
55. Moises'en eta Jesus'en alde-egiteak Ejipto'tik, antzekoak dira. Zegaitik?

## EGITEKOAK

—*Idatz-lan bat egin Gabonetako jai nagusiai buruz.*


—*Elizkizunetan Jesus'en izena esaten dogunean, burua makuru bear dogula dirausku Elizeak.*

*Billatu noiz esan dan Mezako Oparian Jesus'en izena.*

—*Ezarri 110'garren Salmuaren aukerako esaera batzuk zeuk egindako marrazki bati edo Jesus'en irudi egoki bati.*

**OTOITZ EGIZU:** "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena".





#### 4'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus Salbaziño-egintzarako gertatzen da

56. Jesus, Maria ta Jose'gaz, **Nazaret'**en bizi da, Galilea'ko lurralde menditsuko erri txiki baten. Orregeatik esango dautsoe "Jesus Nazaretarra".

57. Erritxo onetan, Jesus'ek Aitaren naia beteten dau oso-osorik; Jesus'ek bere Aita biotz-biotzez maite dau.

Geroago be esango dau: "Bialdu nauan Aren Naia egiteko etorri naz".

58. Bitartean, Jose ta Maria isilik eta arrituta dagoz. Jesus'i begira, geroago ta obeto ikasten dabe zeruko Aita izaten, Jesus'en antzera.

59. Billatu egizu zeuk be isillean dagoan Jesus au, Nazaret'en, ezkutuan dagoan au. Eta esan egiozu ainbat gizonen esan dautsan au: "Jauna, zer nai dozu nitzaz?" Erantzuna erraza izango da, baiña, bearbada, gatxa: Onartu dagizula beti zeruko Aitaren Naia.

#### Jesus Eliza Nagusira doa amabi urte ebazala.

60. Bein bakarrik zabaltzen yaku Nazaret'eko Jesus'en bizitza ezkutua. Eta ain zuzen be, Aitari dautsan maitasuna erakusteko izango da.

Jesus amabi urtekoa da. Adin orretan mutikoak Legepean gelditzen ziran. Eta Legea beteteko, Pazko-jaiak betetera Jesus bere gurasoakaz Jerusalem'go Eliza Nagusira doa. Nazaret'etik Jerusalem'erako bidea neketsua ta luzea da, 150 kilometro gutxi gorabehera. Baiña Jesus pozik doa Jaunaren Etxera. Lenengo aldiz artu bear dau parte, **persona azia lez**, Pazko-eginkizunetan.

61. Etxera biurtzeko eguna eltzean, bere gurasoak etxerantz

doazala, Jesus Eliza Nagusian gelditzen da, gurasoak igarri bagarik.

Lenengotan, Jose ta Maria ez dira larritzen, beste galilear eza-gunakaz egongo zalakoan. Lenengo eguneko illunabarrean, lo egiteko gelditzen diranean, laguntaldearen artean Jesus'en billa asten dira eta ez dabe aurkitzen. Kezkaz beterik igaroten dabe gaba, lorik egin ezinik. Eguna argitzeaz batera, Jerusalem'erako bidea artzen dabe barriro. Aren billa estu ta larri ibilli ondoren, azkenean be, irugarren egunean, Eliza Nagusian aurkitzen dabe, Lege-irakasleen artean jesarrita, arei entzuten eta itaunak egiten; guztiak ikaratuta egozan.

62. Aren gurasoak be arrituta gelditzen dira; eta Maria'k, edozein amak egingo leukenez, auxe esan eutsan Jesus'i: "Seme, zegaitik egin dauskuzu ori? Begira: estu ta larri ibili gara zure billa zure aita ta ni". Jesus'ek auxe erantzuten dautse: "**Eta, zegaitik ibili zaree nire billa? Ez zekien, ba, neure Aitaren gauzetan egon bear nebana nik?**".

Baiña gurasoak ez dabe Jesus'ek emoten dautsen erantzuna ulertzen.

63. San Lukas'ek Maria'gandik jakin eban biotzean gordeta eukan jazopen ori. Beti lez, Andra Mari apal agertzen da, berak, lenengotan, berba areik ez ebazala guztiz ulertu autorturik, ezta Jesus'ek munduan zabalduko eban ekintzakerak be. Izan be, Maria'k astiro-astiro doa ulertzen bere Semearen eginkizuna eta egin-kizun onek eskatzen dautsazan eginbearrak. Andra Mari, geu lez, azten doa sinismenean.

64. Ikusi dogunez, Jesus lenengo egunetik konturatu da zeoro Bera nor dan eta zeintzuk diran bere eginbearrak. Bigun-bigun, baiña aginpideaz, egun onetan argiro agertzen dau, Bera ez da-goala etxekoci begira, Aitatzat Jaungoikoa daualako. Olan, lenengo aldiz lotzen yake persona azi lez, adiñeko lez, bere eginbear santuaci. Eta askatasun osoaz egiten dau ori, bere gurasoak zalantzan eta illunpean itzirik, ordukoz beintzat.

Egiera orrezaz, Jesus'ek bere eginkizunaren ezaugarri bat eskintzen dausku aurretiaz: gizonen gurarien aurka joan bear izanda be, Aitari gogoko yakona egin.

Olantxe nai gaitu Jaunak: norbere eskuko, gizonen lotura guztietatik askatuta: Jaunaren deitari erantzuteko orduan, Berak agindu dau daskuna bete dagigun.

### Jesus, Aitaren serbitzari Nazaret'eko egunoroko bizitzan.

65. Bereala, bigun-bigun, berak aukeratu dauan bizikera apa-lera biurtzen da. Nazaret'en ogei ta amar urtean bizi izango da. Olantxe azaltzen dausku labur-labur San Lukas'ek:

"Arekaz (gurasoakaz) batera jatsi ta Nazaret'era etorri zan, eta arein menpean bizi zan. Jesus'en amak berba guztiok bere biotzean arduraz gordeten ebazan. Jesus azi egiten zan jakituriz eta gorputzez eta graziaz Jaungoikoaren eta gizonen aurrean".

(Lk. 2, 52.)

### Nazaret, Jesus bizi dan erria.

66. Nazaret Galilea'n dago. Auzuna txiki au, Alkartasun Zaarrean ez da baten be aitatzen. Felipe'k, Jesus lenengo aldiz ikusi dauanean, Kana'ko dan Natanael'egaz berba egin dau eta auxe dirautso: "Moises'ek Legean idatzi ebana, baita profetak be, axe bera aurkitu dogu: Nazaret'eko Jesus, Jose'ren semea". Natanael'ek berezko erantzun au emoten dautso: "Nazaret'etik ezer onik urten daiteke, gero?".

Barriro be, Jaungoikoak, bere asmoak burutzean, "iragarri dana aukeratzen dau, ezer balio ez dauana".

Jesus, guztien ustez, Nazaret'eko gizon bat da, auzuna bateko arotza, erriko arotz baten semea.

### Jesus, Jose ta Maria bizi diran etxea.

67. Aldi areitan oituten ziraretariko etxe baten bizi da Jesus: lur-zulo bat barrenean, eta etxe txiki bat aurrean, etxe-erdian atea dauala. Lurrea arrizkoa da, eta lasto-oialez estaltzen da, bustia gora etorri ez daiten. Etxe-barrenean gela zabal bat dago, bear diran ogeakaz; bertan gordeten dabe ogia egiteko garia, sugeia, kruse-luentzako orioa, esnea ta egunoroko jatekoak.

Jesus bizitoki txiro baten bizi da, lurreko beste edozein txiro bat lez, Nazaret'eko beste edozein auzoko bat lez.

### Jesus'ek egunoro egiten dauana.

68. Jesus besteak lez jazten da: soiñeko luze bat gerrikoaz, eta sandaliak oiñetan lokarriaz lotuta.

Egun oro, bere gurasoakaz batera, "Sema"-ko otoitzak egiten ditu; liburu orrek, batez be amar aginduak dakaz, edo bardin dana, israeldarraren egun oroko bizitzarako dan Jaungoikoaren naia.

Jatordu nagusia gabea izaten da.

Egun geiena lanean igaroten dau bere etxean arotzerian. Jai-egunetan atsedeen-legea beteten dau zeatz-zeatz. Zapatua da israeldarren asteko jai. Edozein judar zintzo lez, Jesus sinagogara doa; an Idazti Santua edo Biblia entzuten dau: Legea, Profetak eta beste idazki santu batzuk; Bibliari buruz Lege-irakasleen azalpenak entzuten dauz, eta Salmuak esaten ditu.

### Jesus'en bizitza ezkutuko zeatzasun batzuk.

69. Konturatuko zintzazamez, ikusi doguzan Nazaret'eko Jesus'en bizitzako zeatzasunik geienok ez dagoz Ebanjeliotik zuzen-zuzen artuta. Benetako zeatzasunak dira, eta jakitunak euren liburuetan esan dauskuezalako dakiguz. Jesus'en bizitzaldi luze onetzaz ez diñoe Ebanjelioak gauza andirik, eta, orreïn ordez, geuk eskiñi dautsuguz zelan-alan.

Zeatzasunok geiago be osotu geikezan zelanbait, Jesus'en agirizko bizitzak emongo dauskuzan ezaugarrietatik Beronen umetzaroa ta gaztaroa argiturik.

### Jesus'ek Idazti Santuak irakurten dauz.

70. Jesus'ek berbaldiren bat egiten dauanean, Biblia Santua ikasi daua agertzen dau, batez be Deuteronomio edo Itzaldiak, Salmuak, Isaias eta Daniel.

Mendiko Itzaldian, Aita Jaungoikoaren gudanako ardura andi ta maitekorra azaltzen dausku; Jesus'en berbakera onek Salmuetako bertso ezagunak ekarriko eutsezan gogora entzuleai, geiago argitu ta sakondurik.

Jesus'ek, sarritan, azalpenak egiñik irakasten dau, edo bardin dana, "Yabe'ren Morroia"-ri buruzko Isaias'en igarpenak azaldurik; Mesias'en aal-izate salbatzailea eta biozperatasun eroapentsu ta errukiorra. Bere bizitzako azken-aldian, eta batez be Abade Nagusiaren aurrean, "Gizasemea"-ri buruzko Daniel'en ikuspenak gogoratuko dauz aundikiro (Dan. 7, 13-14).

Jesus'ek Alkartasun Zaarreko zatiok azaltzen dauzan artean, ezer naastu bagarik egiten dau; gaiak me-me erabilten ditu, argia

ta sakona da. Idazti Santua darabilenean, Berarena dan ondasun oso baliotsuren bat lez darabil. Txikitarik, Jesus Bibliako gaiak ausnartuez azi zan.

### Jesus'ek, izadiaren bidez, Aita goratzen dau.

71. Biblia baiño beste liburu apalagoa ta illunagoa be badago: munduaren sortzea. Onen bidez be agiri da zelanbait Jaungoikoa. Izadiaren liburu onetan, Jesus'ek **mundua** ikusten dau, Jaungoikoaren eskuak egiña. Jesus'en itzaldi ta jardunaldietan sarritan jakin daikegu zelakoa zan orduko Galilea: ango illetak, ortzia ta urte-aroak; artaldeak eta maastiak; azi-aroa ta igitaroa: lorak eta txoriak; itxaso ederra eta arrantzale gogorak; nekazariak, batzuk aberatsak eta beste batzuk alogereko lurraz eta txiroak geienbat; sendietako (familietako) eta gizarteko oiturak...

**"Orra, zelaietako liriok... Salomon bera be, bere aunditasunik ospetsuenean be, ez zan orreitariko bat lez jantzi".**

Esanaldi bigungarri orrek, Jaungoikoak munduari, beran eratu ondoren, egin eutsan begirakunea dirudi: **"Eta egin izan eban guztia, guztiz ondo egoala ikusi eban Jaungoikoak"**.

Baiña gauza eder oneik, Jesus'en ezpanak goratzen dabezan, askozaz be samurragoak eta ezitsuagoak izaten dira, eta Izadiko gauzak goi-gora igoten dira. Gauza oneik gardenak lez biurtzen dira Jesus'en begientzat, arein bitartez bere Aitaren arpegi maitetsu ta zoragarria ikusten daua.

Zeruan eta lurrean, santuak eta guk, kristau guztiok, Jaungoikoaren semea eredutzat arturik, Aitaren aintza, edertasuna ta aunditasuna ikusten dogu. Jesus, Nazaret'en, Jainko-egintza zoragarriok ikusiaz azten da. Baiña, munduko gauza guztien artean, Jesus'ek batez be gizakiak maite dauz gogo gartsuz, zeruetako bere Aitaren antzeko egiñak izan garean gizaki guztiok.

### Jesus bere gurasoen menpeko ta ikasle.

72. Jesus'ek astiro-astiro azten doala, bere Amak gauza batzuk egiten dauzanez egiten dauz Berak be. Amak ereiten dautsaz biotzean eratasun samurra ta izakera atsegingarria; bere amak erakusten dautso berba egiten eta erriko guztiakaz bizi izaten.

Orregaitik, "Maria'ren Semea da" (Mk. 7, 3) diñoe Jesus'en erri-tarrak.

Eta Jesus'ek amagandik ainbeste artzen ba'dau bere gorputz-ariman, Berak be maite-maite izan eban bere ama gizon eta Jaungoiko lez. Gurutzean oiñaze gorritan egoala be, urrengo maitasun-berbak dirautsaz:

**"Andra, or dozu zure semea.  
Or dozu zure ama".**

Jose'gaz, "gizon zuzenaz" eban egun guztiko artu-emon barru-barrukoaren hidez artu eban gizon-sendotasuna, geroago guztiz gizon egiten lagunduko eutsana. Langille zintzo aren ondoan, eskuak gogortzen, gorputza neketzen eta gogoia edo espiritua indartzen dauan egun oroko lanari ekiten dautso. Orrela, Jesus'ek ba-daki ondo "bekokiko izardiaz" ogia irabaztea zer dan, eta bere gorputz-atalak nekatuta gelditzen dira. Jesus'ek, batez be, atsegi-ñez ikusten dau Jose'gan etxeke aita ona; eta onek gogo-biotzez zaintzen eta laguntzen dauz zeruetako Aitak ardurapean itzi dautsazan biak: Jesus eta Maria.

Orregaitik, erritarrak Jesus'i "arotzaren semea" eta "arotza" esaten dautsoe; izan be, Jose, besteen aurrean, aita lez agertzen da.

Jesus'ek, seme-maitasunez eta begirune santuz artzen dau Jose. Nazaret'eko urteen barruan, Maria ta Jose'gaz izan ebazan etxeke artu-emonetan, ikusi dau Jesus'ek escaneko izatea batzuetan gogorra izaten dana.

### Jesus, itxaroten Nazaret'en.

73. Jesus azten doa, Nazaret'eko beste edozein gazte lez. Erritarretarik batek be, ezta senidetarik urrengorenak be, Jose'k eta Maria'k izan ezik, ez dabe ezagutzen Jesus'en nortasun ezkuta ta Beronen Jaungoikozko eginkizuna.

Jaungoikozko azia'lur onean jausi ta erne egin zan; galburua eltzen doa.

Jesus, Nazaret'en, bere Aitaren Asmoa dan Salbaziño-Mandatu iragartera urteteko, Aitak izentaturiko orduaren zain dago. Ogetamar urte ebazala, bere berbak Lege-irakasleenak beste teko indarra izan eikeazanean, Aitak emon dautsan guztia iragartera urteten da. Laster gizonak ezagutu egingo dabe eta jarraitu egingo dautsoe, iragarten dautsenak eraginda.

### ITAUNKETA

56. Nun bizi dira Jesus, Maria ta Jose Ejipto'tik biurtu diranean?
57. Zer egiten dau Jaunak Nazaret'en?
58. Zer egiten dabe Jose'k eta Maria'k Jesus'en misterioaren aurrean?
59. Zer esango dautsazu Nazaret'eko Jesus'i?
60. Nora doa Jesus amabi urteko mutikoa zala?
61. Zer egiten dau Jesus'ek bere gurasoak Jerusalem'dik biurtzerakoan?
62. Zer dirautsoe alkarri Jesus'ek eta Amak Eliza Nagusian alkar aurkitzerakoan?
63. Zelan erakusten dau Maria'k bere apaltasuna Eliza Nagusian Jesus'egaz aurkitzen danean?
64. Zer nai dau Jesus'ek gugandik, dei egiten dauskunean?
65. Nartzui egiten dautse esana Jaunak Nazaret'en?
66. Ze garrantzi dau Nazaret'ek laguntaldearen aurrean?
67. Zelakoa izango zan Sendi (Famili) Santuaren etxea?
69. Zelan ezarten eta osotzen doguz Jesus'en bizitzari buruzko zeaztasunak Nazaret'en?
70. Erabilten eban Jesus'ek Biblia Santua bere etxeke bizitzan?
71. Zelako biozkadak ebazan Jesus'ek Izadiaren aurrean?
72. Zelakoa izan zan Maria'ren eta Jose'ren eragiña Jesus'en izakeran?
73. Zer itxaroten dau Jesus'ek Nazaret'en?

### EGITEKOAK

—Ipiñi egizu zerrenda bakoitzean urrengo au:

Lenengo zerrendan: *Edozein eguneko nire oiturazko bizitza. (Erria, Etxea, Alkar-arteko bizitza, Jaungoikoagazko artu-emonak, Lana, eta abar).*


Bigarren zerrendan: *Nazaret'en Jesus'en bizitza izan zeite-*


*keana. (Erria, Etxea, Alkar-arteko bizitza, Jaungoikoagazko artu-emonak, Lana, eta abar).*

—Idatz-lan bat egin, Jesus'ek egin aal izango leukeanez, Izadian biotz-ikareta egin dagitzun zerbaiti buruz.

—Irakurri 2'garren Salmua, Jesus Mesias'i ezarririk.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, zer nai dozu nigandik?"





BIGARREN ZATIA

JESUS'EK SALBAZIÑO-EGINTZA BURUTZEN DAU

JESUS'EN AGIRIZKO BIZITZA





## BIGARREN ZATIARI SARRERA ZABALA

74. Aitak, bere Semeak salbatu gogizala nai dau. Egingo dau ori Jesus'ek. Zelan? Laburkizun oni jarraiturik ikusiko dogu:

- a) Salbaziño-ordua: **Jesus'en Eginkizuna Yon Bateatzaillearen ondoan.**
- b) Salbaziño iragartea: **Jesus'en Eginkizuna Galilea'n.**
- d) Salbaziño-bidea: **Jesus'en Eginkizuna bere ikasleai zuzendua.**
- e) Salbaziño-misterioa: **Jaunaren Eriotza ta Biztuera.**

75. Jesus geroago ta geiago agertzen da, edo bardin dana, astiro-astiro. Alan be, Jesus lenengo-lenengotik Jaungoiko lez agertzen dala esan daikegu; eta ezin ulertu daikegu laguntaldea orretaz ez konturatzea, eta, geiago oraindiño, Jesus ezetsia izatea.

Zelan argitu ori? Umetzaroko Ebanjelioaren antzekoa da ori zelanbait.

Ebanjelariak lau Ebanjelioak idatzi orduko, Apostoluak, Jaunaren Biztueraz guztiz ikaratuta, emon dabe barri Jesus'en bizitzari buruz.

Areik eta lenengo kristauak ba-dakie, ba, Jesus, Yon'en eta Mendiko Itzaldikoa, euren artean aintzatsu bizi dan Jesus Biztua dana. Eta biotz-biotzez sinisten dabe Jaungoikoa dana.

Orregaitik, apostoluak euren idatzietan egiten dabena auxe da: ezkututsuak ziran jazopen guztiak argitu, eta Jauna nor zan ikusiaz guri.

Orain argiago ikusiko dozu, Jesus'egaz ibilli ziran asko zegaitik ez ziran konturatu Jesus nor zeitekean; beste batzuek, oster, azken-aldian bakarrik onartu eben Jaungoiko lez, biztu ondoren.

Zure aldetik, aurkitu egizu Jauna zure fedear, Elizaren fedear. Eta esan egiozu: "Eman naukazu. Bete, Jesus, nire bizitza".

### ITAUNKETA

- 74. Zein laburkizunari jarraituko dutsagu Jesus'en agirizko bizitzan?
- 75. Azaldu egizu, zegaitik ez eben jakin askok edo zegaitik ez ziran konturatu asko Jesus Jaungoikoa zanik.

## a) SALBAZIÑO-ORDUA: JESUS'EN EGINKIZUNA YON BATEATZAILLEAREN YONDOAN

### SARRERA

76. Eldu da Aitak gizonen aurrean bere Semea agirian agertuko dauan ordua.

Orain arte, isillean egon da Nazaret'en. Isillean egote onek esanai sakona euki dau Jesus' entzat; geuretzat; be ba-dauko.

Oraindiño Jesus ez da agertu agiriz Mesias edo Jaungoikoaren hialdua lez; egin ditu, bai, bakar-agerpen batzuk,

baiña agerpen orreik ez dau-tse agertu enparauai Nazaret'eko gizonaren misterioa.

Orain okerretara izango da. Profetarik aundienaren itzak Jesus Mesiasztat izentatuko dau, eta Jaungoikoaren Bildots onen atzean asiko dira ibiltzen gizonak. Kristo gure Salbatzailleak zuzenduta, gizaldiz gizaldi Aitagana doan gizatalde luze baten asiera da.

### ITAUNKETA

76. Zein izango da jazopen nagusia "Jesus'en Eginkizuna Yon Bateatzaillearen ondoan" deritxon Jesus'en agirizko bizitzaldian?



## 5'GARREN IKASKIZUNA

### Yon Bateatzailleak Salbatzaillea aurkitzen dau

77. Ba-ziran ogetamar urte, Yon izeneko Zakarias eta Elizabet'en semearen jaiotza miragarria ospatu izan zala; jazopen ori, Ain-Karim deritxon Juda'ko mendietako auzuna txiki baten izan zan.

Arrezkero, urteak igaro dira. Yon, gazte oraindiño, guztia alde batera itzi eta basamortura baztartzan da. Bakartasun andi aretan-txe argitzen dau Jaungoikoak Yon'en gaztetasuna. Antxe artzen dau Jaungoikoak izentaturiko ekintza burutzeko bear dauan adorea. Ekintza ori, Isaias'en urrengo berbokaz agertzen da Ebanjelioan:

**"Basamortuan deadarka dagoan abotsa:  
Atondu egizuez Jaunaren bideak".**

(Is. 40, 1.)

78. Yon'en abotsa trumoi-otsa lakoa izango da, leoiaren bat-bateko orroa lakoa: **"BIURTU ZAITEZE".**

Pekatuen damua Jaungoikoaren Erreiñuan sartzeko bear-bearezkoa dala iragarriko dau Yon'ek. Biotzeko biurtze onek gizonaren barrizte osoa adierazoten dau: pentzakeran eta sentikeran gizonak aldatu egin bear daua, aldakuntza ori egifietan be agerturik.

Geuk be, Kristo'ren Erreiñuan sartu nai ba'dogu, biotzez biur-tu bear dogu. Izan be, gure bizitza osoak gure biotzaren biurtze etenbagea izan bear dau, Jaunaren irakatsi egiazkotik baztartu ez gaitzan.

### Yon'en nortasun andia.

79. Yon basamortuan bizi da. Basamortua, ekintza aundieta-rako gertatze ta gerbitze-tokia da. Basamortutik sortu dira Israel'go erlejiñoa barrizteko eragin guztiak. Olan, Jaungoikoaren Erria basamortuan eratzen da Moises'egaz. Babilonia'ko erbestaldian be

basamortuan garbitu zan. Jesus'ek berak be, agirizko bizitzara urten baiño len, basamortuan egin eban otoitz eta barau.

Basamortuan, Yon, bakartade areitan dabizan beduinuen eta artzaiñien oiturai lotzen yake. Goizabarrean landarapetan eundaka batzen diran matxingorrikoak ditu janarizat, baita basaelen ez-tia be.

Gizon au, guztien eritiz, izaki bakana da. Ez dauko etxerik ez txabolarik. Gamelu-narruzko soiñekoa darabil, eta gorputza naruzko gerrikoaz lotzen dau. Batiña ez dautso iñok igarten alako itxura latz-pean, alako biotz adoresua estalduko zanik. Gizon aretan batzen dira Gizadi osoaren gogo-bizi ta gurariak.

### Profetarik nagusiena.

80. Yon'en irudi latzari eta bere arimeak gordeten dauan misterioari buruz, Jesus'ek judarrai auxe esango dautse geroago:

"Zer ikustera urten zaree basamortura? Aizeak darabilen kairnaberen bat? Zer ikustera urten zaree bestela? Apain jantzitako gizonen bat?"

Apain jazten eta oparo bizi diranak erregeen jauregietan bizi dira.

Zer ikustera urten zaree, ba? Profetaren bat ikustera? **Bai, eta profeta baiño aundiagoa be bai.** Auxe berau da beronetaz idatzita dagoana:

**"Neure aingerua bialtzen dot zure aurretik, aurretiaz bidea atondu dagitzun".**

(Malakias 3, 1).

"Benetan dirautsuet: emakumegandik jaiotakoen artean, ez da Yon Bateatzaillea baiño aundiagorik agertu. Eta onartu nai ba'dozue, bera da Elias, etortekoa zana" (Mt. 11, 7-14).

### Yon'ek Mesias itxaroten dau.

81. Erroma'ren asierarik 780'garren urtea da, gure Aldiko 27'garrenean. Tiberio Zesar amabost urtean dago agintaritzan. Israel olantxe dago zatituta:

—Pontzio Pilato, erromar erriburua, Judea'n.

—Galilea'n Erodes Antipas, Belen'go umeak ilteko agindu ebanaren semea.

—Filipo, au be Erodes Andiaaren semea, erromarren koipezale berarizkoa, errege Iturea'n eta Trakonitida'n.

Beste gizon bi be aitatu bear doguz, Yon'en eta Jesus'en bizitzaldian garrantzi andikoak:

—Kaifas, indarkeriz eta maltzurkeriz beterik, amazapi urtean Abade Nagusi dana;

—eta Anas, aren aitaginarreba, esku andiko aberatsa ta azpijokoetan oso trebea.

82. **Eta eldu zan ordua.** Profeta guztiak lez, Yon'ek be ez dau berba egiten bialdua izan bagarik, agindu bat eta goitik argia artu bagarik. Jaunari buruz berba egiteko bultzta egiten dautsan benetako indar eutsi-ezin bat da... Basamortua bertan-beera itzi ta gizon billa joan bear dau soloetara, bideetara, plazetara, urietara. Guztiak itxaroten dabenenaren gaineko etorrera iragarri bear dau, eta, bere berbearen eta ikasbidearen bidez, bizikera ohea eroateko adoretu bear ditu.

Aldi barriak, bein-betikoak, asi bear dira. Paradisua, Abraham, Moises, Dabid, profetak, dana, dana izan da oraingoxe.

83. Yon, Jordan'go ibaira jatsiten da. An, bere bateoa artu dagiela eskatzen dautse, barruko barritze ta gogo onaren ezaugarritzat. Laburra izango da Yon'en ekintza eta ille batzuetan bakarrik bateatuko dau. "Bateatzaillea" ezarriko dautsoe izena. Bat-batean agertzen da edozein ibai-erizetan, eta, beste bagarik, bere mandatua iragarten dau. Zarrareta egiten dau aren itxura traukillak, basamortuko beroakaz erretako aren azalak, aren soiñeko latzak, aren itzak, Jaungoikoz beteriko aren begirakuneak.

Profeta bat agertu danaren barria bala-bala dago, eta laguntaldea entzutera datorkio. Yon'ek auxe dirautse:

**"Atondu egizue Mesias'en etorrera. Zuzendu zuen bideak. Garbitu zuen pekatuak benetako damuaz eta olan Jaungoikoak oso laster bialduko dautsuen zalbaiziña jadetsi aal izango dozue".**

84. Benetako biurtzearen guraria zabaltzen da Jaungoikoaren eskua apal-apalik billatzen dabenen artean, pekatutik jaso dagian. Beñia Yon'en deitari arpegia emoten dautsoenak be ba-dira, eta onei auxe dirautse:

\* Mandatu: mensaje.

"Ba-dator igurtzitakoa, agindutako erregea, eta bere eskuan aizkorea dakar. Frutua emon ez daigian arbolen zoritxarrai; ebagiak eta sutara jaurtiak izango dira. Laster etorriko da, eta bere eskuan galbaea dakar, bere larraiña garbitzeko eta garia bere garautegian batzeko; baiña lastoa, ezin atzamatu daiteken sutan erreza izango da".

Laguntaldea Yon'egana doa, euren pekatuak autortu eta damutu egiten dira. Gero, bateoa artzen dabe.

**"Auxe izango ete-da Mesias?"**, itauntzen dautsoe guztiak alkarri. Baiña Yon'ek ukatu egiten dau argi ta garbi: berak uraz bateatzen daua; diño, eta Mesias'ek, laster be laster etorriko dan Arek, Espiritu Santuaz.

85. Yon'en bateoa ez da sakramentua, Jesus'en personari ta onen Elizari be ez dau batu-azoten, bizi barria isuririk, Jaunak egindako Bateo-sakramentuak egiten dauenez. Yon'en bateoa damu-ezagarri bat da, eta bateatzen diranak, Mesias'en etorrerarako arimea atonduta biurtzen dira euren etxeetara.

#### Jesus'en Bateoa.

86. Jesus'ek ogetamar urtekoa da gutxi gora-beera, edo ogetamairu urtekoa. Orixe da erriko karguak artzeko legezko adiña. Eldu da Aitak izentaturiko ordua, eta Nazaret itzita, Jesus Jordan ibaira doa. Berak be bateoa artu nai dau. Bere iragartea berbaz baiño len ikasbideaz asi nai dau. Munduaren pekatuk bere gain artu ditu eta damu-bidean sartzen da.

Yon'ek, ostera, ez dau Jesus bateatu nai:

"Neu naz ni zuk bateatu bear nozuna; eta zeu zatoz nigana?"

Jesus'ek pekatuak ixikienik be ez dauko, eta, pekatari ba'litz lez, damu-bateoa eskatzen dautso.

Yon'ek, Jaunari esana egiñik, bateoa emoten dautso. Eta Jesus'egan Yabe'ren Morroia ikusten dau, apalak itxaroten dabena eta Isaias'en liburuan urrengo berbokaz iragarrita dagoana:

"Ona emen nik eusten dautsadan nire Morroia, gogoko yatan nire Aukeratua. **Aren gainean ipiñi dot nire Espiritua (Arnasa);** erriai Legea ekarri dagitsen".

(Is. 42, 1).

"Jese'ren zugatz-ondotik makilla bat sortuko da, eta aren zusterretatik muskil bat erneko da. **Yabe'ren Espiritua geldituko yako gainean;** jakituri ta adimen-espirtua, burubide ta sendotasun-arnasa, Yabe'ren jakintza ta ezaguera-espirtua".

(Is. 11, 1-2).

87. Aldi-une onetan asten da Jesus'en eginkizuna Mesias lez. Oraintxe artzen dau Aitagandik bere eginkizuna asteko agindua; eta orretarako Aitak bere Espirituaz beteten dau. Jesus'en Pentekoste'a da.

**Ebanjelioak** jazopen au onetaraxe dakar:

"Erri guztia bateoa artzen ziarduan artean, Jesus be bateatu eta otoitz egiten jarrita, zerua zabaldu zan, eta gorputz-irudiz, uso-itxuraz, Espiritu Santua jatsi yakon; eta abots au etorri zan zetik:

**"ZEU ZARA NIRE SEME MAITEA; ZEUGAN DOT NIRE ATSEGIÑA"**.

(Lk. 3, 21-22).

88. Aurrerantzean, **Yon'ek Kristo Mesias lez aurkezten dau** bere ikasle batzuen aurrean. Jesus etorten ikustean, Yon Bateatzailleak auxe diño deadarka:

"Orra or Jaungoikoaren Bildotsa, munduaren pekatua kentzen dauana. Nik neuk ez neban ezagutu; baiña, uraz bateatzera bialdu nenduanak, auxe esan eustan: 'Norbaitegan Espiritu (Santua) jatsiten eta aren gainean gelditzen ikusten ba'dozu, axe da Espiritu Santuaz bateatzen dauana'. Eta neuk ikusi dot, eta autortu be bai, orixe dala Jaungoikoaren Semea".

(Yn. 1, 29-35).

89. **Jaungoikoaren Bildotsa** izentatu dau; bururakizun ori, Isaias igarlearen liburuan agertzen da, eta Mesias, Yabe'ren Morroia, Jaungoikoaren menpean jarriko dala diño, iltera daroen bildots otzana lez. Kristo bere Nekaldiko oiñazetara joan zan, ezezkorik emon bagarik, munduaren pekatua kentzeko. Kristo, izan be, Alkartasun Barriko Bildotsa da, geure alde emoten dana.

## Yon Bateatzaillea, sinismenaren alde burrukan diarduen eredu.

90. Bete dau Yon'ek bere eginkizuna: biotzeko damua iragarri Mesias-aldietarako gertu egoteko. Etorri da Mesias, eta Yon'ek, Jaungoikoaren argitasunez, ezagutu egin dau. Orregaitik, orain zabalik izten dautso bidea Mesias Bildotsari eta geu be adoretu egiten gaitu Beroni jarraitzeko: **"Bearrezkoa da Bera aztea —diño—, eta ni txiki egitea"**.

Andik laster, Yon espetxean (kartzelan) sartzen dabe Erodes'en bizikera gaiztoa agirian salatzearren. Gaiñera, Yon'en ekintzak kezka bezalakoa izten ebazan erriko zuzentzaileak.

91. Espetxetik Yon'ek bere ikasletariko batzuk bialdu eutsazan Jesus'i mandatu onezaz: "Zoaze Jesus'en billa eta itandu egiozue bera dan benetan Salbatzailea ala beste beste baten zain egon bear dogun".

Yon'en bialduak gizon apal eta Jainkozale bategaz aurkitzen dira. Beste edozein Lege-irakasle bat lakoa da, Mesias'i ez dagokiozan lagunen artean: Jesus'en inguruan txiroak, geisoak, lauak ziran. Alan be, **Irakasle** aregan biotza ikutzen dautsen zerbaít dago; eta Isaias'en idatz-txatál au datorkie gogora:

"Orduan, itsuen begiak argitu eta gorren belarriak zabaldu egingo dira. Orduan, errenak oreñak\* lez egingo dau salto eta mutuen miiñak pozez beterik abestuko dau. Atsegiñez eta pozez beteko ditu eta tristurak eta negarrak iges egingo dabe".

(Is. 35, 5-10).

Eta arrituta entzuten dabe Jesus'ek diñoana. Gero, Aregana urreteratu ta auxe dirautse: "Irakasle, zeure billa etorri gara Yon'en giltzapetik; gure maisuak mandatu au bialtzen dautsu: **'Esan egiguzu, Jauna: Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?'**".

Jesus'ek dana daki, arein zalantzak eta egon-eziñak, baita Yon Bateatzaillearen larrialdi gogorra be. Eta auxe erantzuten dautse: "Zoaze, eta entzuten eta ikusten dozuezanon barri emon egiozue Yon'i: itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-badiz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak entzun egiten dabe, illak biztu egiten dira; eta zoriontsua, nigan galbiderik artu ez dagianal".

Berba onekaz —profetak aurretiaz iragarritako berbak—, Jesus

\* Orein: clervo.

'ek egiazko Mesias'en ezaugarriak agertzen ditu. Bide batez, orduko judarren Mesias'i buruzko pentzakera okerra aldatu egin bear dabela dirautse.

92. Yon il egiten da geroago Makeronte'ko espetxean. Yon'ek asarre egin dautso Erodes'i, onen anai Filipino'ren emazte dan Erodiasegag bizi dalako. Erodes'en urte-betete egunean, Erodes'en alabeak dantzaldi bat egiten dau, aurreko guztiak irabazten dituala; eta erregeak ba-dirautso: "Eskatu egidazu nai dagizuna, eta emon egingo dautsut". Neskeak, bere amak eraginda, auxe dirautso: **"Emon egidazu emen azpil (bandeja) onetan, Yon Bateatzaillearen burua"**. Eta erregeak, Yon'i begirune andia izanarren, oni espetxean burua mozteko agindu eban. Agindua bete egin dabe eta neskeak Yon'en burua amari emoten dautso azpil baten. Yon'en ikasleak, ori jakinda, gorpua artu ta illobiratu egiten dabe.

93. Jaunaren bidea atontzearren, Yon'ek bere odola isurten dau. Aren adorea biztu egin bear dau guban, gure sinismeneari bear danez jokatu dagigun. Egin dagigun egiaren, zuzentasunaren eta ona danaren alde, ori dala-ta gure buruarentzat ezbeharrik ekarriarren be.

## ITAUNKETA

77. Jaungoikoak, bere Salbaziaño-asmoetan, ze eginkizun izentatzen dautso Yon Bateatzailleari?
78. Zer iragarten dau Yon'ek?
79. Zelakoa da Yon'en bizitza basamortuan?
80. Zer dirautse Jesus'ek judarrai Yon Bateatzailleari buruz?
81. Ze alditan asten dauz Yon'ek bere ekintzak?
82. Nogandik datorkio eginkizuna Yon profetari?
83. Nora joaten da Yon basamortutik? Zer egiten dau Yon'ek Jordan ibai-ondoan?
84. Zer egiten dau laguntaldeak Yon'en iragarteaz?
85. Ipiñi egizuz alkarren ondoan Yon'en bateoa ta kristau-bateoa.
86. Azaldu egizu Jesus'en bateoa.
87. Zelan azaltzen dausku Ebanjelioak Jesus'en bateoa?
88. Zer dirautse Yon'ek laguntaldeak Jesus'i buruz?
89. Nun agertzen da Jesus'i buruzko Yon'en esanaldi au: "Orra or Jaungoikoaren Bildotsa"?
90. Zetara egiten dausku dei Yon Bateatzailleak, bere lekua Jesus'i iztean? Zegaitik itzi dau Yon'ek bere eginkizuna?
91. Nortzuk bialtzen dautsaz Yon'ek Jesus'i espetxetik? Zer jazoten yake Yon'en ikasleak Jesus'egaz aurkitzean?
92. Azaldu egizu Yon'en eriotza.
93. Ze irakatsi atara bear dogu Yon Bateatzaillearen bizitzari buruz?

—Ipiñi alkarren ondoan Israel'ek izan dituan bialduak eta Yon Bateatzaillea.

—Ezarri zure bizikerari esanaldi au: "Ona emen Jaungoikoaren Bildotsa, munduaren pekatua kentzen dauana".

OTOITZ EGIZU: "Lagun egidazu, Jauna, gizonen aurrean neure sinis-  
mena autortzen".



—Irakurri Alkartasun Barri'ko 21, garren zenbakitik 24'garrenera, baita 26, 27 ta 34'garrenak be. Ba-dabe ikustekorik orain ikasi dozun ikaskizunaz?

## Jesus'ek Salbaziño-egintza asten dau

94. Jordan'en bateatua izanda gero, Jesus basamortura baztarten da. An garrantzi andiko erabagi bat artuko dau. Berak, Mesias da-ta, Bera bialdu dauan Aitareen naia bete bear dau, eta, bakartadean, nai au ausnatzen dau. Debruak bakarrik dauko Jesus'i beste bide bat eskintzeko arpegia. Baiña Jaunak jaurti egiten dau bere aldetik.

95. Astiro-astiro, Irakasle biurtzen da, eta Beronegana doaz burubide-eske. Bere erreñurako izateko, sinismenaz eta bateoaz barriro jaiotea bearrezkoa dala diño.

Ikusi dagigun "Jaungoikoaren aintza Jesus'egan", Beronen ikasle zintzo lez jarraitu daiogun. Zuk adiskidetasuna bear dozu, eta, lagun orregan izan ezik, iñogan be ez dozu adiskidetasun ori aurkituko; jarri daikezu Berorregan zure uste osoa.

**Jesus'ek, Mesias'ek, Aitareen naia beteten dau beti.**

96. Israel erria basamortuan izan zan zirikatua, eta jausi egin zan. Jesus be besamortuan izango da zirikatua; baiña Aitareen naia egiten jakingo dau, guretzat eredu izanik.

**Jesus basamortuan dago.** An, berrogei egunez, barau ta otoitz egiten dau. Baiña onetan, debrua datorkio zirikatzer ta Ari dagokion eginkizunetik alde-eragitera: "Pekatuan izan ezik, geure antzera izan zan zirikatua" (Ebertarra, 4, 15).

97. Agirizko bizitza astean, **ze mesiastasun izango ete-da Jesus'ena?** Mesiastasun erraza agertzen yako aurrean, judarrak uste dabenez, aintzaz beteriko erlejiñoa, naigabe ta min bagea.

Baiña Jesus'ek, bere Aitaganako ta geuganako maitasunagaitik, mesiastasun apala, garbia ta mingarria onartzen dau.

Astegiña, aintza ta aginpidea ezetsi ta baztatu egiten dauz, eta jarraibidea erakusten dauku, bere ikasle izatea nai ba'dogu: **irabaz-bidea gurutzaren bidez.**

98. **Jesus'en tentaldiak.** Ondo ulertu bear dogu Jaunaren tentaldien azalpena. Judarrik geientsuenak uste eben mesiastasuna jakiñerazoten dauskuezan irudi batzuk ekarten dauskuz ebanjelariak tentaldi orreitan; baiña Jesus'ek irudiok ezetsi egin bear ditu. Ikasiko ete-dogu Jesus'en ikasleok ikaskizun ori?

Lenengo tentaldia:

Ebanjelioak diñoanez, Jesus **gose da**, eta deabruak auxe agertzen dautso: "Jaungoikoaren Semea ba'zara, esan egizu arriok ogi biurtu daitezala". Baiña Jaunaren erantzuna: "Idatzita dago: **"Gizona ez da ogi utsez bizi**, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño".

Bigarren tentaldia:

Ebanjelioan irakurten dogunez, Jesus eta deabrua **Eliza Nagusiko qaillurrean** aurkitzen dira. Deabruak dirautso: "Jaungoikoaren Semea ba'zara, jaurti egizu zure burua goitik beera, idatzita dago-ta: Zaindu zagieza-la aginduko dautse bere aingeruai, eta euren eskuetan eroango zaitue, zure oiñak arriren baten labanik egin ez dagian". Baiña Jesus'ek: **"Ez dozu zure Jaungoiko Jauna zirikatuko"**.

Irugarren tentaldia:

Deabruak Jaunari **lurreko erreñu** guztiak erakusten dautsaz, eta agintzari au egiten dautso: "Guzti au emongo dautsut, auzpaz gurtzen ba'nozu". Argi ta garbi erantzuten dautso Jesus'ek: **"Alde emendik, Satanasi**, idatzita dago-ta: Zeure Jaungoiko Jauna gurtuko dozu, eta gurtu be Bera bakarrik gurtuko dozu" (Mt. 4, 1-11).

**Jesus'en lenengo ikasleak.**

99. Jesus'ek, bere bizitzaldi barria asi baiño len, bere egin-kizun-gertatzea amaitu dau. Gizonen billa joango da, areik itxaroten daben Salbatzailea, Bera dala agertzeko. Eta Jordan ibaira doa

**bere burua jakiñerazoteko.** Mesias Salbatzailea laster agertuko dala entzun dautsoe an askok Yon Bateatzailleari.

Lurra gertu dago. Antxe artu daikee ondoen. Astiro-astiro, bada irabazten laguntaldearen gogoia. Jesukristo'k, bakez eta sendotasunez, ezin-egona ereiten dau biotzetan. Aren nortasunak batzuk erakarri egiten ditu, eta, jarraitu nai dautsenai, biotzeko adorea ta kemenak eskatzen dautse. Baiña guztiak ez dabe ori egiteko indarrak. Ikusi dagigun zelan jarraitzen dautsoen lenengoak Jaunari.

100. Yon'ek, ikasle bigaz egoala, Jesus'i begira-begira jarri-rik —andixek yolan-eta—, ba-diño: **"Orra or Jaungoikoaren Bildotsa"**. Eta ikasle biak, ori entzunda, Jesus'i jarraitu eutsoen. Jesus'ek atzerant egiten dau; eta, jarraitu egiten dautsoela ikustean, **"Zer nai dozue?"**, itauntzen dautse. **"Irakasle, nun bizi zara?"**, erantzuten dautsoe areik. Eta Jesus'ek: **"Etorri zaiteze ta ikusiko dozue"**. Bietariko bat **Yon** da, eta bestea, **Ander**.

Gero, Ander'ek **Simon** bere anaia aurkitu ta ba-dirautso: "Mesias aurkitu dogu". Eta Jesus'egana eroaten dau. Jesus'ek, ari begira-begira jarri-rik, auxe dirautso: "Simon zara zu, Yon'en semea; Kepa izango da zure izena —edo bardin dana, "Arria".

Biaramonean, Jesus'ek **Felipe** aurkitu ta ba-dirautso: "Jarraitu egidazu". Felipe'k **Natanael**'i emoten dautso barria: "Moises'ek Legean idatzi ebana, baita profetak be, axe bera aurkitu dogu: Jesus, Jose'ren semea, Nazaret'ekoa". Baiña Natanael'ek auxe erantzuten dau: "Nazaret'etik ezer onik urten daiteke, gero?". "Etorri ta ikusiko dozu", dirautso Felipe'k. Eta Natanael'ek jarraitu egiten dautso Jesus'i.

Jesus'ek ez ditu aukeratzen gizon argitsuak, jakintsuak, aberatsak.

Elizea ez da jakiturian eta giza-indarrean oiñarritzen, Jaungoikoaren jakiturian eta Indarrean baiño.

Lenengo aukeratu oneik ez dira beti Jesus'egaz bizi. Noizean bein ikusten dira alkar, eta adiskidetasunean sendotu egiten dira. Egunean-egunean Jaunak beraganatuago egiten ditu; agiriz, Jesus eurak lako gizona da, bai, baiña eurak ulertzen ez daben oi-bagako zerbaít dauko.

Astiro-astiro Jesus'en adiskide egiten dira. Orregaitik, Jesus'egaz eta onen amagaz eztegu batera doaz. Antxe egiten dau Jesus'ek bere lenengo miraria, eta arrezkero beste asko egingo ditu, bere buruaren **Biztuera** egiteraño.

### Jesus'ek bere nortasuna agertzen dautse ikasleai.

101. Jesus, bere ama ta ikasleakaz Kana'ra joan da, Galilealderdiko errira. **Eztegu baterako deia artu dabe.** Bazkaria amaitu baiño len ardaok uts egin dauala-ta, Maria'k ori ikusi ta Jesus'i ba-dirautso: "Ez dauke ardaorik". "Ez da oraindiño nire ordua eldu", erantzuten dautso Jesus'ek. Baiña **Maria'k** mai-morroia ai auxe dirautse: "Egizue Berak esan dagitzuena".

Ba-egozan an sei ontzi andi, eta urez beteteko eta mai-zaiñari eroateko agintzen dautse Jesus'ek. Mai-zaiñak ardao biurtu zan ura artu ebanean, ez ekian nongoa zan-eta, arrituta gelditu zala dirautso senargiari: oi ez zanez, ardaorik onena bazkari-azke-neraiño itzi ebalá-ta.

Mirari onetako ardaok Mesias-aldirako agindutako onespenak (bedeinkapenak) ekarten dauskuez gogora. Ardaoa, Alkartasun Zaarrean, bedeinkapenen irudi da.

102. Lenengo mirari onen bidez, ikasleak Yon Bateatzaillearen autorraz euken sinismena Jesus'ek **sendotu egiten dau.**

Aurrerantzean, ikasleak argiago ikusten dabe, sakonago ezagutzen dabe Jesus. Jesus'ek iñok ezin daikena egin dau, Jaungoikoa aregaz egon ezik beintzat. Onetaraxe dirausku Ebanjelioak:

"Eta Jesus'ek bere aintza agertu eban, eta Beragan sinistueben bere ikasleak".

### Jesus, Aitareen aintza zaintzen.

103. Kana'ko eztegu-ondoren, Jesus Kafarnaun'era doa bere ama ta ikasleakaz. Geroago, uri au Jesus'en eginkizunetarako erdi-tokia izango da. Ementxe gelditzen da egun batzuetan. Laster, judarrakaz eztabaida bat izango dau, eta judar batzuk arerio izango yakoz. Bizitza agirizko lenengo urte onetan, Jesus'ek Pazko-jaietara Jerusalem'era igo nai dau. Ba-daki Berak Ajeo igarleak esan eban au: "Azken-etxe onetako aintza lenengo etrekoa baiño aundiagoa izango da, eta toki onetan emongo dot nik bakea, diño Jaungoiko Jaunak".

Jesus, Aitareen Eliza Nagusian dago. Merkatu-etxe eginda dago, lapur-zulo eginda.

Eta lokarriaz zardai bat egiñik, Eliza Nagusitik kanpora jaurtiten ditu, ardi ta idiakaz batera; diru-aldatzailleen txanponak lurrean zear isuri ta maiak itzuli egiten ditu; eta, usok saltzen ziar-

duenai, auxe dirautse: "Kendu au emendik, eta ez egin nira Aitareen Etxea merkatu-etxe".

Jesus'ek erlejiño garbia, benetakoa nai dau. Bere bizitza guztia igaroko dau ori lortzen, buruko min andiak izango dauzanarren, eriotzaragiño izan bere. Auxe berau iragarten dautse oraintxe, bere gorputzaren Elizatzaz berba egiñik:

**"Ondatu egizue Eliza Nagusi au, eta iru egunean jasoko dot".**

Jesus'ek bildur bagarik egiaren alde egiten dauala ikusten dabe.

Jauna Jerusalem'en gelditzen da egun batzuetan, arria jaurti ta gordeten diranetarikoa ez da-ta. Bera egia da, eta egi ori zabaldu egin bear dau, gizonai agertu. Eta Jesus'en mirariak ikusirik, askok Aregan jarten dabe sinismena.

### Jesus'enak izateko, Jaungoikoaren gizon izan bear dogu.

104. Jesus Jerusalem'en egon zanean, Nikodemo izeneko bat, pariseua, Batzar Nagusikoa, Jesus begi onez ikusten dauana, Beronegana urreratzen da gabez.

**Nikodemo** ez da Eliza Nagusiko merkataria; erlejiñoa zaintzen arduratsua da, baita erlejiño-arauak beteten be; baiña, bera ona dala esan dagien, bere buruaren ardura larregi dau.

Orrexegaitik dirautso Jesus'ek **barrero jaio bear dauala, biurtu egin bear dauala;** Jaungoikoari begira egin egitekoak, eta ez gizonai begira; **Jaungoikoaren egintza egin, eta ez berea.**

105. Jaunak Nikodemo'ri eskatzen dautsana eskatzen dausku geuri be: **zintzoak** izan gaitzala gure bateoko agintzariak beteten. Bateoaren bidez jaio gara barrero Jaungoikoarentzat, Satanás'en menpetik askaturik. Jaungoikoaren gizon izaten jarraitu bear dogu, gure egikerak eten bagarik aztertuaz eta gure uts-egiteak parkatu dagizala biotzez eskaturik, bateoan artutako kristau-erabagiak egiteko gertu gagozala. Olantxe izango gara Jesus'en ikasle eta **Jaungoikoaren gizon.**

### ITAUNKETA

94. Zegaitik baztartzan da Jesus basamortura?
95. Nok eskintzen dautsu uste osozko adiskidetasuna?
96. Zer jasoten yako Jesus'i basamortuan?



97. Zer irakasten dausku Jaunak deabruari gogor egitean?
98. Azaldu egizuz Jesus'en tentaldiak.
99. Nora doa Jesus basamortutik? Zelan agertzen dau Jesus'ek bere burua Jordan ibai-ondoan?
100. Azaldu egizu zelan jarraitu oitsoen Jesus'i lenengo ikasleak.
101. Zelan agertzen dau Jesus'ek bere burua Kana'ko ezteguan?
102. Zetarako balio izan dautse Jaunaren ikasleai Kana'ko mirariak?
103. Azaldu egizu Jesus'ek, Mesias lez, Eliza Nagusian egin ebana, merkatariak andik jaurtirik.
104. Azaldu egizu Nikodemo'k Jesus'egaz izan eban ikustaldia.
105. Zer eskatzen dausku Jesus'ek bateatuoi?

#### EGITEKOAK


—Idatzi egizu kristau zareanez zeure eritziz bete bear dozun egitaraua.

—Billatu Ebanjelioan, erantzunik aurkitzen ez dauan deiren bat.

—Jesus'ek egin ebazan mirari batzuen zerrenda bat egin:

1. Jesus'en mirariak bizitza bagako gauzai buruz.
2. Jesus'en mirariak geisoai ta eriotzari buruz.
3. Jesus'en mirariak deabruai buruz.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, sinisten dot Zu Mesias, Jaungoiko biziaren Semea zarana".



#### b) SALBAZIÑOIA IRAGARTEN: JESUS'EN EGINKIZUNA GALILEA'N

##### SARRERA

106. Jaunaren agirizko bizitzako lenengo illak ariñegi igarero dira. Ille orreitan, Jesus'ek bere burua erakutsi eta adiskide batzuk irabaztea lortu dau.

Baiña auzi batzuk sortzen dira. Judea'n eta batez be Jerusalem'en eta emengo inguruetan, pariseuen pentzakerak, itxaroten dan Jaungoikoaren Erreiñuaren aurka dago. Ori argiago ikusten da Yon Bateatzaileen espetxeratzeaz. Orregaitik, Jesus'ek Galilea'ra alde egitea erabagiten dau. Ez dau bildurragaitik alde egiten, laguntaldeak nasai-nasai entzun dagion baiño, erria pariseuen bildur da-ta.

107. Galilea'ra eldurik, Jesus Kafarnaun'en gelditzen da; uri au izango da Jaunaren ekintzen erdi-tokia. Eta Jesus'ek erriari auxe dirautso: "Jaungoikoaren erreinua urr dago: biurtu zaiteze ta sinistu egizue Ebanjelioa".

Jaungoikoaren Erreiñuak, Zeruetako Erreiñuak, gizonai buruz Jaungoikoak dauan Salbaziño-asmoa adierazoten dau.

Jaungoikoak, negurri bagarik zoriontsua danak, izaki batzuk egin eta arei bere zoriona emon nai izan eban. Olan, Gizona egin eta maitasun-alkarrizketa bat sortzen dau beronegaz. Baiña alkarrizketa au pekatuaz ebagita gelditzen da. Jaungoikoak, osterak, edozein une egokiren billa jarraitzen dau alkarrizketa ori barrero asteko, gizonak galdu dauan adiskidetasuna barrero gizonari emoteko.

Alkarrizketa ori barritzea, adiskidetasun ori barrero artzea, Salbaziño-egintza da: Jaungoikoaren Erreiñua, Zeruetako Erreiñua, Jaungoikoaren Asmoa. Edo-ta bardin dana, Jaungoikoaren Misterioa, Kristo'ren Misterioa, Elizaren Misterioa. Guztia, asierarik, "beste inogan salbaziñorik ez dagoan" Kristo'gan erdiratuta.

Salbaziño-istoria au da Jesus'ek Galilea'ko bere eginkizunecan agertzen dauskuna. Laguntaldeari emondako aldia da; era aldi orrek urtebete-edo irauten dau.

Bitartean, astiro-astiro, kon-

trakoak be jaqiten dira: "Jaungoikoaren Erreiñuak erasoak ditu". Eta laquntaleagandik ezer onik atarako ez dauala ikusirik, au alde batera itzi eta bere geroko Elizaren eraqilleak izango diranai irakatsia emoten asten da ia oso-osorik.

108. Ikusi egizu Jesus'en Misterioa beronen iragartearen eta mirarien bitartez; ikusi egizu sakon-sakonetik Jaungoikoaren Erreiñuko Misterioa; Jaunagan dozun sinismenagaitik, zeu be Erreiñu orretako laqunkide zara. Erreiñu orren barruan eginkizun bat dozu: munduaren argi eta lurraren gatz izatea.

Alkartasun Zaarrean, Jaungoikoaren Legeari "mundua-

ren argi" eritxoen, gizonai Jaungoikoaganako bidean argi egiten eutselako. Kristo'k diñoamez, kristauok "munduaren argi" gara.

"Lurraren gatz" be ba-eritxoen, gizonak gatzetik gorde-ten ebazalako, bizitzak bizi izatea balio egiala egiñik. Gatzak janaria iraunerazo eta atsegin-garri egiten dau.

Baiña orain, Jesus'ek diñoanez, Legea izan bagarik, kristauok gara lurraren gatz garenok.

Ikusten dozunez, gai asko eskiñilko dautsuguz, astiro ausnartu dagizuzan. Lan egizu, batez be Jaungoikoaren Erreiñurako dozun deiak zer esan gura dauan jakiteko.

#### ITAUNKETA

106. Zegaitik egiten dau alde Jesus'ek Judea'tik Galilea'ra?
107. Zer adierazoten dau Jaungoikoaren Erreiñuak?
108. Ze eginkizun dozu zuk Jaungoikoaren Erreiñuan?



#### 7'GARREN IKASKIZUNA

## Jesus'ek Salbaziño-Mandatu bat iragarten dau

109. Maite izan! Ona emen Jesus'en Mandatua, Moises baiño gorago dagoan legegille barriaren Legea.

"Maite ez dauana eriotzan dago" (Yn. 1.<sup>a</sup>, 3, 14).

Zabaldu zure biotza kristau-mandatu andi onetara.

#### Jesus Galilea'rantz doa.

110. Yon Bateatzailleak baiño Jesus'ek ikasle geiago eta bateatu be geiago egiten dauzala entzun dabe pariseuak. Jesus'ek ori jakitean, Judea itzi eta, Samaria'n zear, Galilea'ra doa.

111. **Sikar** urira eltzean, egarri da eta Jokob'ek euki eban patinera urreratzen da.

"**Ura emon egidazu**", dirautso ura ataratera datorren emakume bati.

Arek, zerbait ikaratuta, auxe erantzuten dautso: "Zelan zuk, judarra izanik, eskatzen daustazu edatekorik niri, samaritar nazan oni?"

Eta Jauna aregaz alkarrizketan asten da; samaritarrak be itxaroten daben Mesias dala agertzen dautso:

"Ba-dakit Kristo deritxon Mesias etorteko dana", diño emakumeak.

"**Neu naz** —dirautso Jesus'ek—, **zugaz berbetan diardudan au**".

Emakumeak, arrituta, guztiai azaltzen dautse jazo dana; orduan, samaritarrak egun bian eurakaz geratu zeitela eskatzen dautsoe Jesus'i, eta Aren irakatsiak gogo andiz entzuten dabez.

Eguzki-sortzalde a guztiz egarritsua da; ura esatea bizia esatea da. Jesus, Mesias, **Samaritar** emakumeagaz dauan alkarrizketan, betiko bizitza dauan ur-emoille lez agertzen yaku, eta Aita espirituz eta egiaz gurtzeko eskatzen dausku.

### Jesus Kafarnaun'en gelditzen da

112. Galilea'ra eldurik, Jesus'ek Kafarnaun aukeratzen dau bere eginkizunen erdi-tokizat. Kafarnaun Tiberiades itxas-ondoan dago. Uri au bide-toki garrantzitsua da.

"Argi bat igoten da illunetan eta eriotz-gerizpetan dagozanei argi egiteko".

Zapatu oro, Jesus sinagogara doa, eta aginpidedunak lez egiten dau berba. Bere berbak idazlarienak baiño indar geiago dabela emoten dabe antza, eta bere izen ona inguru guztian zabal-tzen da.

Len, Yon Bateatzaillea: espetxean dagoalako, isildu egin da. Orain, barriz, profeta barri onek, Yon'ek lez diño:

"Biurtu zaiteze, Jaungoikoaren Erreñua urr dago-ta".

### Amabi aukeratzen ditu.

113. Egun areitan, Jesus mendira igoten da, otoitz egitera, eta gau osoa otoitz egiten igaroten dau. Eguna argitzean, bere ikasleai egiten dautse dei, **Berak nai ebazanai**, eta areitariko amabi aukeratzen ditu, eta izena "Apostolu" emoten dautse; Beragaz egoteko eta Barri Ona iragarteko aukeratzen ditu, deabruak jaurtiteko ta geisoak osatzeko eskubideaz.

Amabien izenak onexeik dira: **Simon**, oni izena Pedro be ezarri eutsan, eta **Ander**, Pedro'ren anaia; **Santiago** ta **Yon, Felipe** ta **Bartolome**, **Mateo** ta **Tomas**, **Santiago**, Alfeo'rena, eta **Simon**, Santiago'ren **Judas** eta **Judas** Iskariote, Jesus saldu ebana.

Euretariko bat bera be ez da jakitun, ez altsu. Guztiok izango dira Jesus'en adiskide biotzekoak.

### Mendiko Itzaldia.

114. Agirizko bizitza guztian, Jaunak **Barri Ona** agertzen dautse gizonai: bere **Ebanjelioa**.

Mendiko Itzaldia irakatsi guztien laburpena da.

San Mateo ta San Lukas ebanjelariak, batez be lenengoak, Jesus'ek mendi bateko Itzaldian Jaunak esan ebanaren ondoren, Ebanjelioko irakatsi nagusien laburpen bat agertzen dauskue.

115. Galilea'ko mendi baten, Jesus'ek aldi ta erri guztietako gizonai egingo dautse berba.

Ez dakigu ziur Itzaldia egin eban tokia. Antxiñako tradiziñu batek, Kafarnaun'dik iru kilometrora, 150 metro itxasoz gora dagoan menditxo baten jarten dau, Tiberiades izeneko itxas-ondoan.

**Entzun Jaunak diñoana.** Artu egizu Aren barri ona. Aren Maitasun-Legea. Zuzendu egizu Lege oneaz zure bizitza osoa, beti Jaungoiko biziaren aurrean egon zaitezana.

116. Mendiko Itzaldia zati bitan banandu daiteke. Lenengoan, Jesus'ek dakarren Mesias-Erreñua nortzuentzat izango dan esaten yaku. Bigarrenean, Erreñu onen lagunkideak zuzenduko dituan Legea erabagiten da; Lege orrek, aal daikegun urrunen joateko eta gure burua Jaungoikoaren egintzarako emoteko egiten dausku bultzatza.

### Nortzuentzat da Jesus'ek egindako Mesias-Erreñua?

117. Bizitza onetako beartsuentzat: txiroentzat, apalentzat, aurrean erabilliak diranentzat. Olanxe diñoer Zoriontasunak:

- Zoriontsuak gogozko **txiroak**, zeruetako Erreñua eurena da-ta.
- Zoriontsuak **otzanak**, lurraren jabe egingo dira-ta.
- Zoriontsuak **negar egiten dabenak**, poztuak izango dira-ta.
- Zoriontsuak zuzentasunaren **gose-egarri** diranack, asetuak izango dira-ta.
- Zoriontsuak **errukiorrak**, errukia jadetsiko dabe-ta.
- Zoriontsuak **biotz-garbiak**, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta.
- Zoriontsuak **bake-zaleak**, izena Jaungoiko-seme emongo yake-ta.
- Zoriontsuak zuzentasunagaitik **aurrean erabilliak**, zeruetako Erreñua eurena da-ta.

Laguntaldeak Jesus'i gaiok esaten entzutean, Mesias Bera dala uste dabe, profetak iragarritako Mesias'en gogokoak txiroak eta apalak izango ziran-eta.

118. **Aberats gaiztoaren** eta **Lazaro eskekoaren** ipuiñaz argituko dauskuz Jesus'ek Zoriontasunen frutuak:

Gizon aberats bat apain-apain jazten da eta egun oro janaldi eder bat egiten dau: **bere biotza** aukerako bizitzari lotuta dauko.

Aberatsa orrela bizi dan artean, beste gizon batek, Lazaro'k,

limosnea eskatzen dau aberatsaren ate-ondoan; zauriz josita dago; txakurrak be etorri ta zauriak miatzkatzen dautsoez; gosez dago; aberatsaren maitik jausten zanaz bete nai dau...

Il da eskekoa, baita aberatsa be. Eriotzaz amaitzen dira bizitza biak lur onetan.

Eskekoa Abraham'en altzora daroe, zintzoen tokira.

Amaitu yako aberatsari bere zoriona. Inpernura doa. Oñazetan egoala, aberatsak begiak jaso ta Abraham eta Lazaro ikusten ditu; eta deadarka ba-diño:

"Aita Abraham, erruki zakidazl, eta bialdu egizu Lazaro, bere atzamar-ertza uretan busti ta nire miñña oztu dagian, sugar onetan oñazetan nago-ta".

Abraham'ek auxe erantzuten dautso:

**"Seme, gogoratu egizu zure bizitzan ondasunak artu zenduzala, eta Lazaro'k atsekabeak. Orain, ba, au pozik dago, eta zu oñazetan".**

Gero, aberatsak bere bost anaiakana Lazaro bialdu dagiala eskatzen dautso Abraham'i, bera lez galdu ez daitezana.

Baiña, ez galtzeko naikoa irakaspen dabela erantzuten dautso Abraham'ek.

Aberatsak barriro be ekin: ildakoren bat joaten ba'yake, garbatuko dirala. Baiña Abraham'ek: "Moises'i ta profetai jaramonik egiten ez ba'dautse, ildakoren bat biztuarren be ez dabe sinistuko".

Eta olantxe amaitzen da betiko, zoritzarreko aren eta Abraham'en arteko alkarriketa. Ausnartu zure blotzean.

**Zein da indarririk geien daukan Legea Jesus'en Erreñuko lagunkideentzat?**

119. **Maitasun-legea.**

—Jaungoikoagazko maitasuna.

—Gizonakazko maitasuna.

120. Jaungoikoagazko maitasuna.

Jesus'ek, bere Aita dan Jaungoikoari buruz berba egitean, egia asko agertzen eta argitzen dauskuz; egiok iñoiz be ezin izango genduzan susmatu, eta askozaz gutxiago sinistu. Gizonak ez

eben iñoiz be arpegirik izango Jaungoikoari "Gure Aita" esateko.

Jaungoikoari bildur izateko irakatsi bearrean, gure Aita dan Jaungoikoaganako maitasuna ta uste ona irakasten dausku.

Jaungoikoaren eta gizonaren arteko artu-emonak ez dira auzi-ebazleak errudunagaz izaten dituan lakoak, aitek bere semeagaz dituan lakoak baiño. Maitasunezko artu-emonak dira.

—Orregaitik, Jaungoikoak berak egiten dausku dei **Beragana sinismenez joateko:**

"Eskatu egizue, eta emon egingo yatzue; ibilli billa, eta aurkitu egingo dozue; atea jo, eta zabaldu egingo yatzue. Zuek, gaiztoak izanik, zuen semeai gauza onak emoten ba-dakizuen ezkeru, zenbat geiago ez ete-dautsez zeruetan dagoan zuen Aitak, eskatzen dautsoezanai gauza onak emongo?".

—Eta **onetaraxe** egin daiogula berba dirausku:

"Gure Aita, zeruetan zarana: santu izan bedi zure Izena, etor bedi zure Erreñua, egin bedi zure naia, zeruan bezela lurrean bere. Emoiguzu gaur egun onetako ogia; parkatu gure zorrak, geuk bere gure zordunai parkatzen dautsegun ezkeru; eta ez gu tentaldira eroan, baiña atara gagizuz gatzetik".

—Eta bere **Ardurapean bizi gaitzezala** eskatzen dausku:

"Orra, zelaietako liriok: begira zelan azten diran; ez dabe lanik egiten, ezta goruetan be; alan be, ba-dirausuet: Salomon bera be, bere aunditasunik ospetsueanean be, ez zan orreitariko bat lez jantzi.

Beraz, gaur zelaietan bizi ta biar labara jaurtiten dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten ba'dau, ez ete-dau askozaz geiago egingo zuekaitik, siniste otzeko gizonokaitik?

Zeruko zuen Aitak, barriz, ba-daki guzti orrein bearrean zagozema. Billatu egizue lenengo Jaungoikoaren Erreñua ta Aren zuzentasuna, eta gauza guztiok gaitzezka emongo yatzuez".

Jaungoikoagazko gure artu-emonak, etzeko maitasunean semeak euren gurasoakaz dabezan lakoak izan daitezala gura dau

Jesus'ek; joan gaitezala Beragana semea beronen aitagana joaten dan uste ta maitasun berberaz; maite dagigula Bera, ez gero morroiak ugazaba lez, semeak aita maite dauanez baiño. Olantxe da Jaungoikoa.

121. **Gizonakazko maitasuna.** Jaunak gizonai beste egia bari bat irakasten dautse, oso garrantzi andikoa: gure Aita Jaungoikoaganako maitasunaren antzekoa: lagun-urkoaganako maitasuna.

Lagun-urkoaganako maitasuna, anai-maitasuna, **Jesus'en irakatsi nagusia** da, izan be.

Beti izan da maitasuna gurasoen eta semeen artean, anaien artean eta adiskideen artean; baiña Jaunak ori biño geiago eskatzen dausku: **guztiakanako maitasuna, baita arerioakanako maitasuna be.**

"Nik, barriz, auxe dirautsuet: maite egizuez zuen arerioak; on egiezue gorroto dautsuenai, eta egizue otoitz aurrean zarabillezen alde eta guzur baltza ezarten dautsuen alde: bere eguzkia zintzo eta gaiztoen gainera atarazoten eta bere euria zintzo eta gaiztoen gainera egiñarazoten dauan zuen Aitaren seme izan zaitez. Izan be, maite zaituenak maite ba'dozuez soilik, ze alde dozue jentillakandik?"

122. Irakatsi andi au beste ikasbide bat azkarazoten dausku Jesus berak:

Bein, Lege-irakasle batek itaun au egiten dautso: "Irakasle, zer egin bear dot betiko bizitzaren jabe izateko?"

Baiña, erantzuna arek berak emon dagiala eskatzen dautso Jesus'ek: "Zer dago Legean idatzita?"

Lege-irakasleak Deuteronomio'ko ta Lebitarren liburukoa aitutzen dau:

"Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, zure indar guztiaz eta zure adimen guztiaz maitatuko dozu; eta zure lagun-urkoa zeure burua lez".

"Ederto erantzun dozu —esan eutsan Jesus'ek—. **Orixegizuz, eta bizi izango zara**".

Lege-irakasleak barrero be, "Eta nor da nire lagun-urkoa?", itauntzen dautso.

Gai ori zala-ta, Lege-irakasleak eztabaidetan zarduen alka-

rren artean. Euren erritarrak soilik? Israel'en bizi diran arrotzak be bai? Gizon guztiak?

Eta Jesus'ek **Samaritar Onaren** ipuiñaz erantzuten dautso:

Gizon bat Jerusalem'dik Jeriko'ra jatsiten da. Bidean doala, lapur batzuek urten, arek erorian guztia kendu ari eta erdi-illik izten dabe bidean.

Gerotxoago, toki aretatik abade bat dator; ikusten dau bidean dagoan gizona, baiña, jaramonik egin bagarik, aurrera jotzen du.

Orixegizuz berori egiten dau lebitar batek be (lebitarrak, Eliza Nagusiko elizkizunen ardura ebena ziran); gizona ikusten dau, baiña aurrera jotzen dau.

Orrean bion aldean, emen daukagu orain samaritar bat: **arrotza, kanpotarra:** aren ondora eltzen da, eta, gizona ikustean, errukitu egiten da; urreratzen da geiago zer daukan ikusteko, eta aal dauan guztia egiten dau aren alde: orioa ta ardura isurten dau zaurietara eta lotu egiten dautsaz, bere asto-gaiñean ipiñi eta ostatura daroa. Emen obeto osatzen dau, eta biaramonean, ostalariari denario-diru bi emon eta auxe dirautso:

"Zaindu egizuz gizon au; eta gastu geiago egiten ba'dozu, ona biurtu naitenean ordainduko dautsut".

Eta Jesus'ek itaun au egiten dautso: "Irurotarik nor uste dozu lapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urkoa izan zala?"

"Erruki izan yakona", erantzuten dautso lege-irakasleak.

"Zoaz eta egizuz zeuk be bardin", dirautso Jesus'ek.

"Zoaz eta egizuz zeuk be bardin", dirausku gaur geuri be.

123. Lagun-urkoagazko maitasuna, egiñen bidez beteta, Jaungoikoagazko gure maitasunaren erantzuna izan daitela nai izan dau Jaunak; geiago be bai: **Jaungoikoagazko maitasuna lagun-urkoagazko maitasunaz** negurtzen dala esan dau:

"Zure oparia eskintzean, zure anaiak zure aurka zerbait ba-daukala gogoratzen ba'dozu, itzi egizuz zure oparia eta zoaz lenengo zure anaiagaz adiskidetzera; gero, barrero etorri ta eskiñiko dozu zure oparia".

124. **Eta azkenez, Jesus'en agerpen andia:**

Aerioakanako maitasuna eta lagun-urkoa geure burua lez maite izatea baiño geiago eskatzen dausku oraindiño Jesus'ek. Auxe nai izan dau Jesus'ek eta auxe da Jaungoikoaren beraren

naia: lagun-urkoari egin dagoiogun edozer, ona naiz txarra izan, Jaungoikoari berari egiten dautsagula. Gizon bakotxagan Jaungoikoa dago, eta, beraz, **lagun-urkoari egiten dautsagun ori, Jaungoikoagaz egiten diardugula.**

Orregaitik, Jaunak azken-azkian auxe esango dausku:

"Gose izan nintzan, eta jaten emon zeusten; ega-  
rri izan nintzan, eta edaten emon zeusten; arrotz nin-  
tzan, eta etxean artu nenduzuen; billoizik nengoan, eta  
jantzi egin nenduzuen; geisorik, eta ikustaldia egin zeus-  
ten... zuen analetariko bati egin zeutsen edozer, neuri  
egin zeusten-eta".

### Jesus'en Erreñuak alegiña eskatzen dau.

125. Mendiko Itzaldia amaitu baiño len, Jesus'ek azken-ar-  
gibide bat emoten dau, lurrean bere ikasle izan nai dagianaren  
edonorentzat. Ez dau iñori iruzur\* egiterik nai, ezta iñok bere bu-  
ruari iruzur egiterik be, Berak erakusten dauan bidea erraza ta  
samurra dala uste izanaz. Ez dau nai iñor azken-orduan etsipendu-  
ta\* gelditzerik, kristau-bizitzan eragozpenak aurkitzean.

Kristau edo Kristo'ren ikasle izatea, aintzazko mailla bat edo  
agiri bat baiño geiago da. Kristau izatea, edozetan eta bizi guz-  
titan Kristo'ren antzekoa izaten alegiñak egitea da. Eta ori ez da  
erraza. Kristo'k berak diño:

"**Sartu zaitezte ate estutik;** salbaziño-bidea latza ta  
gatxa da; munduaren bidea, barriz, zabala ta samurra  
da, eta asko dira bide orri jarraitzen dutsoenak".

Kristaua beti zoli ta iratzarrik egon bear dau bere bizitzan,  
ardurabagatu bagarik. Orixe da Jaunaren oarra bere ikasleentzat  
eta guztiontzat:

"**Iratzarrik** egon eta otoitz egin, tentaldian jausi  
ez zaitezten".

"Iratzarrik egon, ez dakizue Jauna ze ordutan  
etorriko yatzuen-eta".

"Zoriontsua, ugazabak, etortean, eginbearra zintzo  
beteten aurkitu dagian ikasleal".

\* Iruzur egin: engañar. — \* Etsipendu: desilusionar-se.

### ITAUNKETA

109. Zein da Jesus'en Lege aundia?
110. Zein lurraldera doa Jauna, Judea iztean?
111. Azaldu egizu Jesus'ek Samaritar emakumeagaz izan eban alkarrizketa.
112. Zegaitik aukeraten dau Jesus'ek Kafarnaun uria bertan egoteko? Nora doa Jesus zapatuetan? Zer irakasten dautso Jesus'ek laguntaldeari?
113. Azaldu egizu Aportoluak aukeratzea.
114. Zer da Mendiko Itzaldia?
115. Zein da, urrean, Jaunak Maitasun-Legea iragarri eban tokia?
116. Zenbat zatitan bananduko dogu Mendiko Itzaldia?
117. Nortzuentzat da Jesus'ek egindako Erreñua?
118. Esan egizu aberats gaiztoaren eta Lazaro eskekoaren ipuiña.
119. Zein da indarrik geien daukan Legea Jesus'en Erreñuko lagunkideentzat?
120. Zelan izan bear dabe, Ebanjelioak diñoanez, Jaungoikoagazko gizonaren artu-emonak? Zetarako egiten dausku dei Jaungoikok? Zelan egin bear dautsagu berba? Nogan jarri bear dogu gure ustea?
121. Zein da lagun-urkoagazko Jesus'en Legea?
122. Azaldu egizu Samaritar Onaren ipuiña. Zer irakasten dausku ipuin onek?
123. Zelan negurtzen da Jaungoikoagazko maitasuna?
124. Zer agertzen dausku, azkenez, Jesus'ek gure arerioai buruz?
125. Zer eskatzen dautse Jaungoikoaren Erreñuak bere lagunkideai?


### EGITEKOAK

—Jesus'ek Samaritar emakumea-  
gaz izan eban alkarrizketa au-  
rrean izanik, egizu margozki  
bat, esaerak azaldurik.

—Azaldu egizu urrengo au: "Gu-  
re Aita" otoitza Ebanjelioaren  
laburpen bat da".

—Egizu idatz-lan bat, Mateo'ren  
25, 31-46'garren ataltxoan bi-  
dez urrengo au egiztaturik:  
"Besteen serbitzari izanaz, Jaun-  
goikoa maite dogu ta kristauak  
gara".

OTOITZ EGIZU: Esan egizu biotz-biotzez "Gure Aita".





## 8'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus'ek bere Salbañiño-Mandatua mirariakaz sendotzen dau

126. Jauna bere irakatsietan agertzen da, baita bere mirarietan be.

Jesus'en mirariak bere Jaungoikozko eginkizuna sendotzen dabe: Bera da gatzaren sakon-sakonetik osatzen gaituan Aitaren bialdua: pekatutik osatzen gaituana. Eta Jaungoikoaren poza ekar-ten dausku.

127. Ebanjelariak, Jaunak egindako 35 mirari azaltzen dauskuez:

—Batzuk, **izadiko bizi-bagakoai** buruz; esate baterako, ura ardao biurtu, itxasoko ekatxa baretu, ogi ta arrain batzuk ugaritu.

—Beste batzuk, **geisoi** ta **eriotzari** buruz. Jesus'ek geiso asko osatu eta ildakoak biztu egin ebazan.

—Beste batzuk, **deabruai** buruz, deabrudunakandik jaurtirik.

Mirari guzti oneik Kristo'ren mirari andia iragarten dabe. Bere buruaren Biztuera.

Ikusi egizu Jesus'en mirarietan gure zoritxarraren alde Jaunak agertzen dauan anditasuna. Ori dala-ta, mirari batzuk azaltzen dautsuguz; enparauck Ebanjelioetan irakurri daikezuz.

#### Jesus'ek osatu egin nai gaitu.

128. Legenardun bat, Jesus'en aurrean auzpazturik, auxe eskatzen dautso: "**Jauna, nai ba'dozu, osatu naikezu**".

Jesus, legenardunari begira-begira gelditzen yako. **Erruki da.** Eta ba-diño: "**Nai dot; garbi gelditu zaitez**".

Eta bat-batean, Jesus'en aginduaz, legenarrak alde egiten dau geisoagandik eta au **garbi gelditzen da.** Nok osatu dauan

iñori be ez esateko agintzen dautso Jesus'ek, eta abadeagana aurkeztu daitela eta eron dagiala Moises'ek olakoetarako agintutako oparia.

Beste baten, Jaunak amar legenardun osatu ebazan, eta, eskerrak emoten, amarretarik bat bakarrik —eta samaritarra bera— biurtu yakolako, mindu egin zan.

### Jesus'ek bere Itzaz osatzen gaitu.

#### 129. Euntariaren\* morroia:

Jauna Kafarnaun'en sartzen da. Euntari batek morroi bat dauko il-zorian. Euntariak bialdutako batzuk urreratzen yakoz Jesus'i. Geisoa osatzeko eskatzen dautsoe, eta, euntaria judarra izan ezarren, aren alde gorapen andiak egiten dautsoez: "Merezi dau, maite dau gure erria-ta".

"Neu joango nakio osatzera —dirautse Jesus'ek—. Eta ba-doa. Baiña orain euntaria bera urreratzen yako: "Jauna —dirautso—, ez naz ni nor zure neure aterpean sartu zaitez; **baiña esan egizu berba bat bakarrik, eta nire morroia osatu egingo da.** Izan be, neuk be, iñoren menpeko izanarren, ba-daukadaz gudariak nire agindupean, eta bati "oa!" dirautsat, eta ba-doa; eta beste bati "ator", eta ba-dator; eta nire morroiari "au egik!", eta egin egiten dau".

"Zoaz —dirautso Jesus'ek euntariari—; **sinistu dozunez jazo dakizula**".

Eta morroia, judarra izan ezarren be, osatuta gelditu zan.

#### 130. Bezata'ko geisoa:

Jesus Jerusalem'era igo da. Uri onetan, Ardi-ate ondoan, eberkeraz Bezata deritxon urtegi bat dago, bost aterpeaz. Urtegi onen inguruan, geiso, itsu, erren eta elbarri askoak egozan, uraren eragin-aldiaren zain. "Izan be, Jaunaren aingerua, urtegiara noizean bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan, eta eragindako uretan lenen sartzen zana, edozein gatzex egon zeitena be, osatuta gelditzen zan".

Jesus'ek ogeta amazortzi urtean geisorik egoan gizon bat ikusten dau an; eta askotan etorria dala jakiñik, "Osatu nai dozu?" dirautso.

\* Euntari: centurión.

Geisoak auxe erantzuten dautso: "Jauna, ez dot gizonik, ura eragiten asten danean urtegiara sartu nagianik; eta ni noan bitartean, besteren bat jatsiten da ni baiño len".

"**Jagi zaitez** —agintzen dautso Jesus'ek—, **artu zure ogetxo ta ibili zaitez**".

Eta bat-batean, gizona **osatuta gelditzen da**, bere ogetxo artu ta ibiltzen asten da.

### Joan gaitzan Jaunagana sinismenez.

#### 131. Itsu biak:

"Erruki zakiguz, Dabid'en Seme ori!", diñoe deadarka Jesus'i jarraitzen dautsoen itsu bik.

"Nik ori egin daikedala, sinisten dozue?", itauntzen dautse **urreratzen yakozamean.**

"Bai, Jauna!", erantzuten dautsoe.

Jesus'ek itsuen begiak ikutu eta ba-diño: "**Sinisten dozunez jazo bekizue**".

Eta arein begiak edegi egiten dira. Eta Jesus'ek: "Ez dagiala, gero, iñok be jakin!"

#### 132. Jairo'ren alabea:

Jesus gizataldeari berba egiten diardu. Sinagogako nagusi bat urreratzen yako, Jairo izenekoa. Amabi urteko neskato bat dauko, il-zorian.

Gizon onek, Jesus'en **aurrean auzpazturik**, eskari au egiten dautso: "Nire alabea il-zorian dago; etorri zaitez, ezarri egiozuz eskuak gainean, osatu ta bizi dadin".

Jauna jagi ta Jairo'gaz doa onen etxera. Ikasleak be ba-doa arekaz.

Bidean, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik dagoan emakume batek Jesus'en **soingaiñeko ertza ikutzen dau.** Osatuta geldituko dala uste dau: "Soingaiñekoa ikutzen ba'dautsat ikutu bakarik, osatuta geldituko naz", diño berekautan.

"Izan egizu uste ona, alaba orrek! —dirautso Jesus'ek—; zeure sinismenak osatu zaitu".

Eta emakumea **osatuta gelditzen da.**

Onetan, norbaitzuek Jairo'ri auxe dirautsoe: "Zure alabea il egin da. Ez gogaitik eragin onezkero Irakasleari".

Baiña Jesus'ek adoretu egiten dau: "Ez bildurtu; izan egizu sinismena bakar-bakarrik".



Eltzen dira etxera. Negar baten dagoz.

Jaunak ba-daki egin bear dauana: "Ez egin negarrik; neskatoa ez dago ilda; lo dago".

Batzuek irri ta barre egiten dautsoe Jesus'i. Ba-dakie neskatoa ilda dagoana.

Pedro, Yon eta Santiago dagoz Jesus'egaz. Guztiai alde eragin eta neskatoaren gurasoakaz eta iru ikasleokaz gelditzen da.

Gero, neskatoari eskutik oraturik, auxe dirautso: "Neskato, zeuri dirautsut: jagi zaitez!".

Eta neskatoa jagi ta **ibilten asten da**.

Jazo zana ñori ez esateko agintzen dautse Jesus'ek neskatoaren gurasoai.

### 133. Naim'go andra alargunaren semea:

Jauna Naim izeneko errira doa; erri au Nazaret'etik 12 kilometrora aurkitzen da. Ikasleak eta gizatalde aundiak doaz Jesus'egaz.

Erriko atera urreratzean, **ildako** bat ataraten dabe illobiratze-  
ra, ama alargun baten semea bera. Ama be semearen gorpuari la-  
gun egiten doa.

Jesus erruki yako amari: "Ez negarrik egin". Gero, gorpuari dirautso: "Gazte, zeuri dirautsut: jagi zaitez".

Gaztea **jagi** ta berba egiten asten da. Begi guztiak, batez be amarenak, gazte biztuari ta Jesus'i begira gelditzen dira. Onek amari emoten dautso. Ama guztiz arrituta gelditzen da.

Eta guztiak Jaungoikoa goratzen dabe: "Profeta andi bat ager-  
tu da gaur gure artean".

### Jesus'egaz irabazi daikegu.

### 134. Mutiko deabruduna:

Deabruak oiñaze gorritan dauko mutiko bat. Sutara ta ure-  
tara jaurtiten dau eta agotik bitsa dariola izten dau. Apostoluak  
deabrua ezin jaurti daikeen ezker, aitak Jesus'egana urreratu ta  
auxe dirautso: "Jauna, ezer aal ba'daikezu, lagun zakiguz, erruki  
zakiguz!". Eta Jesus'ek: "Dana aal daike fededunak!" Bereala, auxe  
esan eutsan aitak negarrez eta deadarka: "Sinisten dot, Jauna, la-  
gun zakioz nire ez-siniste on!"

Eta mutikoagandik urteteko agintzen dautso Jesus'ek deabrua-  
ri, eta mutikoa ilda lez gelditzen da. Gero, eskutik oraturik, **osatuta**  
**emon eutsan aitari**.

Beste bein, espiritu zikin baten menpean egoan gizon bategan-  
dik bota ebazan Jesus'ek deabruak. Deabruak txarri-talde bategan  
sartu ziran eta oneik itxasoan amildu ziran. Beste txerrendun ba-  
tzuk be osatu ebazan.

### 135. Ekaitza baretuta:

Jauna txalupa batera igoten da. Ikasleak Beragaz doaz. Itxa-  
soan egozala, Jesus loak artzen dau.

Baiña ekatxa sortzen da, eta ikasleak deadarka dirautsoe:  
**"Jauna, salbatu gogizuz, galduak gara-ta!"**

Jesus'ek, arei begira dirautse: "Zeren bildur zaree, siniste otze-  
ko gizonok?" Gero, itxasoari dirautso: "Ixol, isilik agol!" Eta aizea  
gelditu, eta barealdi ederra etorri zan.

"Nor dogu au? —dirautsoe ikasleak alkarri—, aizeak eta itxa-  
soak be esana egiten dautsoe-ta?"

### Jaunaren eskutik.

136. Ikaskizun au astean, Jesus gatzaren zusterre dan pekatua  
ondatze etorri dala esan dautsugu, eta gizonai Jaungoikoaren poza  
ekartera. Orregaitik, Jaunaren mirari bakotxa, gatzaren eta gaiz-  
toaren aurka irabazi dauan burrukaren ezaugarria da. Jesus'ek  
osatze edo biztuera bat egiten dauanean, bere ekintza geisoa bai-  
ño aurrerago igaroten da, eriotza baiño aurrerago. Pekaturaiño el-  
tzen da eta ondatu egiten dau. **Goazan Beragana**. Ez gaitetzan aaz-  
tu Bezata'ko urtegiko geisoa osatzean dirauskunaz:

**"Nire Aitak lan egiten diardu beti, eta neuk be lan  
egiten diardut".**

Eta "egun oroko mirari andiaren" aurrean, esan dagigun Sal-  
mu-egilleagaz:

**"Zeruak zeure mirariak ospatzen dabez, Jauna".**  
(Sal. 89, 6.)

### ITAUNKETA

126. Zer sendotzen dabe Jesus'en mirariak?

127. Zenbat mirari azaltzen dauskuez Ebanjelariak? Zer ikusi bear dogu Jauna-  
ren mirarietan?

128. Azaldu egizu legenardunaren osatzea.

129. Azaldu egizu euntariaren morroiaren osatzea.
130. Azaldu egizu Bezata'ko geisoaren miraria.
131. Azaldu egizu itsu bien osatzea.
132. Azaldu egizu Jairo'ren alabearen biztuera.
133. Azaldu egizu Naim'go andra alargunaren semearen biztuera.
134. Azaldu egizu mutiko deabrudunaren miraria.
135. Azaldu egizu baretutako ekatxaren miraria.
136. Zetarako dira Jesus'en mirarien ezaugarriak?

#### EGITEKOAK

—Alkarren ondoan jarri Jesus'en mirariak eta Eliseo'ren urrengo mirariok: Erregeen 1<sup>a</sup>, 4, 1-7; 4, 31-37; 4, 42-44; 5, 1-14.

—Idatzi egizu gaurko bizitzan do-  
zuzan buru-auste nagusiak, eta

atara Jesus'en mirarietatik bu-  
ru-austeok kentzeko bidea.

—Ormako marrozki bat egin, Jau-  
nari mirari bat eskatzen dautse-  
nen sinismen-esaera batzuk au-  
keratuwik.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, lagun zakioz nire ez-siniste oni!"



#### 9'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus'en arerioak Erreiñuko Salbaziñoa ezetsi egiten dabe

137. Oraindiño Jesus ez da guztiz-gutztiz Mesias lez agertzen. Lur onetako errege lez artua izateko arriskua izango leuke, erriak erromatarrakandik askatzeko gogoia dau-ta.

Jesus'en lana, oraindiño Mesias'i buruzko uste okerrak kentzea da, egiazkoaz aldatu-  
rik: Mesias'en **erreñua espirituzkoa** da, ez mundukoia.

Jauna ez yake guztiz zabaltzen, eta orregaitik, Bere Erreiñua ezetsi egiten dabe.

**Erriaren eta onen ordezkarien jokabidea Jesus'en aurrean.**

138. Jesus'i jarraitzen dautsan laguntaldeak **arrituta begira-  
tzen dautso**. Baiña ori, batez be, egintza miragarriak egiten ikus-  
ten dabelako da; ez dabe ikusten Aregan biurtzea edo bizikera  
barria iragartera bialdua danik.

Ba-dagoz batzuk Aren irakatsiai arpegia emoten dautsenak  
eta **aurrez-aurre jarten yakozanak be**. Orretarako, Legean eusten  
dira, oker ulertua izanarren be. Orrein biotzak geroago ta gogor-  
tuagoak egiten dira:

Zerbaiten artzeko zain dagoz, salatze-  
ko; itaunak egiten dau-  
tsoez, zirikatze-  
ko; mirariak Satanas'en indarrez egiten dituala di-  
ño, eta azkenean, eriotzara galduko dabe.

Baiña Jauna ezegaitik ezta iñogaitik be ez da Aitaren Naiak  
erakutsi dautsan bidetik okertuko.

**Eta guk, ze jokabide artu bear dogu Jesus'en aurrean?**

139. Sinismenak Jesus nor dan agertzen dausku. Sinismen  
oni eskerrak ikusi dogu Jaunagan beronen arerioak ikusi aal izan

ez ebena: Jesus Jaungoikoa dala. Eta ondo ulertzen dogu Aren berben esangurea:

"Zoriontsuak Nigan gaizpiderik artzen ez dabenak!"

Baiña Jesus'egan sinismen bikotxa izateko arriskuan gagoz: bata teoriatzko sinismena, eta bestea egiñezko sinismena; azken au lenengoaren aurka egon daiteke. Izan be, ba-daiteke Jauna lagun artea, lurreko elburuak lortzeko balio izatekotan, eta orduan Lege Barriko pariseu biurtuko gintzakez.

Bearrezkoa da gure buruak zaintzea. Ez daigun Kristo barriro il —Kristo orain kristaukan dago— Jaungoikoaren eta Legearen izenean; Jesus'en izenean epaiturik.

Edozetara eldu gaitkez Ebanjelioko Kristo **txiroa, apala, eroa-pentsua** ta **orokarra** \* ezesten ba'dogu, eta biotzetan bizi ez dan oker ulertutako Kristoaren alde egiten ba-dogu.

#### Idazlari ta pariseuak Jesus'i buruz pentzaten dabena.

140. Jauna Kafarnaun'era biurtu da. Etxe baten dago, Barri Ona irakasten, eta laguntaldea, alkarri bultzaka, inguruan dauko.

Lau gizonek elbarridu\* bat dakarre osatu dagian. Atetik ezin sartuta, sabaira igo, zulo bat egin eta zulotik beera erasten dabe elbarriduna ogetxoan, Jesus'en aurrera.

Guztiak isil-isilik gelditzen dira. Ba-daki Jaunak geisoa eka- rri dabenen sinismena. Eta geisoari auxe dirautso: "**Seme, parka- tzen yatzuz zure pekatuak**".

Ori entzutean, guztiak Jesus'i begira gelditzen dira. Esaera arrigarria entzun dabe. Abade Nagusiak bakarrik esan eikeon Isarel'i pekatuak parkatuta gelditu izan yakozala, eta ori ordain- opariak eskiñi ondoren bakarrik; orrela, erria barriro garbituta egoan elizkizunetarako.

Idazlari ta pariseuak dagoz aurrean. Oneik euren biotzetan asmatzen asi ziran: "Zer diño onek, baiña? **Onek biraoka diardu**. Nok parkatu daitez pekatuak, Jaungoikoak izan ezik?"

Astuna da "salakuntza". Baiña Jaunak arpegia emongo dau- tso. Igarri dautsez arei darabillezan bururakizunak, eta zirt edo zart egiteko zorian jarriko ditu bere arerioak: euren gogoz Jesus onartu edo ezetsi.

Eta itaun au egiten dau: "Zegaitik darabizuez asmakeriok zuen biotzetan? Zer da errazago?, elbarridunari 'parkatzen yatzuz

\* Orokarr: universal.— \* Elbarridun: parálitico.

zure pekatuak' esatea, ala 'jagi zaitez, artu egizu zure ogetxo ta zoaz' esatea? **Gizasemeak** lurrean pekatuak parkatzeko aal-izatea ba-daukala jakin dagizuen, ba —elbarriari dirautso—: "**Zeuri di- rautsut: jagi zaitez**, artu zure ogetxo, eta zoaz zure etxera".

Gizona zutundu, ogetxo artu ta ba-doa.

Erri lauak, gizona ibilli dabillela ikusirik, arrituta diño: "**Gaur arrigarriak ikusi doguz?**".

141. Pekatuak parkatu daitezkan "Gizasemea" lez agertu da Jesus. "Gizasemea" itza Mesias'en izenorde bat da; Daniel igar- learen liburuan agertzen da, eta Jaungoikoaren ondo-ondoan da- goan eta odeien gaiñetik datorren norbaiti dagokio; beraz izaki **ezkutu ta zerukoitzat** artzen da.

Jaunaren aurrean idazlari ta pariseuak daben apaltasun gu- txiko egoerak, Jesus'i ezarten yakon "Gizasemea" esaerak daukan misterioa ikusten galerazo egiten dautse. Guk, sinismenari eske- rrak, aal dogu ulertu orain aren esangura sakona.

#### Idazlari ta pariseuak Jesus'i buruz diñoena.

142. Mateo, zerga-batzaillea, zergategian jesarrita dago. Je- sus'ek, andik igarrotean, ikusi ta ba-dirautso: "**Jarraitu egidazu**". Jaunaren Itzak, bizia da-ta, espirtu-bizituera dakar. Mateo'k, jagi- rik, **jarraitu** egiten dautso Jesus'i.

Mateo'k Jesus bere etxera daroa, bazkaltzera; **zerga-batzaille ta pekatari batzuk** be maian dagoz.

Jesus zerga-batzaille ta pekatariakaz batera jaten! Ori bai gaizpidea idazlari ta pariseuentzat! Oneik alkarri dirautsoe: "Zegaitik jaten dau zerga-batzaille ta pekatariakaz?"

Jaunak, ori entzutean, auxe erantzuten dau: "Osasundunak ez dabe osagillerik bear, geisoak baiño. Zoaze, ba, eta ikasi egi- zue arelako a zer dan: Errukia nai dot, eta ez oparirik".

Aurrez-aurre, Jaungoikoaren Asmoa ikusteko era bi: Jesus'ena eta beronen arerioena.

#### Jesus idazlari ta pariseuak aurrez-aurre jarten yake.

143. Idazlari ta pariseuen artean, irakatsirik nagusienetarikoa bat zapatuz lanik ez egitea da. Legeak debekatu egiten dau egun orretan lan egitea; baiña pariseuak naustu egin dabe agindu ori, Legearen espirtuz bizi bearrean Legearen izkiari (letreari) lotzen

yakozala; eta Jaungoikoak eskatzen ez dauana eskatzen dabe. Esate baterako, zapatuz garia jotea bakarrik ez, baita eskuan galburu batzuk urkultzea be bedekatuta dago.

Baiña Jesus'ek, **Legearen egille** dan ezkerro, agindu orren adierazpen arteza emongo dautse, zapatuaren aurka egiten dauala salatzen dabenarren be.

144. Zapatua da. Jauna bere ikasleakaz gari-soloetan zear igaroten da. Oneik gose dira, eta galburu batzuk artu, eskuetan urkuldu eta jan egiten dabez.

Orduan, pariseuak Jesus'i auxe dirautsoe: "Zure ikasleak zapatuz bidezko ez dana egiten diardue".

Baiña Jauna bere ikasleen alde jarten da. Biblia Santutik artutako ataletatik, Jesus'ek auxe dirautse: **Legeak bereizkuntzak\* izan daitezala**, edo bardin dana, egoera batzuetan Legeak ez dauala beartzen. Legea ez dala **zorrozkeriz** ulertu bear.

Baiña areik ez dira bizi Legearen espirituaz, Lege-Egillearen espirituaz. Jaungoikoa ezpanakaz goratzen dabe; baiña euren biotzak Aregandik urrun dagoz.

Jesus guretzat Jaungoikoa da, zapatuaren Jabea. Orrexegaitik ulertzen dogu Aren jokabidea pariseuen aurrean.

145. Jauna sinagogan dago. Gizon esku-igar bat dago an. Irakasten asten da. Pariseuak adi-adi dagoz A zalatzeko. Zapatua da. Jesus'en begirakunea geisoaganuntz doa. Bere arerioakaz pentzatzean, min artzen dau **arein biotz-gogorragaitik**.

Oneik itaun au egiten dautsoe: "Bidezko da zapatuz osatzea?".

Jesus'ek auxe erantzuten dautse: "Zuetariko batek ardi bakarra euki ezkerro, eta zapatuz zulo batera jausten ba'yako, ez ete-dau artzen eta ataraten? Eta, **ez dau balio gizonak ardiak baiño geiago?** Beraz, bidezko da zapatuz on egitea".

Orduan, "Zabaldu egizu esku ori", dirautso gizon esku-igarri. Arek zabaldu egiten dau, eta osatuta gelditzen yako, beste eskua baizen ondo.

#### **Idazlariak eta pariseuak, itsututa Jaunaren aurrean.**

146. Jauna ezesten dabenak, alako egintza arrigarriak egiten dabezan gizona zegaitik ez daben onartzen **adierazo** bear dautsoe gizataldeari. Eta une egokia datorkie.

Gizon batzuk deabrudun bat daroe Jesus'en aurrera: **itsu** ta mutua da. Eta Jesus'ek osatu egiten dau.

Gizataldea arrituta gelditzen da. Jesus Mesias dala be pentzitzen dabe. Baiña ez dira eldu bear dabeneraiño eltzen. Ez dabe auzia sakontzen. Ez dabez euren biotzak biurtzen illunpeko aitaren erreñua ondatzen etorri dan Jesus'egana. Bidea ta Bizitza izanik. Azalezko berotasunean gelditzen dira. Zerbait txarra goa be ba-dago: **argiari norbere gogoz itxita dagozan biotzak**.

"Orrek —diño mormoxetan pariseuak— ez dau deabrurik jaurtiten, Beeltzebul deabru-nagusia noren laguntzaz izan ezik".

Jaunak auxe erantzuten dautse: "Nik deabruak Beeltzebul'en indarraz jaurtiten ba'dodaz, zuen semeak noren laguntzaz jaurtiten dabez? Eurak izango dira zuen auzi-epailleak\*."

Baiña, deabruak nik Jaungoikoaren Espirituagaz jaurtiten ba'dodaz, Jaungoikoaren Erreñua etorri yatzuena agirian dago".

Eta gero ba-diño **"Nigaz ez dagoana, neure aurka dago;** eta nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau".

Guretzat, bateatuontzak, argia ta garbia da esanaldi ori.

#### **Judar-agintaritzak ezaugarri bat eskatzen dautso Jesus'i.**

147. Mesias'ek, etorri daitenean, ezaugarri arrigarriak egingo dauzala uste dabe judarrak.

"Irakasle, zeuk egindako ezaugarri bat ikusi nai dogu", dirautsoe Jesus'i idazlari ta pariseo batzuek.

Bere aal-izatearen ezaugarri bat eskatzen dautsoe; baiña Kristo'k emon nai dauzan ezaugarriak apaltasun eta ontasun-ezaugarriak dira. Orregaitik, ezetsi, alboratu egiten dau eskari ori:

"Gizaldi gaizto ta ustel onek ezaugarri bat eskatzen dau, baiña Jonas igarlearen ezaugarria baiño beste ezaugarriarik ez yako emongo. Izan be, Jonas iru egun eta iru gau arraiñaren sabelean egon zanez, **Gizase-mea be iru egun eta iru gau egongo da lurraren biotzean**. Ninibe'tarrak Auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko dira, eta gizaldi au galdu egingo dabe: Jonas'en damu-iragarateaz areik garbatu egin ziran-eta. Ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana, Ego-aldeko erregiña Auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko da,

\* Bereizkuntza: excepción.

\* Auzi-epaille: juez.

eta gizaldi au galdu egingo dau: Salomon'en jakituria entzutera lurreko mugetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbaít gelago dana".

Jaunaren erantzunak ez dauko eztabaidarik: judar-agintaritzaren aurka agertu da.

### Jesus'en arerioak, errudun.

148. Ikusi doguzan jazopenok naikoa argi erakusten daukue zegaitik ezetsi eben judar-erriaren agintariak Jesus, Mesias Salbantzaille lez.

**Itsu errudun** dira: Jesus'egan gaizkille bat bakarrik ikusi eben eta ez Aitaren bialdua; Aitak bere Erriari egindako agintzariak bete nai ebazan.

Jesus il ebenean, ez yaken burura etorri Jaungoikoa zanik. Alan be, errua atzeragotik dator: ezetsi egin dabez bein eta barriro, Aitak bere Semearen bitartez egin eutsezan doaiak.

Jazopen oni buruz, Batikano'ko Bigarren Batzar Nagusiak auxe dirausku:

"Judarren agintariak, euren jarraitzailleakaz, Kristo'ri eriotza emonazo utsoenarren be, Aren Nekaldian egin zana, ez yake ezarri erabat orduan bizi ziran judarrak ezta gaurko judarrak be. Eta Elizea Jaungoikoaren erri barrira danarren, ez dira artu bear judarrak Jaungoikoaren galduak eta madarikatuak lez, ori Idazki Santuetatik atara bai'litzakean".

### ITAUNKETA

137. Zegaitik ez da agertzen Jesus argi-argi laguntaldearen aurrean Mesias lez?
138. Ze jokabide artzen dabe erriak eta agintariak Jesus'en aurrean?
139. Ze jokabide artu bear dogu kristauok Jaunaren aurrean?
140. Azaldu egizu Kafarnaun'go elbarridunari jazotakoa. Zelako auziak edo problemak dakaz jazopen onek Jesus'en eta idazlari ta pariseuen artean?
141. Zer esan nai dau "Gizasemea" itzak Kafarnaun'go elbarridunaren mirarian?
142. Zer diño Jesus'i buruz idazlari ta pariseuak, zergabatzaille ta pekatariakaz batera ikustean? Zelan zuritzen dau Jaunak bere jokabide ori?
143. Zelan ulertzen eta adierazoten dabe idazlariak eta pariseuak Legeko zapatu-atsedena?
144. Zelan aazlzen dau Jesus'ek Legeko zapatu-atsedena?
145. Zer itauntzen dautsoe Jesus'i idazlari ta pariseuak zapatuko atsedena buruz? Zelan erantzuten dautse Jaunak?
146. Nori ezarten dautsoez Jesus'en arerioak, Onek egiten dauzan egintza miragarriak? Azaldu egizu deabrudun mutu ta itsuaren osatzea.

147. Ze erantzun emoten dautse Jesus'ek Mesias-ezaugarri bat eskatzen dautsoen judarrak?
148. Errudun ete-dira judarrak Jesus'en eriotzaz?

### EGITEKOAK

—Egin laburpen bat Elizearen artu-emonai buruz kristau ez diran erlejiñoakaz, batez be judar-erriagaz (4garren zenbakia).

—Izentatu egizuz eliztar batzukan ikusten diran pariseo-usaiña eroan daikeen jokaera batzuk, eta azaldu ori zegaitik dan. Ezarri pentzaketa ori norbere bizi-kerari.

—Azaldu urrengo au: "Biblia Santutik artutako ataletatik, Jaunak auxe dirautse: lege batek bereizkuntzak izan daikezala, edo bardin dana, egoera batzuetan lege orrek ez dauada bear-tzen. Legea ez dala zorrozkeriz ulertu bear.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, emon egidazu Ebanjelio-biotza".



## Jesus'ek Salbaziño-erreinua ipuiñen bidez azaltzen dau

149. Gogo oneko laguntaldeak Jaungoikoak bialdutako Me-sias ikusten dau Jesus'egan. Eta Jaungoikoak gizonen artean jarri nai dauan Erreiñuari buruz egiten dautse berba Jesus'ek. Baiña, **zetan dago Erreiñu ori?** Zetan dago gu lagunkide garan Eliza?

Ba-daki Jaunak Erreiñu ezkututsu bat dana, Berari entzuten dautsoenak itxaroten dabena baiño be askozaz ezbardinagoa. Ez da Dabid'ena lakoa, ezta Salomon'ena lakoa be.

### Espiritu-Erreiñua da.

Jesus'ek ori antz-irudi batzukaz irakasten dau, edo bardin dana, ipuiñetan azalduta.

Berbakera au eurrez erabilten da Eguzki-sortzaldean. Ikasbi-deakaz, ez-ikasiak eta lauak obeto ulertzen ditue gaiak, baita errazago gogoratu be.

Gaiñera, Jesus'en lekuan, ipuiñak **zoli** egoteko ta **iratzartzeko** balio dabe. Edo bardin dana, gogo onez entzuten dautsoezanak ulertu dagien; eta gogo txarrez entzuten dautsoenak, esate baterako idazlariak eta pariseuak, ulertu ez dagien.

150. Erreiñuko ipuiñak ez dauskue Jaungoikoaren Erreiñua zelakoa dan zeatz azaltzen, **ikusten lagun egin baiño**, gure aurrean Erreiñu orren alde batzuk agerturik. Ipuñen bidez, sakondu dagin Elizaren misterio aundia.


Lenengo Elizeak eta gaurkoak be bai, auzi batzuk dakartsez eliztarrai, eta ebatzi egin bear doguz:

**Batzuk** Erreiñuko, Elizako **lagunkide** dira, **eta beste batzuk ez;** eta ba-diranen artean, batzuk beste batzuk baiño obeak dira.

Erreiñu beraren barruan, santuak eta pekatariak **alkarregaz bizi** dira.

**Ezerezuko ete-da** Jaungoikoaren Erreiñua? Askok olantxe iragarri dabe, baita oraintxe be iragarten dabe.

Ze jokabide artu bear dabe Erreiñukoak diranak?



Eta, sakonetik aztertuta, **zer da Elizea** edo Jaungoikoaren Erreïñua?

Lenengo kristauak, geu oraintxe lez, bizi-jazopen guzti onein adierazpen-billa ebizen. Areik adierazpen ori **Erreïñuko ipuifietan** entzun ebenez, geuk be entzun egin bear dogu orain. Zegaitik? Jaungoikoaren Itza bardinãa dalako, betiko indarra daukalako; guztientzat da, ordukoentzat eta oraingoentzat.

### Jaungoikoa da Erreïñurako deitzen dauana.

151. Auxe esan daikegu: Gure salbaziño-istorian eta gizon guztien Salbaziño-Istorian, Jauna dala lenengo deitzen dauana, salbaziño-egintzak asten dauzana.

Orregaitik, geiago emon daikeo **Berak nai dautsanari**, enparauekuz zuzenbagea izan bagarik.

Maastiko langilleen ipuina:

Zeruetako Erreïñua, bere maastirako langille-billa doan etxagunaren antzekoa da.

Batzuek goizean-goiz asten dabe euren lana, lan-saritzat denario-diru banaz berbatuta; eta, iru ordurik iru ordura datoz enparauek; azkenak, barriz, arratsaldeko bostetan asten dira lanean.

Eguna igarota, ugazabak bakotxri denario bana emoten dautso. Egun guztian lan egin dabenak mormoxetan asten diran ezker, ez dabela errazoirik jakiñerazoten dautse, berbatutakoa emoten dautselako, zuzenbagekeririk egin bagarik. Baiña ugazabak eurrez ordaintzea naiago dau, ontasunez eta errukiz.

### Jaungoikoaren Itzaren indarra Erreïñuan.

152. Jaungoikoaren Erreïñuan, Jaunaren Itza da gizonak erabarritzen dauzana. Biotzak aldatzeko indarra dauko.

Aziaren ipuina:

"Jaungoikoaren Erreïñua, gizon batek lurrean jaurtiten dauan garaunaren antzekoa da; gizona lo egon naiz jagita, gabez eta egunez, garauna erne ta azi egiten da, gizona konturatu bagarik".

### Gizonaren erantzuna Jaungoikoaren Itzari Erreïñuan.

153. Jaungoikoaren Itza bat bera da; baiña lur ezbardinãetan jausten da. Leku baten ez dau ezer emoten; beste baten, ostera, asko be asko. Edo bardin dana: **gizonak** erantzun egiten dabe, baiña **era askotan laguntzen dautsoe lanean Jaungoikoari**. Ereillearen ipuina:

Jesus txalupa batera igo da berba egitera. Laguntaldea itxartzean dago. Eta auxe diño Jaunak:

"Ereille bat azia ereitera urten zan. Garaun batzuk bide-ondoan jausten dira, eta txoriak etorri ta jan egiten dabez. Beste azi batzuk arri-artean jausten dira; eta lur gutxi dagoan ezker, berealaxe erneten dira, baiña zuster bagarik, eta eguzkia urteten danean, igartu egiten dira. Beste azi batzuk arantza-artean jausten dira, eta oneik ito egin ebazan. Beste azi batzuk lur onean jausten dira, eta frutu ona emon eben: batek eun, beste batek irurogei, beste batek ogetamar".

"Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala", dirautse Jesus'ek bere entzuleai, baita aldi guztietako kristau guztioi be ba-dirausku.

Jauna bera da ipuin ori azalduko dauana.

"Ereilleak ereiten dauan azia Jaungoikoaren Itza da. Batzukan, bidean garaunak lez jausten da: deabrua, etorririk, **eroan egiten dau Itza biotzetatik**.

Beste batzuk, arri-artean jausitako garaunak lez, pozik artzen dabe; baiña aldi pizkaterako da, Itzak an zusterrik ez dauko-ta. Eragozpen bat, larrialdi bat etorri, eta **jausi** egiten dira.

Arantza-artean jausten diran garaunak, Itza entzun bai, baiña munduko arazoak, aberastasunak eta poztasunak Itza **ito** egiten dabe eta ez dautsoe fruturik emoten izten.

Azkenez, ba-dagoz Itza entzuten, artzen eta gordeten daben biotzak, eta **frutua dakarre**: ogetamar, irurogei, eun".

"Belarririk euki dagianak, entzun dagiala".

### Zelakoa da Erreïñua?

154. Elizaren kanpokaldeko itxurea: Elizeak kanpokaldetik argiak eta gerizak daukaz. Zerbait begiratzan ba'dozu, edozetariko

personak aurkituko dozuz an: guztiz onakandik asi eta guztiz gaiztoakan amaitzeraiño. Eta au olantxe izango da munduaren azke-nerarte.

Galbedarraren ipuiña:

"Zeruetako Erreiñua, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzekoa da.

Baiña gabez arerioak, etorririk, gari-artean galbedarra ereiten dau. Garia azi, eta galbedarra be gari-artean agertzen da.

Morroiak arrituta dagoz; baiña ugazabak ba-daki zer jazo dan: "**Arerioresen batek egin dau ori**".

Eta galbedarra orain ez atarateko dirautse, garia ebagitaldiraiño izteko baiño; eta orduan, gari-ebatailleak egingo dabela gariaren eta galbedarraren banantzea. **Au erre egingo dabe eta garia garautegiatara eroango dabe.**

Ipuin au be azaldu egiten dau Jaunak: "Soloa mundua da. Garia ereiten dauana, Gizasemea da. Galbedarra ereiten dauana, deabrua da. Azken-auzian egingo da zintzoen eta pekatarien banantzea".

Mundu onetako aldia ez da oraindiño azken-auzikoa: "**Jaungoikoaren eroapenarena** da".

Elizeak, lurreko aldian, **zintzoak eta pekatariak** artzen dauz.

Sarearen ipuiña:

Zeruetako Erreiñua sare baten antzekoa da.

Arrantzaleak sarea jaurtiten dau itxasora eta edozetariko arraiñak artzen dauz. Gero, itxas-ertzean, onak **otzaretan batu** eta txarrak **jaurti** egiten dauz.

Orrelaxe jazoko da munduaren amaieran be.

155. **Elizaren barrukaldeko itxurea:** Elizeak itxura barru-barrukoa dauko, ezkututsua. Aren goi-aberastasunak aurkitzen dauzanak, **dirutza balioitsu** bat lakoa aurkitzen dau, balio andi-andiko pitxi bat lakoa. Eta orduan dana emoten dau aregaitik.

Gordeta dagoan dirutzaren ipuiña:

Gizon batek, soloan, gordeta, dirutza bat dagoala jakiten dau. Ori jakin dauanean, **daukan guztia saldu** eta soloa erosi egiten dau. Zeruetako Erreiñua dirutza orren antzekoa da.

Arri ederraren ipuiña:

Aurrekoaren antzekoa da. Emen, balio andiko pitxi bat da. Aurkitzen dauanak, **daukan guztia saldu** eta pitxia erosi egiten dau.

**Erreiñuaren bizi-indarra ta zabaltzea**

156. Jaungoikoaren Erreiñuak curreira egiteko indarra dauko, bere bizi-indarra ta salbatzea sekulakoa da-ta. Gero izango dan agerpenerantz asten da.

Zarba-aziaren ipuiña:

Zeruetako Erreiñua, zarba-aziaren antzekoa da. Azi oso txikia da. Gizonak erein egiten dau; azi, eta zugatx (arbola) egiten da, eta txoriak aren adarretan apiak egiten dabez.

Legamiñaren ipuiña:

Orain, Zeruetako Erreiñua legamiñaren antzekoa egiten dau.

Emakume batek urun-negurri andi baten ora apur bat sartzen dau, eta ora guztia jagi-azo egiten dau.

**Jaungoikoaren Erreiñuan iratzarririk egon bear.**

157. Erreiñurako deituak zoli egon bear dabe. Ez galtzeko bakarrik ez, Jaungoikoak gugandik itxaron dagiana norberaren deian frutua ekarteko be bai.

Amar nesken ipuiña:

Zeruetako Erreiñua, amar nesken antzekoa da: argi-ontzi bana artu, eta senarraren billa urteten dira. Areitariko bost buruariñak dira, eta beste bost zuurrak. Zuurrak **dana dabe gertu**; buruariñak, ostera, ez dabe bear beste oriorik artu.

Senarrak etorten luzatu egiten dauan ezkerro, neskak loak artzen dauz.

Bat-batean, deadar bat entzuten da: "Ba-dator senarra!".

Buruariñak, ariñeketan, orioaren billa doaz. Bitartean, eztegutokiko ateak itxi egiten yakez, eta ezin dira sartu jai-toki aretan.

Orduan, deadarka diño: "Jauna, Jauna, zabaldu eiguzu



atea!". Baiña senarrak auxe erantzuten dautse: "Ez zaituet eza-  
gutzen".

Jesus'ek berba onekaz amaitzen dau ipuin au: "Iratzarririk  
egon, ba, eguna ta ordua ez-ezagunak dira-ta".

Izan be, ez dakigu Jauna zeruko bazkaritara dei egitera etorri-  
ko yakun eguna ez ordua.

Talentuen ipuiña:

Gizon batek bere ondasunak bere morroien zainpean itzi eba-  
zan. Eta urrun joan zan. Andik luzarora etorri ta kontuak garbitzen  
asi yaken: Lenengoak bost talentu biurtu eutsazan, jaso ebazan  
beste bostakaz. Ugazabak auxe dirautso: "Ondo, morroi zintzo!  
Sartu zaitez zure Jaunaren pozetan". Beste orrenbeste esan eutsan  
bigarrenari be, talentu bi artu eta lau biurtzen dautsaz-ta.

Baiña irugarrenak gorde egin eban bere talentu bakarra, ez  
galtzeko, eta auxe bakarrik biurtzen dautso. Ugazabak auxe dirau-  
tso: "Morroi gaizto ta nagi ori!... Kendu egiozue talentu ori, eta  
emon amar talentu daukazanari. Eta ezetako be ez dan morroi ori  
jaurti egizue kanpoko illunetara. An izango da negarra ta agin-  
karraskada!".

Zeru irabazteko ez da naikoa zoli egotea. Bearrezkoa da,  
gaiñera, lan egitea ta astia ondo betetea, bakotxak aal dauanez  
eta artu dituan doaien negurritz.

### Jaungoikoaren Erreñua misterio bat da.

158. Erreñuari buruz berba egiten dauskuezan ipuin guztiok,  
azalez bakunak\* eta ulerterrazak dira. Baiña zentzun sakona dabe  
eta batzuetan ezkutua be bai. Orregaitik, "Entzuteko belarririk eu-  
ki dagianak, entzun begi", diño Jesus'ek.

Apostoluak lenengoz entzuten dabezanean, zerbait eskutua da-  
bela konturatzen dira; eta batzuetan adierazpen bat eskatzen dau-  
tsoe Irakasleari, eta Onek ez dautse iñoiz be ukatzen.

Ipuinetan ezkutatutako Erreñuko misterio guzti au gogo oneko  
arimak sakonduko dabe, eta ori Jaunaren Biztuera-ondoren izan-  
go da, apostoluak —orain geu lez— arein esangura sakonean sar-  
tu daitezanean.

Jaungoikoaren Erreñua, zeu be lagunkide zakiozan Elizea,  
arantxe da. Ausnartu egizu.

\* Bakun: simple.

### ITAUNKETA

149. Zetarako dira Erreñuko ipuiñak?
150. Zer ikusiko dogu Erreñuko ipuiñetan?
151. Nor da Erreñura, Elizara dei egin dauana? Azaldu egizu maastiko langi-  
leen ipuiña.
152. Zer adierazoten dau esaera onek: "Jaungoikoaren Itza erangikorra da?".  
Azaldu egizu aziaren ipuiñaz.
153. Azaldu egizu ereillearen ipuiña. Zer irakasten dausku Jaunak ipuin onetan?
154. Azaldu egizuz galbedarraren eta sarearen ipuiñak.
155. Zer adierazoten dau landan gordetako dirutzaren ipuiñak?, eta pitxi ederra-  
ren ipuiñak?
156. Ezarri egiozuz Elizari zerba-aziaren eta legamiñaren ipuiñak.
157. Azaldu egizuz amar nesken eta talentuen ipuiñak. Zein da ipuin onein ikas-  
bidea?
158. Zer da, sakon begiratuta, Jaungoikoaren Erreñua, Elizea?


### EGITEKOAK



- Erreñuko ipuiñen bidez, idatzi  
egizu labur-labur Elizea zer dan.
- Billatu egizu Santiago'ren 1,  
21-25'garren idatz-atala. Azaldu  
esaera oneik.

—Jarri alkarren ondoan amar nes-  
ken ipuiña ta esku-utsik ilten  
dana.

—Jarri alkarren ondoan talentuen  
ipuiña eta norberaren jokabidea.

OTOITZ EGIZU: "Itzi egidazu, Jauna, zure argia, ondo-etorria egin da-  
gitzudan".





## 11'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus'ek, Beragan sinisten dabenak salbatzen ditu

159. Jesus'ek bere Erreiñua iragarri dautse gizonai. Bera atea dan Erreiñu ezkututsua.

**Sartu nai dagianak, sinistu dagiala.**

Gutxi batzuk egiten dabe ori, Aren adiskideak. Eta guk, zer egingo ete-dogu?

#### Jesus, ezetsia Nazaret'en.

160. Jesus'i Nazaret'en jazoten yakonak, gora-beera andia izango dau. Aren iragarreak be uts egin eban Galilea'n.

Jauna Nazaret'era eltzen da. An guztiak ezagutzen ditu. Zapatuan sinagogan sarturik, irakurgaia egitera jagiten da. Isaias igarlearen liburua izten dautsoe. Liburua zabaldu eta urrengo idatz-tatal au irakurten dau:

"Jaunaren Arnasa neure gainean dago, igurtzi egin nau-ta.

Beartsuoi Barri Ona iragartera bialdu nau;  
giltzapekoai askatasuna ta itsuai ikusmena iragartera;  
**zapalduai askatasuna** emotera,  
eta Jaunaren errukizko urtea iragartera".

Eta Jesus'ek auxe dirautse gainera: "Gaur bete da oraintxe entzun dozuen idatzitako au".

161. Entzuleak, Ari orrela berba egiten entzunik, alkarri auxe dirautsoe: "Au ez da, ba, Jose'ren semea?".

Eta Jesus'ek: "Esakera au esango daustazue, urrean: Osagille, osatu egizu zure burua. Kafarnaun'en egin ei'dozun guztia, egizu ementxe, zeure lurraldean". Eta auxe diño gainera: "Bene-tan dirautsuet: **Ez da profetarik onartua izan bere lurraldean**".

Gero, ori adibide batzukaz azaltzen dautse; eta, Ari alako gaiak entzutean, sinagogako guztiak asarre bizitan jarri, jagi eta Jesus mendi-gaillur batera daroe andik beera botateko. Berak, barriz, arein artetik zear igarorik, alde egin eban.

Gizon orrein biotzetan argi gutxi dago, eta Jesus dala-ta galbidea artzen dabe.

#### Jesus'ek laguntaldeari jaten emoten dautso.

162. Tiberiades itxasoz bestekaldera doa Jesus. Geisoakan egiten dauzan mirariak ikusten dabezalako jarraitzen dautsoe askok. Mendi batera igo eta antxe jesarten da bere ikasleakaz.

Jesus'ek **begiak jasotean** eta laguntalde andia datorrela Beragan, Felipe'ri dirautso: "Zelan erosiko dogu ogia, oneik jan dagian?". Ori, zirikatzeke dirautso, egin bear ebana ba-ekian Berak-eta.

Arratsalde-beranduan, laguntaldea bialdu dagiala nai dabe ikasleak, jatekoa erostera joan daitezcan. Baiña Jesus'ek auxe itauntzen dautse: "**Zenbat ogi daukazuez?**" Eta Ander'ek erantzuten dautso: "Ba-dago emen bost ogi ta arrain bi daukazan mutil bat; baiña, orreik zer dira orrenbestentzat?".

Orduan, erria taldeka jesarri daitela agintzen dau Jesus'ek. Bost millaren bat gizon jesarri ziran, andrazkoak eta umeak zenbatu bagarik.

Jaunak bost ogiak eta arrain biak artu, **gorantz begiratu**, ogiak bedeinkatu eta ikasleai emoten dautsez, oneik laguntaldeari banandu dagitsoen.

Guztiak jan eben **bete arte**, eta, Jesus'ek esanda, ikasleak ogi-mutxikiñak batu eta amabi otzara batzen dabez.

Jesus'ek egin izan eban ezaugarria laguntaldekak ikustean, dea-darka diño: "**Auxe da, benetan, etorteko dan igarlea!**".

Baiña Jesus'ek, bera errege egiteko, berari indarrez oratzera etorri nai ebela konturaturik, barriro be mendira egin eban iges bakar-bakarrik.

Ikasleak, itxas-ertzeraz jatsi ta, txalupa baten, Kafarnaun'era josten dabe.

163. Illunduta egoan, eta Jauna ez zan oraindiño ikasleakana eldu. Aizeak indar andia artu eban eta itxaso arrotzen asi zan. Ikasleak bost kilometroren bat arraunketan egin ebenean, Jesus ikusten dabe itxas-gaiñean ibiltzen eta txalupara urreratzen. Lenegotan bildur dira, Jesus'ek esan arte: "Neu naz; ez bildurtu".

Txalupan artu nai dabe; baiña berealaxe eldu zan txalupera eurak yoiazan tokira.

#### Jesus, Jaungoikoaren Bizia emoten dauan Ogia da.

164. Biaramonean, itxasoaz bestekaldean gelditu izan zira-nak, txalupa batzuetara igo eta Jesus'en billa doaz. Jesus'ek ikusi ebazanean, auxe dirautse: "Ogiak jan eta bete zareelako zabize nire billa". Eta beste ogi bat aitatzen dautse: Itzaren Ogia eta Eukaristi-Ogia.

#### 165. Itzaren Ogia: Jesus'ek auxe dirautse:

"Neu naz Bizitza-ogia, zerutik jatsia. Nigana etorri daitenak ez dau goserik izango; eta ni sinistu nagianak ez dau iñoiz be egarririk izango".

Baiña judarrak mormoxetan asten dira: "Ez da, ba, au Jesus, Jose'ren semea, eta ez doguz, ba, onen aita ta ama geuk ezagutzen?".

Oraintxe beteten da Amos igarleak aurretiaz iragarritako au:

"Ba-datoz egunak —diño Yabe Jaunak—, eta lurrera gosetea bialduko dot; ez, ostera, ogi-gosea, Yabe'ren Itza entzuteko gosea baiño.

Orduan, itxasotik itxasora eta Iparraldetik Egoaldera joan-etorrika ibiliko dira Yabe'ren Itzaren billa, baiña ez dabe aurkituko".

Bai; Jesus Itza da, Jaungoikoaren Itza, betidanik sortua, aldian gizon egiña eta orain Elizeak iragarria.

Jesus Ogia da, Jaungoikoaren Itza.

#### 166. Eukaristiako Ogia.

Jesus'ek auxe diño:

"Bene-benetan dirautsuet: Gizasemearen aragia jaten eta Beronen odola edaten ez b'dozue, ez dozue zuekan bizitzarik izango. Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dauko, eta neuk bizituko dot alakoaz azken-egunean. Nire aragia jaten eta

nire odola edaten dauana, neugan dago, eta ni aregan".

Askok auxe diñoe: "Gogorra da berbakera au. Nok entzun daike olakorik?".

Eta bertan-beera izten dabe Jesus.

### Sinismenaren erantzuna.

167. Kafarnaun'go itzaldi onetan, Jesus'ek ogi bakotxa eskintzen dau gure arimen bizirako: Itzaren Ogia eta bere gorpuzaren Ogia: Bere Persona guztia.

Ze jokabide artu bear dogu Jaunaren agerpen onen aurrean? Jesus bertan-beera itzi ez ebenena.

Jesus'ek itaun au egiten dautse amabici: "Zuek be alde egin nai dozue?".

"Jauna —erantzuten dautso Pedro'k—: nogana joango gara? Zuk, betiko bizitzako berbak dozuz, eta guk sinistu egiten dogu ta ba-dakigu zu Jaungoikoaren Santua zarana".

### ITAUNKETA

159. Nor sinistu bear dau Jaunaren Erreñuan sartu nai dauanak?
160. Zer jazoten yako Jesus'i Nazaret'en?
161. Zer egin nai dautsoe Jesus'i Nazaret'en?
162. Azaldu egizu ogi-ugaritzea.
163. Azaldu egizu, zelan aurkitzen dan Jesus apostoluakaz ogi-ugaritze ondoren.
164. Zertaz egiten dautse berba Jesus'ek Kafarnaun'era billa joan yakozanai?
165. Zelan agiri da Jesus Jaungoikoaren Itza lez?  
Ze igarpen egin eban Amos igarleak Jaungoikoaren Itzari buruz?
166. Azaldu egizu Eukaristiaren agintzaria.
167. Ze jokabide artu bear dogu, Jaunak Kafarnaun'en egin eban agerpenaren aurrean?

### EGITEKOAK

—Alkartasun Zaarreko profeten zerrenda bat egin, erriak zelan erabili ebazan esanik.  
—Billatu aurreko orrialdeetan, Jesus'i emon dautsaguzan ize-nak. Naikoa ete-dira izen oneik

Aren erritarrak Jesus Jaungoikotzat artzeko? Zegaitik?  
—Billatu, Jaunak agertutako Itzaren Ogiak eta Kristo'ren Gorpuzaren Itzak zeure bizitzaz izan daiken aria.

### d) SALBAZIÑOKO BIDEA: JESUS'EN EGINKIZUNA BERE IKASLEAI ZUZENDUA

#### SARRERA

168. Jaunak ez ditu onartzen erriaren agerkunde\* aundiak; oneik Mesias'i emon nai dautsoen politika-usaiña-gaitik. Mesias'i buruzko izenburuak be, alako negurri bat az onartzen dauz. Ia mirari guztiak be persona jakiñai begira egiten ditu. Eta laguntaldeak ez dau lortzen Jesus nor dan jakiterik.

169. Uts-egin antzeko onen aurrean, Jaunak beste jokabide bat artzen dau: aurrerantzean, urte-erdian baiño geiago, laguntaldeari egin bearrean berba, ikasle-talde bati

aziera edo eziketa emoten jardungo dau. Eurai jakiñerazoko dautse astiro-astiro bere mesiastasun mingarria, erriak beste era batekoa itxaroten eban mesiastasuna. Talde oneaz eratuko dau geroago bere Eliza.

170. Zelan emoten dautse Jesus'ek eziketa egokia bere ikasleai? Urrengo ikaskizuntan ikusiko dogu. Ez aaztu, Jesus'en irakatsiak bere betiko ikasleai be balio dautseela. Orregaitik, geuk be irakatsiok entzun nai bear doguz, eta Jaunak guretariko bako txari egiten dauskun deiari ondo erantzun.

### ITAUNKETA

168. Ze jokabide artuko dau Jaunak erriaren aurrean bere mesiastasunari buruz?
169. Ze jokaera erabiliko dau aurrerantzean Jesus'ek?
170. Zer egingo dogu guk Jesus'ek bere ikasleai emoten dautsen irakatsiai buruz?



\* Agerkunde: manifestación.

## Jesus'ek Gurutzeko bidea aukeratzen dau gu salbatzeko

171. Alkartasun Zaarrak olantxe irakarten dausku Norbaiten etorrera: **Zuzena, apala, aurrean erabilia** eta **eroapentsua** izango dala. Jaungoikoaren Morroia izango da eta bere erria erospentoiñazeaz salbatuko dau.

"Nire Morroiak gora egingo dau,  
gutziz goratua, gora jasoa ta aintzatsua izango da.  
Asko dira, bai, aren arpegi itxurabagea  
ta giza-antzik bagea arrituta ikusiko dabenak;  
erri askok, ostera, aintzatsu ikusiko dabe".

Nor da Jaungoikoaren Morroi au? **Nor da Mesias naigabetsu au?**

Orain guk ba-dakigu nor dan: Jesus, beronen Nekaldi ta gurutzeko Eriotzaz aintza muga-bagea ta salbaziño orokarra lortu dauana.


172. Jaunak Aitaren naia beteteko egiten dausku dei, Berak bete ebanez. Zer nai dau Aitak gugandik? Bere Semeagandik nai izan dauana bera:

Bere salbaziño-bidetik joan gaitetzala.

**Eta zuek, nor nazala diñozue?**

173. Yon Bateatzailleari samea ebagiteko agindu dau Galilea'ko Erodes'ek. Jesus dongakeri orren jakitun egin eta Galilea'tik Tiro ta Sidon atzerriko lurralderantz urteten da. Emen, kanandar andra batek bere alabearen osatzea eskatzen dautso: "Jauna, erruki zakidaz!".

Jaunak aren sinismena ikusi nai dau, eta ez entzun egiten dautso. Ikasleak erregu au egiten dautsoe: "Jaramon egiozu, gure



atzetik deadarka dator-eta". Baiña andrea Jesus'egana geiago urreratzen da eta, Aren aurrean auspazturik, barrero be ba-dirautso: "Jauna, lagun zakidazi!".

Jesus'ek sinismen-ikaskizun bat emon nai dautse bere ikasleai, eta andreari auxe dirautso: "Ez dago ondo semeen ogia artu ta txakurkumai jaurtitea". Edo bardin dana: Ez da oraindiño eskatzen dozun miraria egiteko aldia.

Baiña andreak bereari ekin: "Bai, Jauna, bai; baiña txakurkumak be euren jabeen maitik jausten diran ogi-apurrak jaten dabez".

Eta Jesus'ek miraria egiten dau: "**Andra, andia da zure sinismena!**; zeuk gura dozunez jazo dakizula". Eta une aretatik, alabea osatuta gelditu yekon.

Emon dau Kristo'k ikaskizuna. Zelan ulertu eben Aren ikasleak, orain geuk be ulertu dagigun?

174. Jauna bere ikasleakaz Filipino'ko Zesarea'n dago, Jenesaret'eko itxasotik 50 kilometrorra, Iparralderantz.

Eurak soillik dagoz laguntalde bagarik, arerio bagarik be bai. Entzun dagigun **garrantzi andiko alkarrizketa** bat: Jesus'en ikasleak aundikiro onartuko dabe Bera Mesias'tzat. Begira:

Amaitu dau Jesus'ek bere Aitari egin eutsan otoi'tza. Orain, bere ikasleakana bihurturik, itaun au egiten dautse: "Nor nazala diño gizonak?".

Eta ikasleak: "Batzuek, Yon Bateatzaillea; beste batzuek, Elias; eta beste batzuek biztu dan antxiñako igarletariko bat".

Eta Jesus'ek, arei begira-begira jarririk, barrero be itaun au egiten dautse: "Eta zuek, nor nazala diño zue?".

Simon Pedro'k berealaxe erantzuten dautso: "Zu Mesias zara".

Arek bai ikasi dauada ondo kancandar andrearen ikaskizuna Sinismen au eskatzen dau Jaunak aldi guztietako ikasleai. Sinismen orreaz Pedro'k Jesus Mesias'tzat eta Jaungoikoaren Semetzat autortuko dau Eliza osoaren aurrean.

Pedro'ren sinismenari erantzunik, Jaunak **Elizaren buru** egin-go dau:

"Zoriontsua zara, Simon, Jonas'en seme oril, ez dautsu ori aragiak ez odolak agertu-ta, zeruetan dagoan neure Aitak baiño. Nik, barriz, auxe dirautsut: Zu Pedro zara, eta arri orretan bertan jasoko dot nire Eliza, eta lezako (inpernuko) atek ez dabe menperatuko. Zeuri emongo dautsudaz Zeru-erreiñuko giltzak; eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruetan be lotua izango da;

eta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruetan be askatua izango da".

Gero, Jesus'ek bera Mesias edo Jaungoikoaren Bialdua danik **iñori be ez esateko** agintzen dautse. Erria ez dago oraindiño barri andi au artzeko gertu. Kristo'ren mesiastasuna oker ulertzeko arriskua dago.

### Jesus'ek bere Nekaldia iragarten dau.

175. Jesus'ek argi ta garbi agertu dautse bere ikasleai Bera Mesias edo Jaungoikoaren Bialdua dana. Orain beste curreakada barri bat emongo dau. Ez dau itziko Mesias aintzatsu baten eritzia izan dagien; bearrezkoa da Mesias'i buruz egiazko eritzia izan dagien; eta, gaiñera, **bere Nekaldiaren ordua** eldu daitenerako gertu egon daitazan. Orregaitik, argi egiten dautse berba. Eta onetaraxe dautse:

"Gizasemeak oiñaze aundiak eroan bear dauz, eta zaarrak, abade nagusiak eta idazlariak ezetsi egin bear dabe, eta eriotzara galdu; eta trugarren egunean biztu egingo da".

Guztiak arrituta gelditzen dira, eta iñor baiño geiago, Pedro. Onak auxe erantzuten dautso: "Ez orixe, Jauna! **Ez yatzu orrelakorik ezetara be jazokol!**".

Pedro'k be, Aitaren asmoai eragozpenak ipinten dautsezan ezkerro, Jesus'ek gogor erantzuten dautso, deabruaren tentaldiak kentzeko egin eban antzera:

"Alde zakidaz emendik, **Satanas** oril Niretzat okerbide zara, zure bururakizunak ez dira Jaungoikoarenak-eta, gizonenak baiño".

Jaunak argi egin dau berba. Berak gizonak salbatzearren erango ditu nekeak eta ilgo da. Eta, zer eskatzen dautse aldi guztietako bere jarratzaileai? Ez da gaitz jakitea: "**Nire ondotik etorri nai dagiamak** —diño—, **bere gurutzea artu ta jarraitu dais-tala**". Edo bardin dana: artu dagizala gogo onez bizitzak emon dagiozan nekeak, eta alegiñak egin dagizala **nire ikasbideak** beteten.

## Jaunaren irudi-aldatzea.

176. Nekaldiaren barria gogorra izan da apostoluentzat. Eta Bera danez agertzen da, bere gizatasuna Jaungoikotasunaz aldatu-rik. Agerkunde onek, berez, iraunkorra izan bear leuke; baiña Jaunak ori bere biztuera-ondorako gordeten dau eta oraintxe ba-karrik agertzen da.

Geroago, ausnartuko dau Elizeak Jesus'en irudi-aldatze au eta Ebanjelioak aundikiro azalduko dau jazopen au. Ikusi egizu:

177. Ez dagoz aurrean Amabiak. Oriomendi'ko Baratzean (Ortuan) Jaunaren larrialdien lekuko (testigu) izango diran irurak soillik dagoz: Pedro, Santiago ta Yon. Mendi goi batera igoten da arekaz, Tabor-mendira, urrean.

Jesus egiten diardu. Irurak Jesus'en ondoan. Bat-batean, Jaunaren arpegia ta jantziak aldatu egiten dirala ikusten dabe: Aren arpegia eguzkia baizen diztiratsu egiten da, eta Aren jantziak argia baizen zuri.

Ikasleak zorionsu dira. Beste ustebage barri bat: Moises eta Elias agertzen dira, eta Jesus'egaz berba egiten asten dira. **Jerusalem'en jazoko zan Jesus'en eriotzaz diardue berbetan.**

Pedro'k bere zoriona agertzen dau: "Jauna, ederto yaku emen egotea".

Beti toki aretan gelditu nai eban. Eta auxe diño gaiñera: "Nai ba'dozu, iru txabola egingo dodaz emen: bat zeuretzat, bestea Moises'entzat, eta bestea Elias'entzat".

Oraindiño atadian lez gagoz. Bereala, **Aitaren agiri andia entzungo dogu.**

Agerraldi onek, Alkartasun Zaarrean Jaungoikoaren agerpena dakar gogora. Odei argitsu batek estaldu egiten ditu, eta odei aretan Aitak auxe agertzen dau:

### "AU, NEURE SEMEA DA, AUKERATUA; ENTZUN ORRI".

Iru testiguak ikaratu ta auzpaz jausten dira. Jesus'ek, arekana urreraturik, auxe dirautse: "Jagi zaiteze; ez bildurtu". Areik, begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusten dabe.

178. Zer jazo da? Sinai barri bat. Mesias barri bat. Profeta barri bat, eta entzun egin bear yako: Mesias, Aitaren Aukeratua, Aitaren Semea.

Bere bidea bide ona da. Irudi-aldatzean curreteratu zan Pazko-aintzan amaituko da.

Orain, iru ikasleak gertuago dagoz. Menditik beera jatsitean, Jesus'ek auxe agintzen dautse: "Ez esan iñori be ikusitako au, Gizasemea illen artetik biztu arte".

## ITAUNKETA

171. Nor da Jaungoikoaren morroi edo Mesias naigabetua, Alkartasun Zaarrean iragarria?
172. Ze dei egiten dausku orain Jaunak kristauoi?
173. Azaldu egizu kanaandar emakumearen osatzea. Zegaitik egiten dau Jesus'ek mirari au?
174. Azaldu egizu zelan onartzen daben Jaunaren ikasleak, Pedro buru dala, Jesus Mesiaszat. Esan egizu kanaandar emakumeak Pedro'ren sinismenaz daukan aria.
175. Zelan jarten da Pedro Jaunak bere Nekaldia iragarten dautsenean? Zer egin bear dau Jesus'i jarraitu nai dautsanak?
176. Zetarako Jesus'en irudi-aldatzea?
177. Zelan azaltzen dausku Ebanjelioak Jaunaren irudi-aldatzea?
178. Zer iragarten dau Jesus'en irudi-aldatzeak?

## EGITEKOAK


—*Esan egizu Bateoko sinismen-autortzak kanaandar emakumeaz eta Pedro'ren autortzaz daukan aria.*

—*Isaias'en liburuko 42, 1-9 irakurri.*

—*Jaunaren irudi-aldatzeko Meza-ko txatalak ausnartu.*

—*Ormako margozki bat egin, gizonen naigabeak Kristo irudi-aldatuaganantz begira jarri-rik. "Slogan": "Gurutzearen bidez argitara".*

OTOITZ EGIZU: "Jauna, nire bizitzako naigabeetan, emon egidazu zure aintzaren itxaropena".





## 13'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus'ek, gu naigabearen bidez salbatu gaitezala nai dau

179. Jesus'ek, gizon guztiokaz artalde bakarra egin nai dau; Bera izango da egiazko Artzaña Orretarako, bere ikasleak eziteari ekingo dautso, Elizearen gertakizunerako.

Zein izango da jarraitu dautsoenentzako egitaraua\*?

Berba oneitan batu daikegu: "Ikasleak bere Irakaslea lakoa izan bear dau".

Ikusi dagigun Jauna zelakoa dan, eta artu dagigun Bera eredutzat, orain Aren artaldea egiten dogunok.

#### Lenengo bialduak.

180. Jesus, laguntaldea ikustean, erruki yako, nekatu ta jau-siak dagozalako, ardiak artzain bagarik lez. Eta bere adiskideai auxe dirautse:

"Solo-aria ugaritsua, eta langilleak gutxi. Otoitz egiozue, ba, solo-ariaren Jabeari, bere solora langilleak bialdu dagizan".

Eta Jaungoikoaren Erreiñua iragartera bialtzen ditu ikasletari-ko batzuk.

Entzun egizuz Jaunak bere laguntzailleai emoten dautsezan burubide\* batzuk:

"Zoaze Israel-etxeko ardi galduakana, eta iragarri egizue Barri Ona, esanez: Jaungoikoaren Erreiñua urr dago. Ez eroan urrerik, ez zidarrik, ez zorrerik, langilleari lan-saria zor yako-ta. **Bildotsak otso artera lez bialtzen zaituet.** Auzi-epailleen eskuetan itziko zaitue, eta zigorkadak emongo dautsuez. Eta neu nazala-ta, agintarien eta erregeen currea eroango zaitue, arein aurrean nitzaz autor egin dagizuen. Ez arduratu zer esango ete-

\* Egitarau: programa.

\* Burubide: consejo.



-dozuen, esan bear dozuena, une aretantxe emongo ya-tzue-ta. Izan be, berba egingo dozuenak ez zaree zuek izango: zuen Aitaren Espirituak egingo dau berba zuekan. Ez izan bildurrik gorputza ilten dabenai, arimea ezin daikee il-eta. Ni gizonen aurrean autortu nagiana, neuk be **alako autortu egingo dot** zeruetan dagoan **nire Aitaren aurrean**".

181. Jaunaren bialduak barriro etorri ziranean, euren poza agertzen dautsoe Jesus'i:

"Jauna, **zure izenean**, deabruak be menperatu egiten yakuzan".

Izan be, ikasleen ekintzan Satanas'en aurkako **Jesus'en gurenda\*** agertu izan zan.

Jesus'ek erantzun au emoten dautse:

"Oñaztarria lez ikusten neban Satanas zerutik jausten. Baiña ez zaitez poztu deabruak zeuen menpean dagozalako; poztu zaitez, osterá, zuen izenak zeruan idatzita dagozalako".

#### Aukeratua izan nai dozu?

182. Jesus'en Erreñuan Berak artzen dau aurrea, Berak egiten dau dei; Berak aukeratzen dau. Nortzuk aukeratzen ditu?

Aitaren Naia, Jaungoikoaren Erreñuko misterioa apalá agertzea da.

Jesus'ek, **Aitaren Egintza**, gizonai buruzko **Aitaren Naia** auznartzen diardu, eta, pozez beterik Aitari dirautso:

"Bedeinkatu egiten zaitut, Aita, zeru-lurren egille ori, gauza oneik jakintsuá ta zuurrai estaldu ta txikiá agertu dautsezuzalako".

Beste bein, ikasleak Jesus'egana urreratu ta auxe itauntzen dautsoe: "Nor da andiena zeruetako Erreñuan?"

Jaunak ume bati dei egin, a erdian ipiñi ta auxe erantzuten dautse:

"Benetan dirautsuet: aldatu ta **umetxoan antzekoak** egiten ez ba'zaree, **ez zaree zeruetako Erreñuan sartuko**. Beraz, ume au lako apalá egin daitena, orixe da nagusiena zeruetako Erreñuan".

Aukeratua izateko... Zer bear da aukeratua izateko? Umeen-biotzean dagoan guzti au: txikitasuna, apaltasuna...

\* Gurenda: victoria.

#### Jesus'en ikasleak esku-zabalak izan bear dabe.

183. Jauna joan doa. Norbaitek, Aregana urreraturik, itaun au egiten dautso:

"Irakasle on, zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?"

Eta Jesus'ek **"Bizitzan sartu** nai ba'dozu, bete egizuz aginduk"

Eta agindu batzuk izentatzen dautsaz.

"Bete dodaz nik agindu guztiok —erantzuten dautso gazteak—. Zer ez dot oraindiño?"

Jauna aregana **begira-begira** jarten da. Biotzean beste jarraibide bikain bat jarriko dautso:

**"Guztiz bikaiña** izan nai ba'dozu, zoaz, daukazun guztia saldu ta emon egiezu beartsuá, eta **zeruetan** ondasuna (dirutza) eukiko dozu; gero, etorri zaitez eta jarraitu egidazu".

Gelditu gaitzean eta ikusi bata besteari begira dagozan arpegi biak: Jesus'ena eta gaztearena.

Gaztearena aldatu egin da bat-batean: **itun (triste)** jarri da. Gazte onek aberastasun asko ebazalako da ori; orixe diño Ebanjelioak.

Eta gaztea ez da esku-zabala; **Jesus bertan-beera itzi** eta alde egiten dau. Aukeran eta patxadaz bizi izatera doa barriro; biotza bizikera orri lotuta dauko.

Orduan, Jesus'ek auxé diño:

"Nekez sartuko da aberatsa zeruetako Erreñuan".

#### Jesus'en ikasleak besteen serbitzari izan bear dabe.

184. Yon eta Santiago'k, Zebedeo'ren semeak, ez dabez ondo ulertu Irakaslearen ikaskizunak. Euren amaren bidez, Jesus'egana jotén dabe.

"Zer nai dozu? —itauntzen dautso Jesus'ek arein amari—. Eta amak: "Nire seme biok, zure Erreñuan, bata zeure eskumaldean eta bestea zeure ezkerrekaldean jesarri daitetzala agindu egizu".

Jesus'ek, amai biakana biurturik, auxe dirautse:

"Ez dakizue zer eskatzen dozuen. Nik edan bear dodan edontzia, edan daikezue zuek?"

Areik, adoretuta,

"Bai, **edan daikegu**", erantzuten dautsoe.

Eta Jesus'ek: "Nire edontzia edango dozue, bai; baiña, nire eskumaldean naiz ezkerrealdean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik: neure Aitak atondu dautsenentzat da ori".

Berealaxe dator Jesus'ek apostoluari emon nai dautsen ikaskizuna:

"Ba-dakizue errietako agintariak erria euren menpean daukena, eskubide osodun jaunak lez, eta aundiak erria nausikeriz erabilten dabena. Zuen artean, barriz, **ez da orrela izan bear**, bestetara baiño: zuen artean aundi izan nai dagiana, **zeuen serbitzari izan daiteela**".

Eta Bere burua jarten dau eredutzat:

"Gizasemea be ez zan serbitzariak eukitera etorri, serbitzari izatera eta bere bizia askoren alde ordaintzat emotera baiño".

### Kristo'ren ikasleen saria.

185. Egun baten, Pedro'k Irakasleari auxe esan eutsan samurkiro:

"Guk guztia itzi ta **Zeuri jarraitu dautsugu**: Zer artuko dogu, ba, saritzat?".

Jaunak onetaraxe erantzuten dautso:

"Zeuek be amabi aulkitan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko".

Gero, guztiontzako erantzuna emoten dau:

"Eta etxeak, anai-arrebak, aita, ama, seme-alabak, naiz etxaldea, **neure izenagaitik** itzi dauzanak, eun bi dar geiago artu ta betiko bizitza jadetsiko dau".

### Ikasle batzuen aparteko eskubideak.

186. Jesus'ek, Eliza eratzeko arduraz, gerokoaz pentzatzen dau. Bere ikasleen artetik amabi aukeratu ditu, Israel'go amabi

jatorriak lez. Onei, aparteko eskubide batzuk emoten dautsez, escanez:

"Benetan dirautsuet: lur-gaiñean lotu dagizuen edozer, zeruan be lotuta geldituko da; eta lurrean askatu dagizuen edozer, zeruan be askatuta geldituko da".

Olan, astiro-astiro, Jaunak bere egintza burutzen diardu.

### Jauna zeure erantzunaren zain dago.

187. Jaunak auxe itauntzen dautsu: Nai dozu abade, praille, moja izan?

Nai dozu misioetara joan?

Nai dozu apostolutza egin?

Nai dozu sendi (familia) bat santutu?

Emon erantzuna: Ondo urtengo yatzu? Txarto? Ez aaztu Ebanjelioko gaztearen erantzunaz.

### ITAUNKETA

179. Esan labur-labur Jesus'en ikasleak zelakoak izan bear dauan.
180. Zegaitik dautso erruki Jesus'ek laguntaldeari? Zeintzuk dira Jesus'ek, bere ikasleak Barri Ona iragartera bialtzean, emoten dautsean burubideak?
181. Zertaz poztu bear da Jaunaren apostolua?
182. Zelakoak bear dogu izan Jaunak aukeratu gagizan?
183. Azaldu egizu gazte aberatsari jazo yakona. Zegaitik **izten dau bertan-beerra Jesus?** Zer irakasten dausku Jesus'ek gazte oni buruz?
184. Azaldu egizu Zebedeo'ren semeai jazo yakena. Ze ikasbide emoten dausku Jesus'ek une orretan?
185. Ze sari agindu dautse Jesus'ek Berari jarraitzen dautsoenai?
186. Zeintzuk dira Jesus'ek ikasle batzui emoten dautsezan aparteko eskubideak?
187. Ausnartu egizu Elizan dozun aparteko deia.

### EGITEKOAK


—*Idatzi ta azaldu urrango esanaldi au*: "Azeriak euren gordelekuak daukez, eta zeruko egaztiak apiak; Gizasemeak, barriz, ez dauko burua nun ezarririk". (Ikusi Mt. 8, 18-22).  
—*Billatu "Apostoluen Egiñak"*

*izeneko liburuan, Elizea zelan erabilli eben aurrean.*

—*Azaldu egizu santuren baten odol-isurtea (martirioa).*

—*Egizu idatz-azalpen bat onetzaz*: "Nire bizikera izan bear leukena".

OTOITZ EGIZU: "Jauna!, lagun egidazu neure bidea ikusten!".



## 14'GARREN IKASKIZUNA

### Gizon guztiok zerurato gaitetzala gura dau Jesus'ek

188. Jesus, askoren alde bizia emoteko agertu da Mesiaszat. Mundua salbatzeko eukeratu ditu bere ikasleak. Pekatua Jaungoikoaren Erreñuaren aurka dago.

Eta guk itaun au egiten dauzagu gure buruari: Ze jokabide artuko ete-dau Jaunak pekatuari buruz?

Orrialde oneitan ikusiko dogu: Jaunak ez dau pekatariaren eriotzarik nai, biurtu ta salbatu daitela baiño.

#### Jesus'ek parkatu egiten dau.

189.—Ebanjelioak, Jesus une askotan agertzen dauzku parkatzen. Bi aukeratzten doguz:

##### 1) Zaqueo.

Jauna Jeriko'n dago eta laguntaldeak inguratzen dau.

Zakeo'k, zerga-batzaillen buru ta gizon aberatsak, Jesus ikusteko gogo bizia dau; baiña gorputzez txikia dan ezkeru, bere aurean dagoan laguntalde aregaitik ezin dau Jesus ikusi.

Zakeo ez da kikiltzen. Aurreratu ta zugatz (arbola) batera igoten da. Jaunak, toki aretara eltzean, **Zakeo'ri begira jarri** ta auxe eskatzen dautso:

"Zakeo, jatsi arin: gaur zeure etxean gelditu bear dot-eta".

Zakeo'k, beingo baten jatsirik, poz-pozik artu eban bere etxean. Kanpokaldean mormoxetan diardue:

"Pekatari baten etxea artu dau ostatutzat".

Etxe-barruan, errukia dan Jesus dago.

"Jauna —dirautso Zakeo'k—, nik nire ondasunen erdia beartsuai emongo dautset; eta norbaiti zerbait bide txarrez kendu ba'dautsat, lau alako biurtuko dautsat".

Jesus'ek ari begiratu ta auxe dirautso:

"Gaur etorri da osasuna (salbaziñoa) etxe onetara, au be Abraham'en semea da-ta".

## 2) Emakume pekataria.

Jauna Eliza Nagusia dago. Oriomendi'tik etorri da, gaua an igarota. Erriak Jesus'en Barri Ona entzuten diardu.

Baiña onetan, idazlari ta pariseuak ezkontza austen artutako emakume bat daroe Aren aurrera.

"Irakasle —dirautsoe—, emakume au ezkontza urratzen aurkitu dogu agiri-agiritan. Onelako emakumeak arrika ilteko agindu euskun Legean Moises'ek Zer diñozu zuk?".

Ari arrika ez egiteko esaten ba'dautse Jesus'ek, Legea ez daua la beteten eta pekatarien lakunkide egiten dala salatuko dabe.

Ari arrika egiteko agintzen ba'dau, auxe esango dautsoe: Non da zure errukia?

Jesus'ek, makurturik, atzamarraz lurrean idazten asten da. Areik, barriz, ziri ta ziri. Orduan, zutundu ta auxe dirautse:

"Zuen artean pekatu bagarik egon daitenak, jaurti dagiola lenengo arria".

Eta barrero makurturik, idazten diardu.

Berbok entzutean, banaka-banaka alde egiñez yoiazan, zaarretarik asita.

Jesus'ek **erruki-ikaskizun** bat damosku. Parkatzera ta salbatzera etorri da.

Gero, zutundurik, emakumeari auxe itauntzen dautso:

"Ez zaitu inok be galdu?".

"Inok be ez, Jauna"—erantzuten dau arek.

"Neuk be ez zaitut galduko —dirautso Jesus'ek—.

**Zoaz, eta ez egin pekatuak aurrerantzean".**

Jaunak ikaskizun argi bat be emoten dau pekatuaren gaiztakeriari buruz:

**"Eta, aurrerantzean, ez egin pekatuak".**

San Agustin'ek azalpen labur au egiten dau: "Gizona parkatu egiten dau; ez, ostera, pekatua".

## Jesus'en jokabidea pekatariari buruz.

190. Pariseuak (bananduta) Jesus salatu egiten dabe:

"Orrek pekatariak onartu eta eurakaz jaten dau".

Baiña Jesus'entzat, pekatariakaz jateak Jaungoikoaren Erreina eurokaz astea adierazoten dau.

Pekatarari buruz zuzen jokatzan daua jakifierazoteko, Erruki-izena daben ipuiñak azaltzen ditu.

## 1) Seme ondatzaillea.

Gizon batek seme bi ditu; bata, nagusia, langille azkarra, aitari zintzo lotuta dagoana; bestea, gazteena, zori-zalea\*, diru-ondatzaillea.

Egun baten, bigarren semeak aitagana joan eta ba-dirautso:

**"Aita, emon egidazu ondasunetarik dagokidan zatia".**

Aitak, biotza miñez beterik, emon egiten dautso zatia; eta, egun batzuk geroago, an **doa** semea **bere ondotik** urruneko errialde batera.

Errialde aretan **nasaikeri utsetan** bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgiten dauz. Orduan, gosete gorria sortzen da errialde aretan, eta, besterik ezean, txarizain asten da. "Eta txarriak jaten ebezan ezkurrez bete gura eban sabela, baiña ez eutsazan inok emoten".

Lotsaz beterik, bertan-beera itzi eban aita ekarten dau gora:

"Jagi ta neure aitagana joango naz, eta auxe esango dautsat: 'Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka eta zure aurka. Nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez'".

\* Zori-zale: aventurero.

**Aita aren zain dago**, noiz biurtuko dan itxaroten; inoiz be ez da aretzaz aaztu. Egun baten, bere barrua dardar asten da. Bere semea etxera biurtzen da, urrunetik igarten dautso. Eta bidera urteten yako ariñeketan. Semeari samatik eldu, besarkatu ta laz-tan luze bat emoten dautso. Semeak lengoa dirautso:

"Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka eta zure aurka. Nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi".

Baiña aitak agindu au emoten dau:

"Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena ta jantzi egiozue; **eraztuna eskuan** eta sandaliak oiñetan **ipiñi egiozuez**. Zekor gizona ekarri ta il egizue. **Jan eta jai egin dagigun**".

**Seme nagusia**, etxera biurtzean eta bere etxean ospatzen dan jaiatz konturatzean, bere morroietariko bati dei egin eta zer jazoten dan itauntzen dautso. Morroiak guztia azaltzen dautso. Orduan, **seme zintzoak**, asarratuta, ez dau etxean sartu nai. Eta aita etorri bear, jaiatz parte artu dagiala eskatzen:

"Onenbeste urtetan —dirautso semeak aitari— morroi nakizu, eta ez dot egundo zure agindurik ausi; olan be, antxume bat be ez daustazu inoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko. Eta zure ondasunak emagalduekaz eralgi dauzan zure seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizona il dozul".

Baiña aitak auxe erantzun eutsan: "Seme, zu beti neugaz zagoz, eta nire guztia zeurea da; egoki zan, ba, ospatu ta poztea: zure anai au ilda egoan, eta bizitara biurtu da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta".

Guretariko nok ez dau izate ori bizi? Izan be, edozein biurtzek edo onbideratzek **pozez beteten dau gure Aita** dan **Jaungoikoa**.

## 2) **Ardi galdua ta drakma galdua.**

Artzain batek eun ardiko artaldea dauko; baiña egun baten, areik zenbatzean, bat gutxiago daukala ikusten dau: **ardi bat galdu da**.

Zer egingo ete-dau artzain onak? Nasai-nasai geldituko ete-

da galdu dana bat bakarrik dalako eta larogeta emeretziakaz gelditzen dalako?

Ez. Larogeta emeretziak an itzi, eta **galdutakoaren billa doa**; eta ez da gelditzen a ikusi arte. Orduan, **pozez beterik** jarten da bere arpegia. Aregana ariñeketan joan, besoetan artu ta bere lepoan artzen dau. Etxera eltzen danean, adiskide ta auzokoi dei egin eta ba-dirautse:

"Poztu zaiteze nigaz batera, ardi galdua aurkitu egin dot-eta".

Bardin jazo yakon drakma diru bat galdu yakon emakumeari be: aurkitzen dauanean, pozez beterik barria bere adiskide ta auzokoi esatera doa.

Ba-daki Jesus'ek Aitaren poza pekatariak biurtzerakoan, eta orregaitik, ipuin biok amaitu ondoren, auxe diño: "Orrelaxe pozten dira Jaungoikoaren aingeruak garbatzen dan pekatari bategaitik".

## **Parka-eskatzeak apala izan bear dau.**

191. Parkatzea lortzeko, apaltasunez joan bear da Jaunagana. Ori, **pariseuen eta zerga-batzaillearen** ipuiñaz irakasten dausku Jesus'ek.

Gizon bi Eliza Nagusira doaz otoitz egitera: bata, pariseua, agiriz onak ziranetarikoa; bestea, zerga-batzaillea, agirizko pekatarien ordezkaria.

Pariseua, arropuztuta, bere otoitza egiten dau; besteen pekatuak eta bere egintza onak darabiz gogoan:

"Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoiko orri, beste gizonen antzera lapur, zuzenbage eta ezkontzannaastaille ez nazalako, ezta **zerga-batzaille** ori lakoa be. Aste oro birritan egiten dot barau; nire irabazi guztien amarrenak emoten dodaz".

Pariseuaren otoitz arroaren ondoan, zerga-batzaillearen otoitz apala ta mingarritsua agertzen yaku; an ezkutuan dagoala, begiak zerura jasoteko be ez dau arpegirik:

"Erruki zakidaz, Jaungoiko ori, pekatari naz-ta".

Eta begira Irakasleak dirauskun au:

**"Azkenengo au bere etxera zintzotuta biurtu zan; ez, ostera, bestea".**

192. Jaungoikoak ez daukuz zorrak parkatzen geuk be gure zordunai parkatzen ez ba'dautseguz. Jaunak ori **morroi biotz-gogorren** ipuiñaz irakasten dauku:

Errege batek bere morroia kontuak garbitu nai dautsez. Dirutza aundia zor dauksan bat datorkio; baiña ezin dau ezer ordaindu. Orduan, morroia, onen emaztea ta seme-alabak eta eukan guztia saltzeko ta zorra ordaintzeko agindu eban ugazabak. Agindu ori entzutean, morroia auzpaz jarri yakon:

"Jauna, itxaron egizu, eta guztia ordainduko dautsut".

Erregeak, aretzaz errukituta, zor guztia parkatu eutsan. Morroia pozez beterik urteten da andik, eta ordain pizka bat zor dauksan bere morroi-lagun bat aurkitzen dau. Itobearrez ari eldu ta auxe dirautso:

"Ordaindu egik zor doana".

"Itxaron egidak, ordainduko dauat-eta" —dirautso erreguka baten.

Baiña besteak ez dau nai **bere lagunaren erregua** entzun be egiterik; a salatu ta giltzapean sarrerazoten dau, zorra ordaindu arte.

Erregeak, morroia egikera biotz-gogorra jakitean, dei egin eta ba-dirautso:

"Morroi gaizto ori!: zor guztia parkatu euan nik iri, ik erreguz eskatu eustalako. Ez ete-euan, ba, bidezko euk be ire morroi-lagunari erruki izatea, neu be iretzaz erruki izan nintzoanez?"

Eta giltzapean sartzeko agintzen dau, zor guztia ordaindu dagian arte.

"Orixe egingo dautsue zeuei be zeruetako nire Aitak, baktzak anaiari biotzez parkatzen ez ba'dautso".

193. Ikusi dozu Jaungoikoaren Errukia Jesukristo'gan. Erruki negurri-bagea da: ez dakigu nun asten dan eta nun amaitzen dan:

"Ez naz zintzoai dei egitera etorri, pekatariaci baiño".

Zure pekatuak asko izanarren be, jarri egizu Jaunagan ustea eta Berak salbatuko zaitu.

#### ITAUNKETA

188. Zer eskatzen dautse Jaunak pekatariaci?
189. Azaldu egizu Zakeo'rena. Eta emakume pekatariarena.
190. Azaldu egizu seme ondatzaillearen ipuiña. Azaldu egizuz ardi galduaren eta drakma galduaren ipuiñak.
191. Azaldu egizu pariseuaren eta zerga-batzaillearen ipuiña. Ze ikaskizun nai dauku emon Jesus'ek ipuin oneaz?
192. Azaldu egizu morroi biotz-gogorren ipuiña. Ze ikaskizun nai dauku emon Jesus'ek ipuin oneaz?
193. Nogan jarri bear dogu ustea gure pekatuak asko izanarren?

#### EGITEKOAK

—Jarri parean pariseuen jokabidea Jesus'ek pekatuak parkatzen dituanean, eta Seme Ondatzaillearen ipuiñeko seme nagusiaren jokabidea.

—Osotu urrengo esanaldiok:

Erruki-ipuiñak izenekoetan:


- a) (Semea, ardia, drakma) dira galtzen diranak.
- b) (Semea, ardia, drakma) dira aurkitzen diranak.
- d) (Aita, artzaina, emakumea)

dira persona garrantzitsuak.  
e) (Poz andia) artzen da (galdutakoa aurkitzean).  
f) (Pekatori damutuaren aurrean, Aitaren eta bere Kristo'ren Biotza) erakusten yaku.

—Idatzi ta argitu marrazkiren batz Lukasek Ebanjelioan diñoa: Luk. 17, 3-4.

—Otoitz bat eratu pekatuen parkamena eskatzeko.

OTOITZ EGIZU: "Damu dot, Jauna, biotz-biotzez Zu iraindu izana".



## Bere Aita lakoa dala agertzen dau Jesus'ek

194. Ikasleakaz Jaunari jarraitzean, auxe entzun dogu: Jesus "etorteko zan Profeta", "Mesias", "Jaungoikoaren Bildotsa", "Giza-semea" dala.

Eta itaun au egiten dautsagu gure buruari: Nor da izatez Jesus?

Kristo biztuaren lekuko (testigu) dan Yon'ek argituko dausku bere Ebanjelioan: "**Jesus, Jaungoikoa da**".

### Jesus Txabola-egunean.

195. Txabola-eguna ospatzen diardue Jerusalem'en. Egun onetan, Israel'ek Ejipto'tik urtendakoan basamortuan egin eban egonaldia gogoratzen da. Jai oso alaia da; aste osoan ospatzen dabe, Iraillaren azken-egunetarik Urrillaren lenengo egunak arte. Ara eltzen diranak eskerrak emoten dautsoez Jaungoikoari artu dabezan frutuakaitik, eta euria eskatzen dautsoe datorren solo-arogaitik. **Guztiak, Mesias-aldia eldu daitela nai dabe.**

Pazkoaz urrengo jairik aundiema dan jai onetan, URA ta AR-DAOA dira gairik garrantzitsuenak:

- Eliz-bira bat egiten dabe, Siloe'ko urtegitik ura jaso ta altar-an botateko.
- Eliza Nagusia argitu egiten dabe.

196. Ez da oraindiño Jesus Jerusalem'era etorri. Ori dala-ta, esamesaka diardue. Batzuek ona dala diño; beste batzuek, ostera, erria naasten diarduala. Jesus eldu eta irakasten asten da. Azkenengo egunean, egunik aundienean, deadarka diño:

"Iñor egarri ba'da, neugana etorri ta edan da-giala".

Eta beste bein:

"Neu naz munduaren Argia; niri jarraitu daistana, ez da illunetan ibiliko".

197. Eta, pariseuakaz eztabaidan, beste au diño:

"Ez ni ezagutzen nozue ez nire Aita; ni ezagutu ba nengizue, neure Aita be ezagutuko zeukee".

Izan be —Yon ebanjelariak irakasten dauskunez—, Aita ta Jesus Jaungoikoá bera dira, Jaungoiko bakarra.

**Nire itsu-erantzuna: "Sinisten dot, Jauna".**

198. Jesus bere ikasleakaz doa. Itsu bat aurkitzen dabe. Jesus'ek txistuaz lokatza apur bat egin eta begiak igurtzen dautsaz. Eta auxe dirautso: "Zoaz, eta garbitu zaitex Siloe'ko urtegian (Siloe itzak "Bialdua" adierazoten dau). Itsua joan, garbitu ta ikusten eba-la etorri zan barriro. Baiña Jesus'ek alde egin eban andik.

Osatzea zapatuz egin zan; atsedeen-egunean egin dau dana eta itsu baten begiak edegi ditu. Orregaitik, pariseuak alkarren artean bananduta dagoz.

Batzuek: "Gizon ori ez dator Jaungoikoagandik, zapatua ez dau gordeten-eta".

Beste batzuek, ostera: "Zelan egin daitez pekatari batek ola ko mirariak?".

Eta itsuari itaun au egiten dautsoe: "Zer diñozu zuk gizon orretzaz?".

**"Profeta bat dala"** —erantzuten dautse.

Itsuaeren gurasoak ekarten dabez, semea itsua zan ziur jakitako.

"Ba-dakigu au geure semea dana —erantzuten dautsee gurasoak— eta itsu jaió zana".

Barriro egiten dautsoe dei eskekoari. Aurrez-aurre, arima lau bat eta "illobi zurituak". Lenengo berbetatik agertzen da arein erabide okerra: "Emon egiozu aintza Jaungoikoari. Guk ba-dakigu gizon ori pekatari bat dana".

Eskekoak erantzun adoretu bat emoten dautse, eta ori dala ta sinagogatik kanpora jaurtia izango da.

**"Ori Jaungoikoagandik ez ba'letor, ezin ezer egin leikeam".**

Jesus'ek ez dau sinagogatik jaurtia izan dana bertan-beera izten; eta aren billa doa.

"Sinisten dozu zuk Gizasemeagan?" —itauntzen dautso.

"Eta nor da ori, Jauna, beragan sinistu dagidan?" —erantzuten dautso osatuak.

Gizon biotz-apal oni Jesus'ek auxe dirautso: "Ikusi dozu zuk A; zeugaz berbetan diarduan auxe berau dozu".

"Sinisten dot, Jauna", diño eskekoak, Jesus'en aurrean auzpazten dan artean. Jesus'ek ikusmen bikotxa emon dautso: argiarena ta sinismenarena.

"Sinisten dot, Jauna —esan dagigun geuk be—. Zeu zara Jaungoikoaren Bildotsa, Jauna Aregaz".

**Jesus bere bizia gizonaren alde emoteko gertu.**

199. Jesus'ek, bere eriotzari begira, bere burua Ezekias'en Jaungoiko Artzainagaz bat egiten dau (Ez. 74).

"Neu naz artzain ona —diño—. Artzain onak bere bizia ardien alde emoten dau. Ardien jabe ez danak, otsoa etorten ikustean, ardiak bertan-beera itzi eta iges egiten dau. Otsoak ardiai eldu eta sakabanatu egiten dauz.

Neu naz artzain ona; ezagutzen dodaz nik nire ardiak eta neureak be ezagutzen nabe ni. **Nire bizia ardien alde emoten dot.**

Ba-dodaz artalde onetakoak ez diran beste ardi batzuk be; orreik be eroan egin bear dodaz eta entzungo dabe nire abotsa; artalde bakarra izango da, Artzain bakarra".

**Jesus Eskintza-egunean.**

200. Negua da. Lotazilla (Abendua). Eskintza-eguna ospatzen da Jerusalem'en: Eliza Nagusiaren garbikundea eta Judas Makabeo'ren egunetan egin zan altara barria gogoratzen dira. Jai au ez da Txabola-eguna lako andia, eta ez dago lagun askorik. Jesus Salomon'en aterearen ibilli dabillen artean, batzuek zirikatatu egiten dabe: **"Zu Mesias ba'zara, esan egiguzu argi ta garbi"**.

Eta Jesus'ek: "Esan be egin dautsuet, baiña ez daustazue sinisten. Aita ta ni bat gara".

Ori entzutean, judarrak birao egin dauala uste dabe, eta arri-ka egin nai dautsoe:



"Arrika egin nai dautsugu, zu gizona izanik, zure burua Jaungoiko egiten dozulako".

Baiña Jesus'ek alde egin dautse eskuetatik. Perea'ra doa, Jordan-ibaiatz bestekaldera, eta antxe gelditzen da ia iru illebeta.

### Jesus'en eriotza erabagiten da.

201. Lazaro, Jesus'en adiskide bat, Betania'n il da; auzuna au Jerusalem'dik iru kilometrorra dago. Jaunak ba-ekian aren geisoa. Marta'k eta Mari'k, ildakoaren arreba biak, negar baten dagoz. Onetan, Jesus eltzen da. Marta'k, Aregana joanda, "Jauna —dirautso—, emen egon izan ba'zintzaz, nire nebea ez litzakean ilgo. Oraintxe be ba-dakit, orraitino, Jaungoikoari eskatu dagiozun edozer, Jaungoikoak emon egingo dautsuna".

Eta Jesus'ek: "**Biztuko da** zure nebea".

"Ba-dakit biztuko dana azken-egunecan, biztueran" —dirautso Marta'k.

Orduan, Jesus'ek bere burua agertzen dau:

"**Neu naz biztuera ta bizitza.** Neugan sinisten dauana, illarren be, bizi izango da; eta nigan bizi ta sinisten dauana, **ez da inoiz be ilgo**".

Marta'k, etxera bihurturik, Mari'ri ba-dirautso: "Irakaslea or-txe dago, eta **dei egiten dautsu**".

Mari'k, ori entzutean, bat-batean jagi, Jesus'egana joan, oiñetan auzpaztu eta auxe dirautso: "Jauna, emen egon izan ba'zintzaz, nire nebea ez litzakean ilgo".

"Nun jarri dozue?" —itauntzen dau Jesus'ek.

"Etorri ta ikusi", erantzuten dautsoe.

Eta Jesus'ek negar egiten dau.

Gero, illobira doaz, eta Jesus'ek gaiñeko arria kentzeko agintzen dau. Orduan Marta'k ba-dirautso: "Jauna, onezkero atsa dario, lau egun dira il zala-ta". Eta Jesus'ek:

"Ez dautsut esan, ba, **sinisten ba'dozu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?**".

Eta Jesus'ek, Aitari otoitz eginda gero, deadar andi bat egin eban: "Lazaro, urten kanpora!" Eta Lazaro urten egin zan, esku-oiñak zapiz lotuta eta arpegia miesaz batuta.

Eta Jaunak: "Askatu ta itzi ibilten".

202. Lazaro'ren biztueraz, an egozatariko askok Jesus'egan sinisten dabe. Batzuek an jazo zana pariseuai azaltzen dautsee;

eta oneik batzarra egin eta Jesus'i eriotza emotea erabagiten dabe.

Jauna orren jakitun egin eta Betania'tik alde egiten dau. Efren'era doa, basamortu-ondora, eta antxe igaroko ditu egun batzuk bere ikasleakaz.

### Jesus'en azken-joanaldia Jerusalem'era.

203. Judarren Pazkoa laster zan. Erromesak uri santura dotoz. Etorriko ete-da Jesus jai-egunetara?, dirautsoe alkarri. Jerusalem'en agindu au emon dabe: Jesus nun egon zeitekean inok ba'leki, agertu egiala, Ari eltzeko.

Jauna Jerusalem'era dator; amabietariko batek salatu egingo dau: Jesus lotu ta il egingo dabe.

204. Epailaren azken-egunak dira. Jesus'ek Jerusalem'era joateko asmoa dau, Berak be jaitan parte artzeko. Izan be **Jai Barritara** doa, **Pazko Barritara**. Baiña ez dau biderik laburrena artzen: lenengo, Betania'ra joango da, oraintsu Lazaro biztu eban tokira.

Oinkada adoretua daroa, bere ikasleen aurrean. Oneik ikaratuta eta arduratsu doaz. Onekana biurtu eta bere Nekaldia **oso urr dagoala** dirautse:

"Begira: Jerusalem'era igoten diardugu, eta Giza-semeari buruz Profeten bidez idatzita dagoan guztia beteko da. Izan be, jentillen eskuetan itzia izango da; iraindu ta txistua jaurtiko dautsoe, eta zigorkadaz astinduta gero, gurutzean josiko dabe; eta **irugarren egunecan biztu egingo da**".

Baiña apostoluak ez eben ulertu ondo berba orrein indarra.

### Betania'ko usaingarri-isurtea.

205. Pazkoa baiño sei egun lenago, Jesus Betania'ra eltzen da. **Bere ordua oso urr dago**.

Simon legenardunak aparitara egin dautso dei, eta Jesus bere ikasleakaz doa. Apari-lagunen artean Lazaro biztua be ba-dago. Mari'k, libra bat akara-usaingarririk onenatarikoa artu eta Jesus'en buru-gaiñera ta oiñetara isurten dau. Orrela, aurretiaz egiten dau illobiratzeko igurtzia.

Ango batek, Judas Iskariote'k, ez dau ori ontzat artzen: "Zegaitik ez da saldu usaingarri ori, ordain-saria txiroai emoteko?".

Judas'ek ez dau txiroen ardurarik; baiña lapurra da, eta diruzorroa berak daukan ezker, aal eban guztia beretzat artzen dau.

206. Jesus Betania'n egoala jakin ebenean, judar askok araxe jotzen dabe: Jesus ikustearren bakarrik ez, illen artetik biztuzan eban Lazaro ikusteko be bai.

Abadeburuak Lazaro be iltea erabagi dabe: au dala-ta, judar askok Jesus'egan sinisten eben-eta.

Jaunari ordua eldu yako: ildakoa bizia emon daikeen A, oiñazetan egon eta il egingo da. Geure alde emongo dau bizia, Jainko-semeen bizia emon daiskun.

#### ITAUNKETA

194. Zer argitzen dausku Yon'ek bere Ebanjelioan Jesus'i buruz?
195. Azaldu egizu Txabola-jaiia.
196. Zer diño Jesus'ek Txabola-egunean?
197. Zer agertzen dausku Jesus'ek pariseuakaz dauan eztabaidan?
198. Azaldu egizu jaiotez itsua zanaren osatzea.
199. Nogaz egiten dau bat Jesus'ek bere burua bere eriotzari begira? Azaldu egizu Artzain Onaren ipuñia.
200. Zer jazoten yako Jesus'i Eliza Nagusiaren Eskintza-egunean?
201. Azaldu egizu Lazaro'ren biztuera.
202. Ze erabagi artzen dabe pariseuak Lazaro'ren biztuera dala-ta?
203. Zer itauntzen dabe Jerusalem'en, Pazko-egunerako datozanak?
204. Zer iragarten dautse Jesus'ek bere ikasleai Jerusalem'erako bidean?
205. Azaldu egizu Betania'n Jesus'i egin eutsoen usaingarri-isurtea.
206. Zegaitik erabaqiten da Lazaro'ren eriotza be?

#### EGITEKOAK

- Irakurri Mikeas 5, 3; Ezekiel 34; Zakarias 13, 7-9. Eta, bertako txatalak artuta, egin idatzlan bat "Jaungoikoa, Mesias, Artzainia" izenpurutzat izanik. Igarpen edo profezia orreik Kristo'ri ezarri.
- Ikaskizun onen jazopenak go-goan izanik, oioitz bat eratu,

*Jesus Jaungoikotzat onartzen dala.*

- Ormake margozki bat egin "slogan" oneaz: "Bizitza emoten dauan ura naz ni. Jesus basamortu baten.
- Ormake margozki bat egin "slogan" oneaz: "Gizonen argi naz ni". Jesus toki illunpe baten.

OTOITZ EGIZU: "Sinisten dot, Jesus, Zu ta Aita/Jaungoikoa bera, Jaungoiko bakarra zareena".

#### d) SALBAZIÑO-MISTERIOA: JAUNAREN ERIOTZA TA BIZTUERA.

#### SARRERA

207. Alkartasun Zaarreko gizon ospetsu guztiak, etorteko dan Mesia'i begira dagoz: Adam, Abraham, Jakob, Jose, Juda, Dabid, Salomon, Jeremias, Isaias, Ezekiel, Mikeas, Zakarias...

Batzuek eta bestetuek euren eratarata ikusi dabe: Satanase'n erreñuaren ondartzaille lez; Erregea, Jaungoikoa gugaz; Argia illunpeen erdian; Jainko-Erriaren Artzainia; Yabe'ren morroia geure pekatuak lepoan daroazala; txiroa; ezpataz zulatua; eriotzaren ondartzaillea; erruki-Epaillea eta erri ugaritsu baten Buruzagi lez.

208. Ezaugarri orreitarik asko ikusi dogu Jesus'egan beronen jaiotza ezker, Nazaret'eko bizitza ezkutuan eta, batez be, bere agirizko bizitzan: Jesus'ek deabruen aurka diardu; bere berbak jentillentzat argi dira; Bera da Artzain Ona; txiroen alde mirariak egiten di-

tu; pekatariak be parkatu egiten ditu.

209. Baiña beste igarpen edo profeziak be bete egin bear dira: Jesus'ek oiñazeak eta eriotza eroan bear ditu gure pekatuakaitik; eta bizitzara biurtu bear dau barrero, aintzatsu ta irabazle, guri bere Bizitza biztua emoteko eta gu Jainko-semeen etxean batzeko.

210. Eriotzaren eta Biztuerearen bidez, Jesus gizon guztien egiazko Salbatzaille egiten da, munduaren azkenerarte. Orregaitik, urrengo ikaskizunetan, maitasunez eta begirunez, Jesus'en istoriako azken-jazopenak ikusiko doguz.

Izan daiguzala sartuta gudan antxiñako kristau-ereserki onen biozkadak:

"Zeure gurutzea gurtzen dogu, Jauna, eta zeure Biztuera santua goratzen eta ospatzen dogu:

egur orren bidez etorri zan poza mundu guztira-ta".

## ITAUNKETA

207. Zelan ikusi dabe Mesias Alkartasun Zaarreko gizon ospetsuak?  
208. Zeintzuk igarpen edo profetia bete dira Jesus'egan, ikasleai zuzendutako bere Eginkizunaren azkenera eltzean?  
209. Beste profetia batzuk be bete bear ete-dira?  
210. Zelan egiten da Jesus egiazko Salbatzaille?



## 16'GARREN IKASKIZUNA

# Jesus, gu salbatzearren, Jerusalem'era igoten da

## Abar-igandea

211. Jesus'ek auxe esan izan eban:

"Gari-garauna lurrean jausten eta ilten ez ba'da, bera bakarrrik gelditzen da; **ilten ba'da**, ostera, **frutu ugari dakar**".

Orain Jerusalem'era igoten da, gizonen pekatuak kentzen ez dabezan ainbat bildots ilten diran urira, **Bildots Salbatzaille** lez iltera. Zeruko Aitaren seme lez gu bizi-erazoteko ilgo da.

Esan dagigun Aren ikasleakaz batera: "Bedeinkatua Jaunaren izenecan datorrena!".

**Eliza Nagusiak eta Uri Santuak erlejiño-adierazpena dabe.**

212. Judarrentzat, Jerusalem Jaungoikoaren Uria da. Antxe dago Jaunaren Eliza Nagusia. Uria Dabid erregeak egin eban. Eliza Nagusia, Yabe'ren Etxea da; andixek zaintzen dau bere erria. Araxe igoten dira Israel guztitik israeldar Jaungoikozaleak salmuak abestera, opariak eskintzera eta euren pekatuen parkamena eskatzera.

Jerusalem'go Eliza Nagusi onetan aurkezten eta eskintzen dau-tsoe Jaunari israeldar amak euren semetxoak. Olanxe egin eban Andra Mari'k. Orduantxe iragarri eutsan Simeon'ek Maria'ri Jesus'i jazoko yakon zerbait: "Batziek Aren alde jarriko zirala eta sinistuko ebela; eta beste batziek Aren aurka jarriko zirala eta ez ebela sinistuko".

**Jesus, Salbatzaille lez sartzen da Jerusalem'en.**

213. Jerusalem'era urreratzen diranean, Oriomendi-barreneko Betfaje'ra eltzean, Jesus'ek bere ikasle bi bialtzen ditu, auxe esanez:

"Zoaze aurrean dagoan urira, eta astoama bat aurkituko dozue lotuta, eta astakume bat beragaz; askatu ta ekarri egidazue. Eta inok zerbait ba'dirautsue, auxe erantzun: Jaunak **bear dauz**: berealaxe biurtuko di tu".

Ba-doaz, ba, ikasleak, eta astoama ta astakumea dakarrez. Gero, gainean euren soingainekoak ipinten dautsez, eta Jesus gainean jesarten da.

Laguntaldeak, ugari be ugari, bere soinekoak bidean-zeur zabalitzen ditue; beste batzuek zugatz-adarrak ebagi ta bidean zabalitzen dabez. Eta Jesus'en aurretik eta atzetik doazanak deadarka diño:

**"Hosanna Dabid'en Semeari!"  
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!"  
Hosanna goietan!"**

"Nor da au?", itauntzen dabe batzuek.

"Jesus igarlea da au —erantzuten dautsee—, Galilea'ko Nazaret'ekoa".

Izan be, Jesus da aurretiaz iragarritako profeta, Mesias:

"Ez bildurtu, Jerusalem;  
orra nun datorkizun erregea,  
astoama baten gainean jesarrita" (Zak. 2, 9).

**Erriko agintariak ezetsi egiten dabe Jesus Salbatzaille lez.**

214. Baiña guztiak ez dabe Jauna gurtzen. Batzuek gainpidea artzen dabe eta ikaratu egiten dira jazoten danaz. Orrein artekoak dira pariseuak, eta Jesus'i auxe dirautsoe:

"Irakasle, agiraka egiezu zure ikasleai".

Jaunak, arekana biurtu ta ba-dirautse:

"Benetan dirautsuet: oneik isiltzen ba'dira, arriak egingo dabe deadar".

Bai; alperrik da isillerazotea. Goratze au eta poz-deadarrok profetak idatzi eta aurretiaz iragarriak dira, eta bete egin bear dira.

**Abar-igandeko Liturji-zentzuna.**

215. Kristauok Kristo Jesus'ek Jerusalem'en egin eban sarrera goragarria gogoratzen eta berbizi izaten dogu urte oro.

Gure Abar-domekan, Eukaristiaren ospatze-aurrean egiten dogun eliz-biran artzen dogu parte; israeldarrak Kristo Jesus'i egin eutsoezan abestiak eta gorak esaten doguz barriro, Jesus bere abadearen personagan geure artean doan bitartean. Abar-domekako eliz-biran parte artzen ba'dogu, pariseuak inoen aurkakoa esaten dautsagu mundu guztiari: Jesus geure Buruzagi dala eta uste osoa dogula Aregan.

216. Isildu dira "hosanna" deadarrak kaleetan, baiña umeak Eliza Nagusian goraka diardue, Jaunak mirariak egiten diarduan artean. Pariseuak, **asarre bitsetan**, barriro be Jesus'i ba-dirautsoe:

"Entzuten dozu orreik diñoena?"

"Bai, orixe! —erantzuten dautse Jesus'ek—. Ez al dozue inoiz be irakurri, "Umeen eta bularrekoen agotik atara dozu gorapena?"

Jainko-Erriaren erlejiño-agintariak ez dabe onartu nai Jesus **Mesiasizat, Jaungoikoaren Bialdutzat**. Geroago ta asarreago dagoz.

217. Abar-igandeak be Jerusalem'go egoera burukalari aren erdian Jesus'ek egin eban sarrera ospetsua ekarten dausku gogorra; orregaitik, eliz-bira ostean, abadeak Jesus'en Nekaldia irakurten dautse eliztarrai, pariseuak Jesus'en aurka egin eben guztia jakifnerazorik.

218. Ausnartu dagigun Jesus'en aurrean Abar-eguna, eta itandu daiogun gure buruari geuk be Aregandik **ez ete-dogun iges egingo** edo ez ete-dautsagun sarritan agoa itxiko, pariseuak lez:

Esate baterako, Bera aurkitzeko edo irakurgairen baten, otoltezan, adiskide bategaz alkarrizketan edo abade bategaz gogo-jardunetan Bera argirc entzuteko susmoa dogunean... Orrela jokatzen ba'dogu, geu jarten gara betiko galtzeko arriskuan.

**Jainko-Erriak Jesus ezetsi egiten dau.**

219. Jesus bazartzen dabenak, eta bere aitari "baietz" esan bai baiña gero egin ez egiten dauan gaztea, antzekoak dirala diño Jaunak.

## Seme bien ipuñia.

Gizon batek seme bi ditu. Maastira bialtzen ditu, lan egitera. Batak, "Ez dot nai" dirautso. Baiña gero, damutu ta ba-doa. Bes-teak, barriz, "Oraintxe noa" dirautso. Baiña ez doa.

Eta Jesus'ek itaun egiten dau:

"Biotarik nok egiten dau citaren naia?"

"Lenengoak", erantzuten dabe judarrak.

Orduan, Jesus'ek auxe diño: "Benetan dirautsuet: zerga-batzailleak eta emagalduek zuek baiño lenago eltzen dira Jaungoikoaren Erreiñura".

Periseuak, erlejiño-itxurakeriz, Jaungoikoari "baietz" esaten eutsoela zirudien. Baiña euren egintzakaz "ezetz" esaten eben. **Damutzen diran pekatariak egiten dabenez** okerretara.

220. Pariseuak, eta gizon batek bere maastia alogeran izten dautsen nekazariak be antzekoak dirala diño Jaunak. Oneik, nekazariak, alogera-ordaiña emoterakoan, ugazabaren izenean datozan morroiak astindu ta il egiten dabez; geiago be bai: seme oiñordekoa be il egiten dabe.

## Maastiko langille gaiztoak.

Etxagun batek maasti bat lantzen dau. Gero, nekazari batzui alogeran (errentan) itzi eta urrun doa luzarorako. Maatsaroa eldu zanean, bere **morroi bat** bialtzen dautse, maatsaren irabazia jaso egitsen. Nekazariak morroia iraindu ta txarto artzen dabe, eta esku-utsik biurtzen da. Beste orrenbeste jazoten yako bialdu eban **bigarren morroiari** be, eta **irugarrena**, il egiten dabe. Barriro be, beste morroi batzuk bialtzen dautsez, eta batzuk zauritu, beste batzuk astindu eta beste batzui arrika egiten dautsee.

Bat dauko oraindiño maastiko ugazabak: **bere seme maitea**; auxe bialtzen dautse azkenez... Baiña nekazariak, semea ikustean, alkarri ba-dirautsoe: "Orixe da oiñordekoa; goazan, **il dagigun**, eta geu geldituko gara orren oiñordekotasunaz". Eta ari eldu, maastitik kanpora jaurti, eta il egin eben.

Jesus'ek olantxe amaitzen dau:

"Jaungoikoaren Erreiñua zuei kendu ta **frutua ekarri dagian** erriari emongo yako".

221. Pariseuak eta errege baten semearen ezteguna deituta-koak be antzekoak dirala diño Jesus'ek; eskertzarreko oneik deia ezetsi egiten dabe eta ez doaz ezteguno zeremoni ta jaialdira.

## Errege-ezteguak.

Zeruetako Erreiñua, bere semearen eztegua egin eban erregearen antzekoa da. Lenengo aldiz eta bigarrenez eztegurakoci dei egiten dautse, baiña oneik ez dabe etorri nai. Batzuk euren solora doaz, beste batzuk euren arazoetara, eta beste batzuek **il egiten ditue erregeak bialdutako morroiak**. Erregeak, asarratuta, uria ondatu ta odolzale arei eriotza emoten dautse.

Gero, nai daben guztiak datoz ezteguna. Baiña bat **txarto jantzita** sartu zan, eta jaurti egin eban andik kanpora.

Jesus'ek olantxe amaitzen dau:

## "Deituak asko dira; aukeratuak, ostera, gutxi".

Lenengo deituak jadarrak dira; bigarrenak, geu gara. Baiña grazi-soiñekoa jantzi ez dagiana, inpernura jaurtia izango da.

222. Jesus'en esacerarik **gogorrenak** Bera onartzen ez dabeneztat eta baztartzten dabeneztat, oneixek dira:

"Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseu **azalutsokl**, Zeruetako Erreiñua gizonai itxi egiten dautsezue-ta; zuek ez zaree sartzten, ez; eta sartu nai dabena, sartzten galerazo egiten dautsezue. Sugeok, larra-sugekumeok! Zelan egingo dautsazue iges inpernuko epaiari?"

Jaunak ez ditu madarikatzen pariseuak, ezta guretariko bat be; ez ditu galdu nai ez areik ez iñor, **bere Aitak ez dau mundura orretarako bialdu-ta**. Pariseuak eurak dira Jesus'en aurka jartean epaituck gelditzen diranak.

"Jerusalen, Jerusalem —diño Jesus'ek naigabez beretik—, profetak il eta zugana bialdutakocai arrika egiten dautsezun oril **Amaikatxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure semeak, oilloak bere txitak egapean batzen dauzanez**, eta zuek ez dozue nai izan!". Sinisten ez dauana epaitua gelditzen da, Jaungoikoaren Seme Bakarra ez dau sinisten-eta".

### Jesus'ek onartu egiten dau bere ordua.

223. Jaunak ba-daki guztia txarto amaituko dana. Orregaitik, itzaldiok amaitzean, auxe dirautse bere ikasleai:

"Egun bi barru Pazko-eguna da, eta Gizasemea gurutzeko eriotzara izango da galdua".

224. Bitartean, abadeburuak eta erriko zaarrak, Kaifas'en jauregian batuta, Jesus'i azpikeriz eskuak ezarteko ta eriotza emoteko erabagia artzen dabe. Jesus'en amabietariko batek, Judas Iskariote'k, lagunduko dautse asmo ori aurrera eroaten:

"Zer emon nai daustazue, eta neuk itziko dautsuet zuen eskuetan?"

"Ogetamar zidarrezko diru", agintzen dautsoe.

Pariseuak euren asmoa lortuko dabe: Jesus'i bizia kendu.

225. Jesus ez da odolbagea\*; pariseuak egiten dautsoen mukerkeri sutsuak mindu egiten dau, bialdu dauanaren bere Aitari destaiña\* egiten dautsoe-ta, baita Berari be.

Guk, gutxiagogaitik, guztia bertan-beera itziko genduan. Jesus'i, ostera, ez yako "bertan-beera izte" ori burura iñoiz be etorri, ez. Ba-daki bere erriko erlejiño-agintarien areriotasun eta gorroto ori gero be gizon askok izango dautsoela; baiña ba-daki jakin be arekaitik bizia emonaz bere Aitari emongo dautsan poza, seme askoren Aita egiteko. Eta onek aurrera jarraitzeko adorea ta indarra emoten dautso.

### ITAUNKETA

211. Zetarako ilgo da Jesus Jerusalem'en?
212. Zein da Eliza Nagusiaren eta Jerusalem uriaren erlejiño-adierazpena?
213. Zelan sartzen da Jauna Jerusalem'en Abar-egunean?
214. Ze jokabide artzen dabe Jaunaren ospearen aurrean?
215. Ze zentzun dauko guretzat Abar-eguneko liturjiak?
216. Zer jazoten yako Jesus'i Eliza Nagusian, kaleetan goratua izanda gero?
217. Zer ekarten dauku gogora Abar-eguneko liturjiak?
218. Pariseuen antzekoak izan ete-gaitekez zerbaiten Jaunagazko gure bizikeraz?
219. Azaldu egizu seme bien ipuiña.
220. Azaldu egizu maastiko odolzaleen ipuiña.

\* Odolbage: insensible.  
\* Destaiña: desprecio.

221. Azaldu egizu errege-eztequetako ipuiña.
222. Zelan ulertu bear dira Jesus'ek bere erriari egiten dautsazan madarika-tzeak?
223. Zer dirautse Jesus'ek bere ikasleai bere itzaldiak amaitutakoan?
224. Ze erabagi artzen dabe pariseuak Jesus'i buruz?  
Nok laguntzen dautse arein asmoetan?
225. Zegaitik mintzen dau Jesus pariseuen mukerkeriak? Zek emoten dautso aurrera jarraitzeko adorea ta indarra?

### EGITEKOAK


—Idazlan bat egin, Abar-eguneko liturjiako atalai buruz.

—Jerusalem'en Jesus'ek egin eban sarreran beteten diran iru iragarpen idatzi.

—Marrozki bat egin (Jerusalem'en sarrera, Eliza Nagusian egin eutsioezan gorapenak), urrengo au aurrean izanik: "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!".

OTOITZ EGIZU: "Jesus, bete egidazu biotza Aitaganako zure maitasunaz".





## 17'GARREN IKASKIZUNA

### Jesus, Salbatzaille lez agertzen da

Eguen Santu

226. Urte oro judar erriak Pazko-eguna ospatzen dau. Onelaxe agertzen dautsoe euren eskerrona Jaungoikoari, Ejipto'tik urten eta agindutako Lurrean sartu arte egin dautsezan miragarriakaitik. Egun orretan Pazko-bildotsa jaten dabe, eta antxiña lez, orain be Jaungoikoak **gorde egiten dauzala** gogoratzen dabe.

**Jesus'ek Pazko-eguna ospatzen dau.**

227. Jesus'ek be, bere ikasleakaz, gogoratu ta ospatu egin nai dauz miragarri orreik, Bildotsa janaz. Berak ba-daki, orraitioño, Aita bere erriagaz pozik ez dagoana, erri onek Alkartasuna milla bidar ausi daualako, Jaungoikoaren semeai dagokienez bizi nai ez-ta.

Ba-daki, gaiñera, profetak —Jaungoikoaren Espirituak eraginda— **beste Alkartasun** bati buruz egin dabena berba:

"Nire Legea euren barruan ipiñi ta euren **biotzean** idatziko dot. Neu izango naz arein Jaungoikoa, eta areik neure erria".

(Jer. 31, 33).

Ba-daki Jesus'ek, Berak egingo dauana bere Aitaren eta gure arteko Alkartasun Barri ori, bere Eriotzaz eta Biztueraz.

Orregaitik, maian jesarrita, auxe diño:

"**Gogo bizi**az gura izan dot, nekeak eroaten asi baiño len, Pazko-bildots au zeuekaz batera jatea".

**Jaungoikoak Alkartasun Barri bat egiten dau gizonakaz.**

228. Jaunaren guraria bete egingo da. Apaltzen asten dira.

Bitartean, zer darabil Jesus'ek buruan?  
Oraintxe ikusiko dogu.  
Jesus'ek ogia artu ta auxe diño:

**"Artu ta jan egizue: au, neure gorputza da, zeuen alde emongo dama".**

Gero edontzi edo kaliz bat artu ta auxe diño:

**"Edan egizue guztiok onetatik, au neure odola da-ta, zeuen alde isuriko dama".**

Kristauen leñengo meza da ori. Jesus'ek Jaungoikoaren eta gizonen arteko Alkartasun Barria **bere odolaz** izenpetzen dau.

Zer jazo da?

Jaunak, Eukaristia egiñik, bere **eriotza** ta **biztuera** aurretiaz ospatu dauz. Eta olantxe emon dautso asiera Kristau-Pazkoari. Aurrerantzean, Jesus Pazko-Bildotsa da betiko. Ejipto'n israeldarrak onik atara ebazan bildotsen odolak, eta Moises'ek Sinai'ko Alkartasuna izenpetu ebaneko zekorren odolak, orain Kristo'ren Odol Salbatzaille biurtzen da.

### **Maitasuna, Alkartasun Barriko lege.**

229. Sinai'n, Moises'ek Jaunagaz berba egin, Aginduak artu eta erruari Alkartasun-Gea jakiniñerazoten dautso. Eta erri guztiak olantxe erantzuten dau:

"Jaunak esan dauan guztia egingo dogu".

Jesus'ek, Azken-aparitato une goragarri onetan, bere Aitaren eta gure arteko Maitasunezko Alkartasun Barria egitean, Alkartasun Barri onetako Legea emoten dausku:

**"Alkar maite egizue, Nik zuek maite izan zaituedanez".**

Geiago oraindiño: maitasun-lege ori guk argi ikusi dagigun, Berak beteko dau egiñez oraintxe. Apaltzen diarduela, Jesus jagi ta ikasleen oiñak garbitzen asten da. Oneik ikaratuta gelditzen dira.

Amaitutakoan, auxe diño:

"Ikasbidea emon dautsuet. Egin zeuek be bardin".

### **Jesus, Alkartasun Barriko Moises.**

230. Ez dagigun aaztu, Sinai'ko Alkartasunaren gomutagarritzat, Pazko-aparitan Aitaren eta gure arteko Maitasunezko Alkartasun Barriak egiten diarduana.

Israeldarrak Ejipto'tik atarateko eta arekaz Adiskidetasun-Alkartasuna egiteko, Jaungoikoak **Moises** aukeratu eban bitarteko-tzat, Beraren eta bere erriaren arteko abadetzat.

Alkartasun Barri onetan, Jesus Moises barria da, bitartekoa, Abade Nagusia Aitaren eta gure artean. Eta aparteko **Abade Nagusia** da izan be: biztu zan ezker, bizi be bizi da eta guztiok eroan aal gaitu gure Aita Jaungoikoagana. Arek ez dau beste abadeen bearrik. Bera bakarrik da naikoa.

Alan be, Eukaristia egitean, auxe diño Azken-aparitan:

**"Au, neure gomutaz egizue".**

Une aretatik apostoluak abade biurtzen dira, Jesus'en adiskide biotzeko; euren bidez zeruratuko ditu Berak, Abade Bakar eta Betikoak, Bera zerura igota gero bizi izango gintzazan guztiok.

Abadeak, egun oro, Meza Santua, Alkartasun Barria ospatzen dabe; baiña eurak soilik ez: **Jesus Biztua**, Abade Betikoa da arekaz batera ospatzen dauana.

### **Pazko barriko jai.**

231. Lenengo Alkartasuneko jai a garrantzi andikoa zan; Pazko-aparia, bildots aren janari santua urte oro ospatzeko agindu eban Jaungoikoak, Itxaso Gorria igarotearen eta Sinai'ko Alkartasunaren gomutaz.

Jaungoikoak auxe nai dau: jai au ospaturik, erriak gogoan izan dagiala bizi, Jauna dala laguntzen dautsana, eta Berak egin dauan eta egiten dauan guztiagaitik eskerrak emon dagiozala.

Aitaren eta gure arteko **Alkartasun Barriaren** gomuta bizi bat be izten dausku Jesus'ek. Berak, Aitari eskiñitako Pazko-bildots egiazkoak Berak agintzen dautse bere apostolui, arrezkero abadeak ziranai, **Apari Santu** a sarritan ospatu dagiela. Eta Bera emoten yaku jateko ogi ta ardao santuen itxurapean.



Olan, kristauok, domeka oro, Eukaristia ospaturik eta Bizi-Ogia janik, eskerrak emoten dautsaguz Aitari beronen maitasuna gaitik eta Jaunaren Eriotza ta Biztuera iragarten doguz munduaren azkenean Bera barriro etorri arte.

### Jesus'ek bere adiskideai Pazko Barriko Espiritua agintzen dautse.

232. Jaunak Azken-apari onetan, Eguen Santu onetako Apari onetan, bere apostoluak bestetan baiño luzaroago diardu berbetan. Nekatuta dago. Pariseuak, saduzeuak, jente lau askok ez dautsoe Berak diñoanari antzik emon. Bere biotza adiskideai zabaltea nai dau eta, bide batez, burubideak emoten dautsez Bera joan daitenerako. Apal-tokia argi-ontziakaz argi-argi dago. Jai-ga-ba da; baiña apostoluak tristuraz beterik dagoz.

Jesus'ek adoretu egiten ditu:

"Egoki yatzue Ni joatea. Ni joaten ba'naz, bitartekoa balduko dautsuet. Eta **benetako Espiritua** etorri daitenean, Berak irakatsiko dautsue Nik esan dautsuedan guztia".

Bai; Pazko ta Alkartasun Barriko jai onetan, Jesus ezin egon daitteke Espiritu Santuari buruz berba egin bagarik. Jaungoikoak bere Erriagaz Sinai'n Alkartasuna egiten eban artean, mendi-gailurrean aize-bolada, trumoe ta tximistak izan ziran. Orrek, **Jaungoikoaren Espiritua** bere indarraz antxe agertzen zala adierazoten eban, eta, arrezkero, Jaungoikoaren Erria Berak zuzenduko ta eroango ebala.

Jesus'en Eriotza ta Biztueratik aste batzuk geroago, Bera zerura igo zanetik zortzi egunera, Jesus biztuaren Espiritua etorriko da apertoluen gainera, zaratotsez, aize-boladaz eta su-garrez, gu la-gunkide gakiozan Jainko-Erriari, Jesus'en Elizari, ibiltzen eragiteko.

### Jesus'ek otoitz egiten dau Alkartasun Barriko erriaren alde.

233. Jaunak bere apostoluak darabilen alkarrizketa luzatu egin da. Alkarregandik banantzerik ez dabela nai dirudi. Alkarrizketa mamintsu a amaitu orduko eta Oriomendi'ko oiñazeak asi baiño len, bere odolaz erosiko dauan Jainko-erri barriaren alde egiten dau otoitz Jesus'ek:

"Aita, eldu da ordua. Euron alde eskatzen dautsut: gu biok lez bat izan daitezcan. Eta onein itzaren bidez Neugan sinisten dabenen alde be eskatzen dautsut: Guz-

tiok bat izan daitezcala, zeuk baldu nozula munduak sinistu dagian".

### Gizon bi Alkartasun Barriaren aurrean.

234. Eguen Santu onetan, bi nabarmentzen\* dira apostoluen artean: Judas eta Pedro. Biotarik batek be ez dau zintzo jokutzen Jaungoikoagazko ta onen Bialdua dan Jesus'egazko Adiskidetasunezko Alkartasunari buruz.

Judas'ek Jauna saltzen dau zidarrezko ogetamar dirugaitik, eta ez dau nai Aren maitasunak argitu dagian. Eraso egiten dautso Argiari.

Pedro'k be, bera ez dala Jesus'en adiskidea, diño zin egin eta guzti, gau onetan berton. Jaunak aurretiaz onen jakitun jarri eban:

"Benetan dirautsut, Pedro: ez dau oillarrak kukurruku egingo, zuk ni iru bidar ukatu baiño len".

Alan be, Pedro, apal-apalik, egiazko Argitara etorriko da; eta argituta ta parkatuta geldituko da. Jesus'en Maitasuna bere saldukeria baiño andiagoa dala konturatuko da.

### Jesus Eriotzara daroana, bere Aitari dautsan Maitasuna da.

235. Alan eta guzti be, bere apostoluak bertan-beera itzi dabena be, Jesus'ek Eriotza besarkatu egiten dau, Bera danez, geu be "bere Aitaren seme" egin gogizan. Zein da orrenbeste eragozpen eta ukatze garaitzeko indar ezkutua? Berak diño:

"Ba-dator mundu onetako nagusia, baiña ezin egin daike ezer nire aurka; **nik Aita maite dodala** eta Aitak agindu dautsanez egiten dodala munduak jakin dagian dator. Jai zaitzeze; goazan emendik" (Yon 14, 31).

Eta bere ikasleak Zedron erreka bestekalderantz urteten da; an ortu bat dago, eta antxe sartzen dira guztiak.

Berez, Jesus'ek bere Aita maitatzean, guztiok maite gaitu, banan-banan. Jauna askotan ukatu ba'dogu be, ze jokabide artuko ete-dogu gure Salbatzaille dan Kristo orren aurrean? Iges egin, Judas'ek lez? Damutu, Pedro lez?

\* Nabarmendu: distinguirse, sobresalir.

## ITAUNKETA

226. Zer ospatzen dau Jainko-Erriak Pazko-egunez?  
227. Ze adorez ospatuko dau Jesus'ek bere ikasleakaz Pazko-eguna?  
228. Azaldu egizu zelan egin eban Jaungoikoak Alkartasun Barria.  
229. Zein da Alkartasun Barriko Legea? Zer egiten dau Jesus'ek Alkartasun Barriko Legea zer dan irakasteko bere ikasleai?  
230. Nor da Alkartasun Barriko Abadea? Nortzun bidez egiten dau orain Jesus'ek bere Abadetza?  
231. Ze gomuta bizi itzi dausku Jaunak Alkartasun Barriari buruz Aitarean eta gure ariean?  
232. Nor bialduko dautsela agintzen dautse Jesus'ek apostolucui Azken-aparitan? Noiz bialdu eutsen Jaungoikoak Jesus Biztuaren Espiritua bere apostolucui?  
233. Ze otoitz egiten dau Jesus'ek Azken-aparitan Oriomendi'rantz urten baiño len?  
234. Azaldu egizu Judas'ek eta Pedro'k Jaunagaz daben jokabidea.  
235. Zein da Jesus Eriotzara daroan indar ezkutua? Norantz doa Jesus ikasleakaz Apalondoa?

## EGITEKOAK

—Ausnartu egizuz Eguen Santuko elizkizunak eta idatzi biotza geien zek ikutu dautsun.

—Egizu laburpen bat Meza Santua bizitzarako zer izan bear dauan eta zer dan azalduaz.

—Egizu ormako margozki bat "slogan" oneaz:

*"Jesus maite daben gizonak".  
Katolikuak, Ortodoxuak, Protestanteak, Anglinakuak eta beste kristau-alderdi barzuk...*

*Jauna erdian ipiñi Eukaristia eskintzen, eta bekaldean esanaldi au:*

*"Emon egiguzu, Jauna, batasuna Zeu maite zaitugunoi".*

OTOITZ EGIZU: "Jauna, guztiok bat izan gaitezala, munduak Zeu sinistu zagizan".



## 18'GARREN IKASKIZUNA

# Jesus, geure Salbatzaille lez oiñazetua ta illa

Bariku Santu

236. Eldu yako Jaunari bere burua aurrean darabilen eskue-tan izteko **ordua**.

Jesus, Zedron erreka bestekaldera igaro eta astiro-astiro doa bereakaz Jetsemani'ko ortuan zear.

Pedro, Santiago ta Yon beragaz artu ta oriondo-artean sartzen da. Aitagaz bakarrean egin nai dau berba. Urr be urr dago azkena. Jauna ain une larrian ikustean, bere Nekaldi unean, ez aaztu maitasuna maitasunaz ordaintzen dana.

**Jesus'ek gure pekatuak bere gaiñean artzen dauz.**

237. Jesus ikaratzen eta larritzen asten da. Zegaitik?

Isaias igarleak aurretiaz iragarritakoa beteten da:

"Gure **pekatu** guztiak bere gaiñean daroaz" (Is. 53).

Zerbait aurreratxoago joan, lurrean belaunikotu ta auxe diño:

"Aita, Aital, zuk dana egin daikezu; kendu egizu nigandik edontzi au. Baiña ez daitela neuk nai dodana izan, **Zeuk nai dozuna** baiño".

Bitartean, bere iru adiskideak lotan diardue. Bakarrik diardu burrukan, adoretu batek lez, Satanás'en aal-izatearen aurka. Baiña ez da kikiltzen. Ba-daki Aitari atsegin yakona geugaitik atsekabetu ta il daiten. Zetarako? Onetarakoxe:

"Adan esaneko izan ez zalako, guztiok pekatari egin gintzazan ezkerro, orain, Jesus'en **maitasun esanekoaren bidez**, guztiok Jaungoikoaren seme izatera eldu gaitezan".

238. Judas ortura urreratzen da. Erromar gudariak eta abade nagusien eta Batzar Nagusiaren zaintzailleak dakaz beragaz. Ezau-garri au emon dautse: "Nik laztandu dagidana, axe da; **lotu egizue**".

Ara elduaz batera, Jesus'i laztan bat emon eutsan, esanez: "Irakasle!"

Eta Jesus'ek:

"Adiskide, zetara zatoz? Laztan bat az **saltzen dozu** Gizasemea?".

Orduan erromar-gudariak eta judar-zaintzailleak Jesus'i eskuak ezarri ta lotu egiten dabe.

Pedro bere irakaslearen alde jarten da, baiña Jaunak ez dautso izten. Une a, Jaungoikoaren eta Mesias'en aurkako Satanás'en ordua da.

Eta ikasle guztiak iges egiten dabe.

239. Jesus eriotzara doa. Pekatariak dira Jesus gurutzera darenak: **erlejiñoaren buru** diranak lotzen dabe, Legean jakintsu diranak; **bea bada**, mirariak egiten ikusi daben **eritarrak** be bai, baita jentillak diran **erromar zapaltzailleak** be.

Guztiak jarri dira batera Jesus'en aurka, Mesias'en aurka egiteko. Judas be bai arekaz.

Ori gutxi dala, Irakasleagaz giltzaperera joateko gertu egoan Pedro'k be iges egiten dau; Jesus'egaz eriotzara joateko, bere lagunkideak adoretu ebazan Tomas'ek be iges egiten dau.

Oneixek izango dira soillik iges egiten dabenak edo Jesus'en aurka dagozanak? Ez ete-gakiez batuko geu be noizean bein?

#### Erlejiño-agintariak Jesus galdu egiten dabe.

240. Jauna, gau erdian, Anas'en etxera daroe. Anas, Kaifas Abade Nagusiaren aitaginarreba da. Kaifas'ek Jesus'i beronen ikaslea ta irakatsiari buruz itauntzen dautso. Jesus'ek auxe erantzuten dautso:

"Nik agiri-agirian egin dautsat berba munduari. Zegaitik itauntzen dautsazu, ba, niri? Itandu egiezu nik zer esan dautsedan entzun dautsenai; ondo dakie eurak zer esan dodan nik".

Baiña gudari batek matraillako bat emoten dautso, esanez: "Olan erantzuten dautsazu Abade Nagusiari?".

Eta Jesus'ek:

"Oker egin ba'dot berba, esan egizu okerra; zuzen egin ba'dot, barriz, zegaitik joten nozu?".

241. Gero, urte aretan Abade Nagusi zan Kaifas'en etxera daroe.

Testiguak be ba-dagoz an; baiña ez dabe balio Jesus galtzeko. Bitartean, Jauna isilik.

Azkenez, Abade Nagusiak itaun au egiten dautso:

"Kristo, Bedeinkatuaren Semea al zara zu?". Eta Jesus'ek:

"Bai, neu naz, eta Gizasemea Altasunaren esku-maldean jesarrita eta zeruko laiño-gaiñean etorten ikusiko dozue". (Daniel 7, 13-14).

Ori entzutean, Abade Nagusiak bere jantziak urratu ta auxe diño:

"Zetarako testigurik? Oraintxe entzun dozue biraoa".

Orduan, ango guztiak:

"Eriotzarako errudun da!".

Eta txistua jaurtiten dautsoe arpegira eta matraillakoak emoten dautsoez, esanez:

"Igarri egiozu, Kristo: Nok jo zaitu?".

Erriko erlejiño-agintariak "ez" barri bat emon dautsoe Jaunari. Eta pekatu orrek zartadak eta iraiñak emoten dautsaz.

Une mingarri oneitan, ain zuzen be, Pedro'k, Kaifas'en etxeko atadian sutondoan berotzen, Jesus nor danik be ez dakiala egiten dau zin.

#### Erri-agintariak Jesus galdu egiten dabe.

242. Abade nagusiak eta erriko buruak Jesus'i eriotza emon nai dautsoe. Baiña erromarrak ez dautse inor ilten izten. Orregaitik, goizean goiz, Kaifas'en etxean batu diran guztiak jagi ta Pontzio Pilato erromar lendakariaren aurrera daroe.

Pilato'k, jauregitik kanpora urtenik, itaun au egiten dau: "Zer dakazue gizon onen aurka?".

Eta areik: "Erria naasten aurkitu dogu au, bera Kristo Erregea dala esaten".

Orduan, Pilato'k Jesus'i:

"Judarren Erregea zara zu?"

"Zeuk diñozu —erantzuten dautso Jesus'ek—: **ni errege naz.**

Baiña nire erregetza ez da mundu onetakoa".

243. Gizon a errubagea dala konturatzen da Pilato, eta askatu nai dau. Pazko-egunez giltzapeko bat askatzeko oiturea eban. Une egokia Jesus askatzeko. Erriak Jesus aukeratuko dau, aurki —diño berekautan Pilato'k—. Jesus'en edo Barrabas'en askatasuna eskintzen dautse.

Barrabas, matxinzale-buru bat da. Matxinada baten norbait il dauala-ta, giltzapean (espetxean) dago. Barrabas gizon-iltzaille bat da.

Baiña Pilato'k, "Biotarik, nor nai dozue askatu dagitzuedan?" esatean, guztiak "Barrabas!" diño.

Pilato arrituta gelditzen dal Erriak lapurra aukeratu dagiala lortu dabe Kristo'ren arerioak. Jesus, osterá, **erlejiño-Mesias** da: gizonak Jaungoikoaren eta lagun-urkoaren aurkako gorrototik askatzerá dator; baiña ez dabe nai bere eskuko gelditu daitenik; eta, ain zuzen be, mesias politiku bat dala-ta nai dabe ezetsi, erria naastu egiten dauala-ta.

244. Egokera onetan, Pilato'k Jesus barruan sartzen dau. Gudariak zigorkadaz astintzen dabe. Gero, arantzazko koroí bat egin, buruan ezarri eta purpura kolorezko soingaiñeko bat jazten dautsoe. Aren ondora urreraturik, barrezka dirautsoe: "Agur, judarren errege oril"; eta matrallakoak emoten dautsoez.

245. Pilato'k, barriro be, Jesus errege jantzita erakusten dautse judarrai, errukitu daitezán.

"Emen dozue zuen erregea!", dirautse.

Baiña laguntaldea deadarka asten da: "Kendu, kendul Gurutzerá oril".

Pilato'k, larrituta, ura eskatzen dau; eskuak garbitu, eta, "Nik ez dot errurik zintzo onen odolaz", diño.

Eta guztiak: "Geure gaiñera eta geure semeen gaiñera orren odolal".

Orduan, Pilato'k emon egiten dautse, gurutzean josteko.

Judarrak eta jentillak ezetsi egiten dabe Jesus Salbatzaille lez. Baiña, deadar arein artean **geuretariko bakotxarenak** dagoz, pekatu egiten dogun bakotxean auxe esaten dogu deadarka-ta: "Ez dot onartu nai Kristo nire Buru ta Salbatzailletzat!".

## Jesus, Golgota-bidean.

246. Pilato'k Jesus arerioen eskuetan itzi dau. Jesus, zauriz eta odolez beterik, gurutz-egurra lepoan artu eta Buruazurtegi deritxon tokiruntz doa. Beste bi be gurutzean josiak izango dira Beragaz. Olantxe beteko da Isaias igarleak esan eban au: gaizkilletzat artua izango zala.

Buruazurtegiara eltzen dira, eta gurutzean josten dabe. Gurutzean idazkuan au dago:

"JESUS NAZARETARRA,  
JUDARREN ERREGEA".

Jauna gurutzean dagoala, auxe diño:

"Aita, **parkatu egiezu**, ez dakie zetan diarduen-eta!"

Olantxe zuritzen\* ditu eriotza emoten dautsoenak.

Eskegita egoan lapurretariak batek, Jesus'i irainka ziarduan; baiña besteak, zeruko argiak biotza ikututa, auxe dirautso Jesus'i: "Gomuta zaitez nitzaz zure Erreiñura joan zaitezanean".

"**Neugaz** egongo zara gaur Paradisuan", erantzuten dautso Jesus'ek.

Izan be, Jaunagana zabaltzen danak, salbaziñoa, Jainko-seme-bizitza artzen dau, bere pekatuak gora-beera.

Jesus'ek, bere ama eta beronen ondoran Berak maite eban ikaslea ikusirik, bere amari dirautso: "**Andra, orra or zure semea**".

Gero, ikasleari: "**Orra or zure ama**".

Eta arrezkero ikasleak bere etxean artzen dau Maria.

Jesus'en inguruan dagozanetarik, Andra Mari da pekatu bagarik dagoan bakarra; Jesus lez, Maria be argia da guretzat; orregaitik, Berak daukanik ederrena emoten dautso Jesus'ek guretariko bakotxari: bere Ama.

Maria —VI'garren Paulo Aita Santuak diñoanez— eliztarren eta artzain guztien Ama da, edo bardin dana, Elizaren Ama.

## Salbaziñoako azken-ordua.

247. Arratsaldeko iruretan, Jesus'ek deadar aundi bat egiten dau:

"Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itzi nozu bertan-beera?".

\* Zuritu: disculpar-se.

21'garren Salmuko berbak diñoz. Bere oiñazea ezin esan-lakoa da, eta ez dau arintzekorik aurkitzen.

Bakarrik dagoala uste dau, baiña ez da erreten\*. Bere oiñazearen gurenda\* itxaroten daualakoa, Jesus'ek Salmu au diño:

"Lur guztia Jaunagana biurtuko da, eta gizon guztiak gurtu egingo dabe".

Bereala, "Egarri naz", diño.

Pitxar bete ozpin\* egoan an. Belaki (esponja) bat ozpiñetan bustirik, kaiñabera-adar bati lotu ta agora urreratzen dautsoe. Jesus'ek ozpiña artu ebanean, "**Guztia bete da**", diño.

Ondo daki Jesus'ek bere Aitak zenbat maite gaituan: Bera bialdu eban mundura geugaitik ilteko. Bete dau orain bere Aitaren gurari gartsua. Gaizkille bat lez illik, Aitak dauskun maitasun andia agertzen dausku.

Azkenez, deadar errimeaz, "Aita —diño—, zeure eskuetan izten dot nire espiritua". Eta burua makurturik, **il egiten da**.

248. Gizon guztien Salbaziñoko Istoriaren erdi-erdiko unean gagoz. Jesus, Abade Nagusia, bere eriotz-larriko naigabe ta oiñazeen erdian, bere Aitagan izten dau uste osoz bere burua, Areganako maitasun-egitada bikain bat egiñik. Gure "ezezkoa" Jaungoikoari, atzamatuta gelditu da Jesus'en "baiezkoaz".

249. Jesus, ilda be eta il dalako, **Bizia emoteko lain da**. Bizi dan eta bizien dauan ildako bat da. Euntaria izango zan Jesus'en eriotza garaitsuak ikutu eban lenengotarikoa. Jazoa ikusirik, Jaungoikoa goratzen dau, esanaz:

"Zintzoa zan gizon au benetan" (Lk. 23, 47).

Jesus illaren ondoan, bere Ama, Yon ikaslea eta Barri Ona iragarten ebala lagun egin eutsoen beste emakume batzuk dagoz.

250. Pazko-jairako Gertatze-eguna zan ezkerro, gurutzeratuen gorpuak ezin zeitekezan il-tokian gelditu. Ba-doa, ba, judarrak Pilato'gana, eta arein belaunak ausi ta gorpuak kendu egiezala eskatzen dautsoe.

Eta gudariak lenengoari belaunak ausi egiten dautsoez, baita onegaz batera gurutzean jositako besteari be. Jesus'egana eltzean,

\* Erre: desesperar. \* Gurenda: triunfo, victoria. \* Ozpin: vinagre.

barriz, il egin zala ikusirik, ez dautsoez belaunak austen; baiña gudarietariko batek lantaz saietsa alde batetik bestera zulatzen dautso, eta bat-batean odola ta ura urteten dira. Guzti ori, Liburu Santuko au bete zedin jazo zan: "Ez yako azurrik ausiko", eta, beste Idatz-lerro batek be ba-diño: "Zulatu ebena ikusiko dabe".

251. Pazko-egunean, bildotsak osorik eskiñi bear izaten yakoan Jaungoikoari.

Jesus ilten dan une oneitan, Eliza Nagusian jaitarako bildotsak eskintzen diardue. Jesus'i ez dautsoez belaunak austen. Eta Yon, an dagoan ikaslea, egiazko **Pazko-Bildotsa** Jesus dala konturatzen da: Onexen odolak askatzen dau pekatuaren menpetik.

252. Onen ondoren, Arimatea'ko Jose'k, Jaunaren ikasle isilleko zanak, Pilato'ri Jesus'en gorpua artzeko baimena eskatzen dautso. Pilato'k baiezkoa emoten dautso. Ba-dator Nikodemo be, bein Jesus ikustera gabez joan izan zana, eta usaingarri-naaste batzuk dakaz. Jesus'en gorpua artu ta batu egiten dabe.

Gurutzean josia izan zan tokian ortu bat egoan, eta ortuan illobi barri bat, ordurarte an iñor ipiñia izan ez zana. Eta judarren Pazko-aurreguna zan ezkerro ta illobia urr, Jauna antxe izten dabe.

253. Guretzat, Jaunaren ikasleontzat, Jesus'en gorpua gelditzen dan illobi ori **poztasun-asiera** da. Gari-garaun ondatua illobiratu da an, eta Bizitza aintzatsua erne da andik. Eta, geure eskerrona agerturik, auxe diñogu:

Jesus, gure anai ori: Zuk, escana egiñaz, Aitaren etxera barriro etorten lagun egin zeuskun. Emoiguzu argia, gure pekatuak egin eutsuen oiñazeaz konturatu gaitzean, eta emoiguzu barriro Zu ez saltzeko indarra. Lagun eiguzu zeure eredu izaten. Amen. Amen".

#### ITAUNKETA

236. Nogaz egingo dau berba Jesus'ek Oriomendi-ortuan?
237. Zer dirautso Jesus'ek Aitari Oriomendi-ortuan? Zer egiten dabe apostoluak, Jesus'ek Ortuan Satanasean aurka burrukan diarduan artean?
238. Azaldu egizu Jesus'en lotzea Oriomendi-ortuan.
239. Nortzuk dira Jesus bertan-beera itzi ta gurutzerara daroenak?
240. Azaldu egizu Anas'en aurrean Jesus'i jazo yakona.
241. Azaldu egizu Kaifas'en aurrean Jesus'i jazo yakona.
242. Nora daroe Jesus Kaifas'en etxetik? Azaldu egizu Jesus'ek Pilato'gaz izan eban alkarrizketa.
243. Ze asmo agertzen dautso Pilato'k erriari?
244. Zer egiten dau Pilato'k erriak Jesus ukatu egiten dauanean?


245. Zer dirautse Pilato'k judarrai Jesus zigortu ondoren? Zelan erantzuten dau erriak?
246. Zer egiten dautsoe judarrak Jesus'i Buruazurtegi deritxon tokian? Zer diño Jesus'ek gurutzetik?
247. Zer jazoten da, Jesus'i ilteko ordua eltzen yakonean?
248. Zer adierazoten dau Jesus'en eriotzak Salbazifio-Istorian?
249. Zerbait egiteko lain be ba-ete-da Jesus illa? Nor da, Jesus'en eriotza aintzatsuak ikututako lenengotarikoena?
250. Zer egiten dautsoe Jesus'en gorpuari il ondoren?
251. Zegaitik ez dautsoez ausi belauñak Jesus'i, Yon'en eritiziz?
252. Zer egiten dau Arimatea'ko Jose'k Jesus'en gorpuz?
253. Zer da gureztat Jesus dagoan illobia?

#### EGITEKOAK

—Ausnartu egizuz Bariku Santuko liturji-zeremoniak eta idatzi biotza zek ikutu dautsun geien.  
—Ezarri egiozu 21'garren Salmua eriotz-agiñean dagoan Jesus'i.

—Marroztu egizu Jesus illa, beronen amaren besoetan, eta idatzi alboan 25i2'garren zenbaki-ko otoiitza: "Jesus, gure anai ori...".

OTOITZ EGIZU: "Jauna, zeure zauriak osatu gaitue.  
Aintza Zeuri gizaldien gizaldietan!"



#### 19'GARREN IKASKIZUNA

## Jesus, geure Salbatzaille izateko biztu ta bizi da

### Zapatu Santu ta Biztuera-igandea

254. Kristo il egin da. Beste ildako bat ba'da, ez da lurrean ezer jazoko. Baiña lurrean zerbait jaso da: Jesus gizonen Salbatzaille izateko biztu ta bizi da. Abestu datogun Jaunari, ona da-ta, Aren errukia betikoa da-ta.

#### Jauna biztu egin da: Aleluia!

255. Astearen lenengo egunean, goizean-goiz, Jaunari lagun egin izan eutsoen emakumetariko iru, usaingarriakaz illobira doaz Jesus'en gorpua igurtziteko asmoz. Alkarri auxe dirautsoe: "Nok kenduko dausku arria illobi-agotik?"

Illobitik urrago dagozala, arria illobitik kenduta dagozala kon-turatzen dira. Aitz-zuloan sarturik, gazte bat ikusten dabe, eta onek auxe dirautse:

"Gurutzean il eben Jesus Nazaretarraren billa diarduzue. **Biztu egin da.** Ikusi ipiñi eben tokia".

256. Mari Madalen barria emotera doa arin Pedro ta Yon'i:

"Jauna illobitik erocan egin dabe, eta ez dakigu nun ipiñi daben" (Yn. 20, 2).

Biak ariñeketan asten dira. Ara eldu, sartu ta auxe ikusten dabe:

"zapiak lurrean, eta burua estaldu izan eutsoen miesa be bai, zapien ondoan ez, baiña, beste baztar baten toloztuta baiño".

Yon jabetu da Jesus bizi dana.

257. "A bai gau zoriontsua!" —diñogu Elizagaz Zapatu Santu gabea—. Gau orrek bakarrik ezagutu eban Kristo eriotzako lezatik biztu zaneke unea. Zaintzailleak eurak be ez dabe Jesus biz(tu)-ten ikusi. Baiña or dagoz biztueraren ezaugarri agiriak: arria alde batera kenduta, miesa ta zapiak lurrean, il-oiala toloztuta eta illobia utsik.

Elizea ez da aazten Jaunaren berbokaz: "**Zoriontsuak, ikusi ezarren be sinisten dabenak!**", eta orregaitik, urte oro, Pazko-astean adoretzu kantatzera egiten dausku dei: "Kristo, sinisten dogu bizi zaranal".

258. Mari Madalen, Jaunagan biurtu zan pekataria, negar baten dago illobi-ondoan. Bat-batean Jesus agertzen yako. Mari'k, Ari begiraturik eta ortu-zaiña dalakoan,

"Jauna —diño—, zeuk eroan ba'dozu, esan egidazu nun ipiñi dozun, eta neuk artuko dot". Jesus'ek dirautso: "Maril" Emakumeak ezagutu ta, "Irakasle!", dirautso.

#### Gelditu zaitetz gugaz, Jauna.

259. Egun aretan bertan, Jesus'en ikasle bi Emaus deritxon auzunara doaz. Arpegi-illun doaz, tristuraz beterik, azken-egunetan Jerusalem'en jazo danari buruz berbetan. Jaunak, arekana urreraturik, zertaz diarduen berbetan itauntzen dautse. Ez dabe ezagutu, eta auxe erantzuten dautsoe:

"Nazaret'eko Jesus orrena: gizon igarlea, Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egifñez eta berbaz gizon altsua zala, eta gure abadeburuak eta nagusiak ari eriotz-epaia emon eta gurutzean josi ebela. Israel askatuko ebana, bera zala uste genduan guk; baiña gauza guztiokaz, iru egun daroaguz onezkero, guzti au jazo zenetik. Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta itzi gaitue: izan be, goizaldean illobira joan ziran, eta Aren gorpua ez aurkitzean, aingeru batzuk be ikusi izan ebezala esanez etorri ziran, eta aingeru oneik Jesus bizi zala diñoeta-ta... Geuretariko batzuk be joan ziran illobira, eta dana emakumeak esan ebe-nez aurkitu eben; baiña Bera ez eben ikusi".

"**Zuek bai burubageak!** —dirautse Jesus'ek—. Ez ete-yakon, ba, bearrezkoa Mesias'i nekeok igarotea ta olan bere aintzan sartzea?"

Eta profetak Aretzaz iragarri dabena azaltzen asten yake. Ikasle biak adoretzu doaz. Auzunara eltzean, aurrera yoialakoa egiten dau; orduan, **apaltzeko** ta gaua eurakaz igaroteko eskatzen dautsoe; eta Jesus arekaz gelditzen da.

Maian jesarrita egozala, Jesus'ek **ogia artu**, bedeinkatu, zaitu ta emon egiten dautse. Biak, bat-batean konturaturik, orduantxe ezagutzen dabe Jesus. Baiña Jesus alde egiten dautse, ezereztu egiten da.

Pozez beterik, Jerusalem'era biurtu, Apal-tokian sartu ta Jauna ikusi dabela azaltzen dabe.

Konturatuko zara, aurrerantzean Jesus'ek, agertzen danean, ikasleakaz jan gura izaten dauana. Batera jatea, Mesias-poztasunaren eta Jaungoikoagazko batasunaren irudi da Jaunarentzat.

#### Ba-daukazue jatekorik?

260. Beste ikasleak Jerusalem'en dagoz, batuta; ez dautsoe Mari Madalen'i jaramonik egin. Emaus'koai, "Simon Pedro'k be ikusi dau!", dirautsee.

Gaiok azaltzen diarduela, Jesus agertzen de guztien erdian, Bildurrez beterik, mamua ikusten dabela uste dabe. Baiña Jesus'ek: "Begira nire esku-oiñak; Neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue; espirituak ez dauko aragirik ez azurrik; nik ba-daukadaz, ostera, zeuek ikusten daustazuezan. **Ba-daukazue emen jatekorik?**".

Areik arrain-erre zati bat eskintzen dautsoe. Jesus'ek artu ta **jan egiten dau**.

261. Baiña, izan daiteke, gero, Mari Madalen'ek eta ikasleak Jesus biztua ez ezagutzea, il aurretik onen ondoan arenbeste denboran egonda gero?

Ez gaitu arritu bear orrek. Jaunak Berari zelan begiratu bear dautsagun irakatsi nai dausku. Bere biztuera ondoren, ez dira naikoa gorputzeko begiak A ezagutzeko; beste begi batzuk bear doguz: **sinismen-begiak**.

Begi barri onekaz —Batikano'ko Bigarren Batzar Nagusiak dirauskunez— Meza santua ospatzen dauan abadeagan ikusi aal izango dogu, baita Ogi ta Ardao sagaratuetan\* be; sakramentu-

\* Sagartua: consagrado.

-egitadetan; Elizan irakurten eta iragarten dan Jaungoikoaren Itzean. Begi berberokaz ikusiko dogu otoitz egiteko edo ona dan beste edozer egiteko egiten doguzan batzarretan be: lagun-urkoe-tariko bakotzagan, batez be beartsu ta geisoakan, eta —ez aaztu— geure buruokan.

### Jauna sinismen-begiakaz billatu bear dogu.

262. Biztueratik zortzi egunera, Jesus'ek ikaskizun bera irakasten daute bere ikasleai: beste begi batzukaz begiratu bear dabela Bera.

Tomas'ek ez dautso sinistu nai izan biztuta ikusi dabenetariko bati be. Oraindiño aragi-begiak soillik daukaz Jauna ikusteko.

Egun aretan Jesus, barriro be, adiskide lez, ikasleen erdian agertzen da. Tomas'ek, ikaratuta,

**"Neure Jaun eta Jaungoikoa!",** diño.

Jesus'ek zuzendu egiten dau: "Tomas. ikusi nozulako sinistu dozu. Zoriontsuak, ikusi ezarren be sinistu dabenak!"

263. Gauza bat ikusi daikegu orain. Jesus'ek, biztuta gero, ez dau miraririk egiten gorputzak osatzeko. Zegaitik? Orain, batez be, **gizonai bere Biztuera-Bizia emon nai dautselako.**

Biztuera-egun berean be auxe dirautse Jerusalem'en batutako bere adiskideai agertu yakenean:

**"Bakea zuei. Zuek pekatuak parkatu dagiezueza-nai, parkatuta gelditzen yakez".**

Eta egun batzuk geroago, agur egiten dautsen unean:

"Aal-izate oso-osoa izan yat emona zeruan eta lurrean. Zoaze, ba, eta ikasle egin laguntalde guztiak, Aitaren, eta Semecaren, eta Espiritu Santuaren izenean **bateatuez,** eta agindu dautsuedan guztia beteten irakatsiez. Eta jakin egizue: neu nago zuekaz egun oro azken-aldirarte".

264. Berba orrekaz, bateoaren bidez, autortza sakramentuaren bidez, bere abadeen iragartearen bidez, Eukaristia ospatzearen bidez, eta beste Sakramentuen bidez, bere Bizia emoten dauskula irakasten dausku Jesus'ek.

265. Eta bere Bizia artzen dogu guztiok, Bera lez bizi gaitezala nai dau, Aitaren gurariak betez, pekatuentzat ilten goazan artean.

Orrexegaitik, ain zuzen be, esker-emote-otoitzean edo Pazko-Prefazioan, eskerrak emoten dautsaguz Jaungoiko gure Aitari:

"Jesus da munduaren pekatua kendu eban egiazko Bildotsa; gure eriotza bere eriotzaz ondatu eta, Bera biztuaz, **bizia barriztu euskuna**".

Ez gaitzean aaztu, ba, Elizeak, abadearen bidez, Zapatu Santuko gau aintzatsuan gogora ekarten dauskunaz, gure bateoko agintzariak barriztu baiño len:

"Gogoratu dagigun, anai-arrebok, pekatuarentzat ilda gagozala eta, Jesukristo gure Jaunagan, Jaungoikorentzat **bizi garala**".

### Elizaren Buruak.

266. Jauna, biztu ondoren, bere adiskideai agertu yaken bein baiño sarriagotan. Bere Erreiñua, bere Eliza iragarteko ta salbatzeko, burubideak eta egitekoak emoten dautsez. Eta jan, berba egin eta poztu egiten da arekaz batera berrogei egunean, barriro zerura igo arte. Adiskide onein artean apostoluek dagoz: oneik, euren artalde txikiaren artzain izango dira. Bere ikasleen eziketa-ri ekin dautso bere bizitzako azken-aldian.

Baiña beste gauza bat gelditzen da argitu bagarik: Elizaren lenengo arria Pedro izango dala agindu dautso oni. Baiña Simon Pedro'k —guztiok dakigunez— labankada bat egin dau Jesus'egazko maitsunean. Bestalde, Jauna laster zerura igoteko da eta ez dau onetzaz ezer esan. Zer egingo dau Pedro'ri buruz? Beste apostoluren bat egingo ete-dau buru?

Egun baten, Jauna Jenesaré'eko itxas-ertzean agertzen da. Arrantzaleak arrantzatik biurto dira. Arein artean Pedro, Yon eta beste apostolu batzuk dagoz. Ez dabe arraiñik artu. Eta jakin be ez dakie itxas-ertzean dagoana Jesus danik:

**"Mutillok! —dirautse—, jaurti egizue sarea txaluparen eskumakaldera, eta aurkitu dozue".**

Jaurtiten dabe, ba, sarea, eta ezin atara eben ainbeste arraiñez.



Itxas-ertzeko gizona **Jauna** dala adierazoten dautso Yon'ek Pedro'ri; eta Pedro, bereala, uretara **zapat egin** eta Irakasleagana eltzen da. Gero, bestek be eltzen dira.

"Ekarri arraiñak", dirautse.

Iñok be ez dautso "Nor zara?" itauntzen, ba-dakie Jauna da-na-ta.

Jan ebenean, Jaunak Pedro'ri auxe dirautso:

"Simon, Yon'en seme: oneik baiño geiago maite nozu?"

"Bai, Jauna —erantzuten dautso—; zuk ba-dakizu maite zaitudana".

Eta Jesus'ek:

"Zaindu egizuz nire bildotsak".

Jaunak barriro be itaun bera egiten dautso Pedro'ri, eta onek era berean erantzuten dautso. Jesus'ek barriro be:

"Simon, Yon'en seme: maite nozu?"

Pedro illun (triste) jarten da; eta auxe dirautso:

"Jauna, zuk dana dakizu; zuk ba-dakizu maite zaitudana".

Eta Jesus'ek:

"Zaindu egizuz nire ardiak".

Agertu dau Jaunak erabagi ezkutua Simon'i buruz. Simon'ek Pedro izango dau izena eta, benetan, bere **Elizaren Arria** izango da. Jesus ez da gu lakoia; ez dau gorrotorik gordeten. Zintzo beteten dau agintzen dauana:

"Zu Pedro zara, eta Arri orren gaiñean jasoko dot nire Eliza".

Ori bai; aurreko agertzeetan, Bera sinismen-begiakaz ikusi da-giela irakatsi dautse bere apostolui. Orain, **sinismen-begiratze** orrek **apaltasunez** eta **maitasunez** jantzita egon bear dauala ager-tzen dautse Pedro'ri ta besteki, baita geuri be.

Bere Irakasle Biztu ta Errukiorrari dautsan maitasun zintzoagai-tik, Pedro gurutzean josia izango da, baiña ez dau Jesus barriro salduko. Pedro'k, Jesus'en Espirituaz beterik, apaltasun, sendota-sun ta maitasun-Espirituaz beterik, Irakaslea artzen dau eredutzat, ardien alde bere bizia emonik, Jaunak aurretiaz esan eutsanez.

### Jesus aldendu egiten da bere ikasleen begietatik.

267. Azkenez, apostoluakaz jaten ziarduan baten, Aitaren agintzariaren zain egoteko agintzen dautse: "Yon'ek uraz bateatu ba'dau, zuek Espiritu Santuaz izango zaree bateatuak egun asko baiño len. Espiritu Santuaren indarra artuko dozue, eta Jerusalem'en, Judea osoan, Samaria'n eta lurraren baztarreragiño be, neure autorle (testigu) izango zaree".

268. Eta Jesus Janua, arei berba eginda gero, zerura igo eta Jaungoikoaren eskumaldean jesarri zan.

Apostoluen gaiñera Espiritu Santua etorri daitenean, orduan-txe beteko dau Jesus'ek bere Salbaziño-egintza. Bera ta Espiritua arekaz izango dira eta arekan lanean jardungo dabe, orain geu-gaz eta geugan lanean diarduenez.

Eta Eliza, Espirituak eraginda, Aitaren etxerantz joaten asiko da.

### ITAUNKETA

254. Zetarako biztuten da Jesus?
255. Zer egiten dabe, Jesus'i lagun egiten etorten ziran emakumeak? Zer jazoten yake illobira doazanean?
256. Nortzuk doaz illobira emakumeen urrengo?
257. Zer abesten dogu Elizagaz batera Zapatu Santu-gabeko elizkizunean?
258. Zer jazoten yako Mari Madalen'i illobi-ondoan?
259. Zelan izan zan Jesus biztuaren agertzea Emaus'ko ikasleai?
260. Zelan izan zan Jesus'ek Apari-tokian apostolui egin eutsen lenengo ager-tzea?
261. Nun ezagutuko dogu Jesus sinismen-begiakaz?
262. Zelan izan zan Jesus'en agertzea Apari-tokian, Tomas beronen lagunakaz egoala?
263. Jesus'ek, biztuta gero, zegaitik ez dau miraririk egiten gorputzak osatzeko?
264. Zelan emoten dausku orain Jesus'ek Biztuera-Bizia?
265. Zelan nai dau Jesus'ek bizi gaitzean bere Bizia artu dogunok?
266. Zelan egiten dau Jesus'ek Pedro Elizaren Buru?
267. Zer agintzen dautse Jesus'ek ikasleai Aitagana joan aurretik? Zer agintzen dautse Jesus'ek apostolui euron begietatik aldendu baiño len?
268. Nora doa Jesus Biztua lurreko bere eginkizuna beteta? Zeaz beteten dau Jesus'ek bere Salbaziño-egintza?


## EGITEKOAK

- Ausnartu egizuz Zapatu Santu gabeko elizkizunak, eta idatzi biotza geien zek ikutu dautsun.  
—Mateo'ren 25, 31-46'garren atal-  
txoak oiñarriztat artuta, egizu idazlan bat, Jesus Biztua, Kris-

to Mistikua orain gure biotze-  
tan zelan bizi dan esanaz.

- Jesus biztuaren marrozki bat egin, eta barrenean auxe idatzi:  
"Itzaroten dot illen biztuera,  
baita neure biztuera be".

OTOITZ EGIZU: "Emoidazuz, Jauna, begi barriak, sinismen-begiak, gi-  
zonen artean aurkitu zagidazan".



## IRUGARREN ZATIA

### ELIZEAK SALBAZINO-EGINTZA EGITEN DIARDU



## IRUGARREN ZATIARI SARRERA ZABALA

269. Gizonen alde nekeak artuta eta ilda atara gaitu onik Jesus'ek; Aitagana biztuta eta aintzatsu biurtuta.

Baiña, zelan datorkigu salbaziñoa?

Ezkutukiro eltzen yaku, Jau-na biztua ta aintzatsua Sakra-mentuetan, Itzean eta kristau-maitasunecan aurrean dogula; edo bardin dana, Elizaren bi-dez.

270. Jesus'en Eliza --dirausku Batikano'ko Bigarren Eliz-Batzar Nagusiak-- "arditegi" bat da, eta onen ate bakarra ta bearrezkoa Kristo da (Yn. 10, 1-10). Artalde bat be ba-da, eta onen Artzaiña Jaungoikoa bera izango da, profetak diñoenez (cf. Is. 40, 11; Ez. 34, 11 ta urrengoak); artalde onetako ardiak, giza-artzaiñak eroanda agertzen diranean, Artzain on eta nagusia dan Kristo'k eroaten eta janaritzen ditu (cf. Yn. 10, 11; Pedr. 1.<sup>o</sup>, 5, 4); ardien alde bere bizia emon eban (cf. Yn. 10, 11-16).

271. Gaurko Eliza, Jesus'en apostoluak eta idazleak asi eben Eliza bera da. Espiritu Santuak asieran lako indar berberaz bizi ta eragiten diardu aregan.

272. Eliza edo Jainko-Erria obeto ezagutzeko, ikusi dagi-gun zelan bizi ziran lenengo kristauak euron sinismenez eta buruasteakaz, geureen antzekoak dira-ta.

Lotu zakiez ondo azken-ikas-kizun onei. Jesus'en bizitza Ebanjelioetatik artuta agertu ba'dautsugu, orain lenengo al-dietako Elizaren bizitza, "Apostoluen Egiñak" izeneko liburu-tik eta apostoluak eurak kris-taulagunartean egiten eutse-ezan Idazkietatik artuta eraku-tsiko dautsugu.

Izan dagizula eredutzat Jau-nagana biurtutako lenengo kristauen sinismena, ogeigar-ren gizaldian Kristo'ren ikasle zintzo lez bizi zaitezcan.

### ITAUNKETA

269. Zelan eltzen da guganaño Jaunaren Salbaziñoa?

270. Zelan diño Batikano'ko Bigarren Eliz-Batzar Nagusiak Eliza zer dan?

271. Zelan dira antzekoak oraingo Eliza ta apostoluen Eliza?

272. Nundik jakingo dogu lenengo kristauen Eliza zelakoa zan?



20'GARREN IKASKIZUNA

**A**  
**i**  
**M**  
**T**  
**Z**  
**q**



## 20'GARREN IKASKIZUNA

### Jerusalen'go Eliza Salbaziño-bidean

273. Jaunak, Aitagana biurtzean, bere eginkizuna burutzeari jarraituko dautsoen talde bat izten dau lurreen: apostoluak eta ikasle batzuk. Guztiak, Andra Maria'gaz batera, Jaunaren agintzaria itxaroten dabe Jerusalem'en: "Espiritu Santua bialduko dautsuet". Orretarako, otoitzaren bidez gertatzen dira.

#### Judas'en tokia Matias'ek artzen dau.

274. Apostoluak orain amaika dira. Orregaitik, Judas'ek itzi eban tokia beste bati emotea erabagiten dabe.

Jaungoikoari otoitz eginda gero, Matias aukeratzen dabe; au, asierarik Jesus'en ikasle izan da, eta Jauna biztuta gero be Beronegaz bizi izan da. Barriro be amabi dira, Israel'go amabi jatorriak lez. Eta Israel len antxiñako Jainko-erria izan zanez, Eliza be Jaungoikoaren erri barria izango da. Amabi apostoluak izango dira Eliza onen zuzendariak.

#### Jaunak bere Espiritua bialtzen dau.

275. Matias aukeratu ebenean, Apostoluak gertatzen diardue, Jaungoikoari otoitz egiñik. "Eun eta ogeiren bat lagun egozan arekaz, Maria Jesus'en amagaz". (Ap. Eg. 1, 15).

Eta begira zer jazoten dan:

"Pentekoste-egunean guztiak leku baten alkarregaz dagoz. Bat-batean, zerutik aize-boladarena lako burrundarea sortzen da, eta areik dagozan etxe guztia betetzen dau. Eta su-antzeko miiñak ikusten dabez, eta bako txaren gaiñean banantzen eta ezarten dira. Eta guztiak Espiritu Santuz beteten dira, eta beste izkeraz berba egi ten asten dira, Espiritu Santuak berba eragiten dautsenez".

Eta entzuten ebezan artean oneixek egozan:

"Partiarrak, Mediararak, Elameitarrak... judar eta judartzaletuak, Kretarrak eta Arabiarrak: bakotzak norberaren izkeraz entzuten dabez Jaungoikoaren miragarriak". (Ap. Eg. 2, 1-13).

276. Zer jazo da?

Espiritu Santua jatsi da zerutik aize-zurrunbilloa lez. Bere egia, maitasun eta sendotasun guztiaz agertzen da kristau-talde txiki aregan. Jaungoikoaren Itza iragarreko, profetai etxeakoak eta lanak bertan-beera izten bultzatzen egin eutsen Espiritu bera da.

277. Orain, len profetak egin ebenez, apostoluak israeldarrei euron egikera gaiztoa botako dautsee arpegira eta benetan bihurtu ta damutu daitezala esango dautsee.

Barri Ona (Ebanjelioa) iragartera doaz adoretzu, Joel profetak esandakoa beteten dala:

"Egun areitan —diño Yabe'k—, gizon guztien gainera neure Espiritua isuriko dot, eta zuen semeak igarri egingo dabe".

278. Apostoluak, Jaungoikoak beterik, kale ta plazetara urtetan dira, Jesus agindutako Salbatzailea dala esanez; Aregana bihurtu daitezala biotz-biotzez.

Lenengo egunetan millaka batzuk gizon bihurtzen dira; eta Jaunagan sinistuta gero, bateoa artzen dabe.

279. Aurrerantzean, Espiritu Santua beti egongo da bere Elizagan, batez be beronen bizitzako unerik garrantzietan, jazarpenetan, eraso-aldietan, Eliz-Batzar Nagusietan...

Baiña, kristauetariko bakotxagan be egongo da: Jaungoikoa ta gizonak maite izaten lagun egiñik; gaiztakeriaren aurka burrukan egiteko sendotasuna emonik; munduan Jesus'en autorle (testigu) izaten bultzatzen egiñik.

Emon datoguzan eskerrak Jaungoikoari, bere Elizan ta guretariko bakotxagan bizi dalako.

**Pedro'k eta Yon'ek, jaiotez errena dan gizon bat osatzen dabe**

280. Espiritu Santua artu ebenean, apostoluak Jaunaren indarra bera dabe. Jesus'en izenean diardue, profetak Yabe'ren izenean ziardue.

Egun baten, Pedro ta Yon Jerusalem'go Eliza Nagusira doaz, otoi ez gitera. Gizon bat, jaiotez errena dan, Eliza Nagusiaren aurrean dago, eskean.

Apostoluak ari emoteko dirurik ez dakarrela konturatzen dira; eta orduan, Pedro'k dirautso:

"Ez daukat dirurik, baiña daukadana damotsut: Jesus Nazaretarraren izenean, jaqi ta zabiz".

Bat-batean, gizonak bere bernak bizitu egin yakozala eta ibili daitekela somatzen dau. Gero, pozez beterik, apostoluak Eliza Nagusian sartzen da, osatu dalako Jaungoikoari eskerrak emotera. Ezagutzen dabenak, osatuta ikustean, arrituta gelditzen dira.

**Judar-agintariak apostoluen aurka.**

281. Erri-buruak ezin dabe irunsi, apostoluak Jaunari buruz ain adoretzu berba egiterik. Eta aurrean erabili ta espetxean sartzen dabez, Jesus'ek aurretiaz esan eutsenez:

"Auzi-epaileai itziak eta sinagogetan zigorkadaz astinduak izango zaree; erriburuen eta erregeen aurrera eroango zaitue nigaitik, arein aurrean autor egin dagizuen".

Baiña apostoluak zabal-zabal eta bildur bagarik diardue berba egiten, eta jazarleen euren aurrean egin be:

"Zuek Jesus alboratu egin dozue, eta Aren erlotzaren errudun izan zaree... Ezin dautsuegu esanik egin, gizonai baiña Jaungoikoari lenago egin bear dautsagu esana-ta. Berak biatzen gaitu Jesus'egan ikusi doguna iragartera".

Judar-buruak zigorkadaz astintzen ditue; baiña areik "pozik doaz, Jesus'en izenagaitik iraingarri aurkitu dabezalako"; eta Eliza Nagusian eta etxeetan Barri Ona iragarten jarraitzen dabe.

**Apostoluak Jesus biztua iragarten dabe.**

282. Euren buruak Espiritu Santuz beterik dagozala konturatzen dira apostoluak, eta Jerusalem'go judar guztiai Jaunaren barri emoten dautse.

Pedro'k auxe dirautse:

"Ezagutu dozue zuek Nazaret'eko Jesus; zuen begien currean ezaugarriak eta mirariak egin ebazan, Jaungoikoa Aregaz egoan-eta. Zuek il egin dozue, zuetariko askok zer egiten zenduenik jakin ezarren. Baiña **A (Jesus) biztu egin da**. Bera da gizon guztien Jauna, eta Espiritu Santua bialdu dau lurrera, geure barruan berba egiten dauana. Garbatu zaitzeze eta bateoa artu egizue Jesus'en izenean".

Judar askok sinistu egiten dabez apostoluen berbak. Arein barruan gizonen Salbatzaile dan Jesus'eganako sinismena jaito da. Euren pekatuakaz garbatu eta bateoa artzen dabe.

283. Apostoluak iragarten eutseen judarrak aziak ziran, eta orregaitik, bateatuak eta Jaungoikoaren etxeko egitera izan baiño len, sinistu egin bear eben; sinismena Jesus'egan izan bear eben.

Gu txikitan bateatu genduezan, gure gurasoak eta aita-amabixiak Jesus'egan sinisten eben-eta.

Baiña onezkero, aundi egin gara, eta orain geuk esan bear dautsagu Jesus'i gure sinismena Beragan dogula.

Egin dagigun sinismen-egintza au: "Jesukristo, sinisten dogu Zu geugaitik il eta biztu zarala. Sinisten dogu geure Salbatzaile zarala".

#### **Lenengo kristauen bizikera.**

284. Konturatzen dira lenengo kristauak, ez dala naikoa Jesus'egan sinismena izatea eta bateoa artzea bakarrik; bearrezkoa dala egun oroko bizitzan Jaunari jarraitzea be. Begira zelan azaizten dauskun San Lukas'ek lenengo kristauen bizikera:

"Fededun guztien biotza bakarra zan. Alkartuta bizi ziran. Gauza guztiak guztientzat ebezan. Bakotxak bere lurrak eta ondasunak saldu eta ordaiña apostolui ekar ten eutsen. Gero andik bakotxari bear aiña emoten yakon, eta alan ez egoan arein artean beartsurik".

Lenengo kristauak bai alkar maite ebela! Anai-arteko sendi (famili) bat lez ziran: bakotxak eukan guztia besteena be bazan.

285. Begiratu zure ondora. Zure urrean bizi diran guztiak zeure anai-arreba dira. Arduratu zaitzez euroi buruz, batez be beartsuenai buruz, lenengo kristauak egiten ebenez.

Egizu oraindik aal dozun guztia gaur egunean doguzan ez bear ikaragarriak kentzeko: gudak (gerrak), zuzenbagekeriak, bizi-toki txarrak, gosea, txirotasuna, geisoak...

286. Nundik ataraten dabe lenengo kristauak alkar maite ebenez maite izateko indarra?

Eukaristiatik batez be. Etxeetan batzen ziran "ogiaren zatitzea" egiteko.

Lenengo, batera jaten eben, eta gero meza santuan artzen eben parte. Olantxe ikasten eben alkar maite izaten; izan be, Eukaristian Jesus'ek berak emoten dausku maitasun-ikaskizun andia, bere burua oparitzat Aitari eskifirik eta janaritzat gizonai emonik.

#### **Esteban Kristo'gaitik ilten da.**

287. Apostoluak Barri Ona iragarten diardue eta kristauak egunean-egunean geitzen dira. Onein artean Palestina'ko judarrak (ebertarrak) dagoz eta sakabanatutako judarrak (elendarrak). Asarre dira elendarrak ebetarren aurka, euren emakume alargun beartsuak bear danez zainduta ez dagozalako. Beraz, amabi apostoluak, ikasle guztiak batuerazorik, auxe dirautsee: "Ez da egoki mai-arduragaitik Jaungoikoaren Itza guk iztea. Beraz, anaiok, aukeratu egizue zuen artean zazpi gizonezko, izen oneko ta Espiritu Santu eta senez beteak, ardura ori arein gain jarri dagigun". Zazpirok izango dabe, batez bere, kristau elendar taldearen ardura.

288. Aukeratu artean Esteban dago, erriak begirakune andia eutsana. Baiña kristau ez diran judar batzuk Esteban'en aurka jagiten dira; aren jakituria ikusirik, ikaratuta gelditzen dira, Esteban'ek Espiritu Santuz beterik dagoalako egiten dau berba-ta.

Orduan, guzurrezko testiguak billatzen dabez, Esteban judarren Batzar Nagusiaren currean salatzeke. Testiguok auxe diño: "Gizon au ez da Toki Santuaren eta Legearen aurka berba egiten gelditzen. Jesus'ek, Nazaretar orrek, Toki au ondatu, eta Moises'ek irakatsitako ekanduak aldatu egingo dauzala esaten, geuk entzun dautsagu".

Esteban'ek esan izan ebana profetak aurretiaz esandako auzan:

"Jaungoikoa batez be biotzen barruan bizi izaten zala, eta ez gizonek egindako arrizko elizetan".

Auzitan, Esteban'ek auxe dirautse judar-buruci: "Espiritu Santuari zuek beti gogor egiten dautsazue! Zeuen gurasoak lakoak zaree zuek be. Zein profeta ez eben zuen gurasoak aurrean erabili?".

Ori entzutean, arein biotzak amorruez eta agiñak karraskaz asten dira Esteban'en aurka.

Baiña Esteban'ek, Espiritu Santuz beterik eta zerura begira, auxe diño: "Zeruak zabalik ikusten dodaz eta Gizasemea Jaungoikoaren eskumaldean zutik".

Orduan, areik, garrasika, euren belarriak estaldu egiten dabez eta guztiak batera aurka datorkioz; eta uritik kanpora atara ta arrika egiten dautsoe. Testiguak euren jantziak Saulo izeneko gazte baten oiñetan izten dabez. Saulo au geroago kristau biurtuko da eta San Paulo izango da. Esteban'ek, ilten dan artean, auxe diño biotz-biotzez: "Jesus Jauna, artu egizu nire espiritua; parkatu egiezu pekatu au".

Orixe berori esan eutsan Jesus'ek Aitari Gurutzetik:

"Parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben-eta".

Esteban lenengo kristau-martiria da: Jesus'en bide berberari jarraitu dautso.

289. Jerusalem'en, jazarpen gogor batek asi bear dau kristau elendarren aurka. Ezerezu egingo ete-da jaiobarri dan Eliza txiki ta apala? Au izango ete-da Espiritu Santuak kristauai Jerusalem'etik kanpora bultzatzen duen abagunea\*?

#### ITAUNKETA

273. Zer itxaroten dau Jerusalem'go kristau-lagunarteak Jesus zerura igo ondoren?
274. Azaldu egizu Matias aukeratzea apostolu izateko.
275. Azaldu egizu Espiritu Santuaren etorrera Pentekoste-egunean.
276. Nor da Pentekoste-egunean apostoluen gaitiera jatsiten dan Espiritu Santua?

\* Abagune: ocasión.

277. Ze iragarpen (edo profetia) beteten da Espiritu Santuaren etorreraz?
278. Zer egiten dabe apostoluek Jaunaren Espiritua artuta gero?
279. Zelan dago orain aurrean Espiritu Santua bere Elizan?
280. Azaldu egizu jaiotez errena zanaren osatzea.
281. Jesus'ek aurretiaz iragarri eban apostoluek eroango ebezan erasoak. Zelan asten dira beteten erasoak?
282. Zelan iragarten dautso Pedro'k laguntaldeari Jesus biztua?
283. Jarri egizuz parean judar elendarren batea ta gure batea.
284. Zelan bizi ziran lenengo kristauak?
285. Zelan izan bear dogu batez be lenengo kristauen jarraitzaile?
286. Nundik ataraten eben lenengo kristauak alkar maite ebenez maite izateko indarra?
287. Zer egin eben apostoluek beartsuen bearrizanak kentzeko?
288. Azaldu egizu Esteban'en odol-isurte edo martiria.
289. Zer asiko da Jerusalem'en Esteban'en odol-isurte ondoren?


#### EGITEKOAK



- Idatzi egizuz Pentekoste-eguneko liturjian agertzen diran esanaldirik garrantzitsuenak.
- Erantzun idatzita: Oraingo Bli-zeak, aurkitzen dau erasorik gizonen aldetik? Zelan? Eta azke-

nean, Esteban'ek il aurretik diñozan esanaldiak ipiñi.

—Esan egizuz kristau jatorra izateko aurkitzen dozuzan eragozpenak.

OTOITZ EGIZU: "Zatoz, Espiritu Santu, eta egin nagizu indartsua gaiztakeriaren aurka".





## 21'GARREN IKASKIZUNA

### Salbaziñoa gizon guztientzat da

290. Esteban'ek judarrai profeten eta Jesus'en eriotzaren errudun dirala dirautselako, judar erlejiño-agintariak ari eriotza emoten dautsoe.

Eta dongakeri orren ondoren, eraso andi bat egiten dabe Jerusalem'go Elizaren kristau guztien aurka. Oneik Judea'n eta Samaria'n zear sakabanatzen dira, eta an Jaunaren Barri Ona zabaltzen dabe.

Oraintxe ikusiko dozu zelan eldu yaken Ebanjelioa jentillai, ainbat eragozpen izanarren be.

#### Elizea asi agiten da Jerusalem'dik at (kanpora)

291. Felipe da apostoluak euren eginkizunerako aukeratu daben zazpi gizonetariko bat. Jazarpena asi danean, Felipe Samaria'ra doa eta antxe iragarten dau Barri Ona. Laguntaldeak ardura andiz entzuten dautso Jaunari buruz dirautsen guztia; eta, egiten dauzan mirariak ikusirik, asko Jaunagana biurtzen dira.

292. Egun baten, bidean yoiaca, etiopiar andiki bat aurkitzen dau. Gizon au oso zintzoa zan, eta Biblia Santua irakurten ziarduan; baiña ez eban iñoiz be Jesus'i buruz ezer entun. Felipe'k argiro azaltzen dautso berak dakiana. Andikia adoretu egiten da Jaunarena entzutean; eta biotzez sinisturik, Felipe'ren eskuetatik bateoa artzen dau.

Felipe'k erri ta urietan zear Barri Ona zabaltzen dau Zesarea'ko porturarte.

293. Jerusalem'en egozan apostoluak, Samaria'k Jaungoikoren Itza onartu egin ebala jakitean, Pedro ta Yon bialtzen dautseez. Felipe'k bateoa emon eutsen samaritar biurtuak, Pedro'k eta Yon'ek sendotu egiten dabez. Barrero Jerusalem'era etortzerakoan, Jesus iragarten dabe auzunetan zear. Olan, Pedro'k bere



eginkizuna beteten dau lenengo Aita Santu lez: kristaurik dagoan toki guztietan arei ikustaldia egin.

294. Esteban'en eriotza izan zanean, Jerusalem'dik iges egin eben batzuk, Fenizia, Txipre ta Antiokia'raño eltzen dira. An bizi ziran judarrai soillik iragarten dautsee oraindiño Barri Ona. Eta areitariko asko fededun egiten dira.

Zeatz-zeatz beteten da Jesus'ek apostolucui emon eutsen agindu au:

"Jerusalem'en, Judea osoan, Samaria'n eta lurraren bazterreragiño be, neure testigu izango zaree".

### Saulo, kristau egiten da.

295. Saulo, Tarso'ko judar bat da. Gazte zala, Jerusalem'era etorri izan zan erlejiño-gaiak ikastera. Emen, bere irakasleen artean, Gamaliel andia dauko.

Saulo'k adoretzu erabilten dauz aurrean kristauak. Abade Nagusiagandik agiri bat be lortzen dau, Damasko'ko kristauak lotu ta espetxean sartzeko.

Agiri-orri orreaz urirantz doa. Baiña bidean doala, bat-batean zerutiko argi batek inguratzen dau, lurrera jausten da eta auxe entzuten dau: "Saulo, Saulo, zegaitik narabizu aurrean?".

"Nor zaitut, ba, Jauna?", itauntzen dau Saulo'k.

Eta abotsak: "Zuk aurrean narabizun Jesus naz ni. Jagi ta sartu zaituz urian; antxe esango yatzu egin bear dozuna".

Jagiten da Saulo lurretik eta, begiak zabalduarren, iñor be ez dau ikusten. Ari lagutzen dautsoenak, guztiz arrituta, eskutik eldu ta Damasko'ra daroe. An iru egunez ikusten ez ebala egon zan; eta ez eban jan, ez edan.

296. Zer jazo yako Saulo'ri? Indar ezkutu batek egia jakineroz dautso: Jesus kristauakaz bizi dala. Orduan, bera be kristau egiten da.

Aurrerantzean, kristauen jazarle\* au, Kristo'ren alde egitearren, aurrean erabilia izango da. "San Paulo" biurtuko da, eta Jauna ondoen ulertu dauan gizonetariko bat da.

Saulo'k iragarriko dautse, bai, judarrai Barri Ona, baiña egintza andia jentillai iragartea izango da, guzurrezko jainkoak gurtzen dabezanai iragartea. Eta askoak irabaziko ditu Kristo'rentzat.

\* Jazarle: perseguidor.

### Pedro'k erromar euntari bat biurtzen dau.

297. Bitartean, Pedro'k, Espiritu Santuak eraginda, Elizan jentillak onartzen asten da.

Gizon bik ikuskizun bat dabe batera. Kornelio euntaria da barta: onek, "Simon Pedro" deritxon bati dei egiteko dirautsala Jau-nak, ikusten dau.

Bestea, Simon Pedro da: onek, eguerdian otoitzean diarduala, Jesus'ek Elizarentzat eginkizun barri bat eskatzen dautsala ikusten dau.

Pedro'ren ikuskizuna amaitzeaz batera, Kornelio'k bialduta-ko gudariak atea jotzen dautsoe. Eta Pedro'k, arekaz Kornelio'ren etxera joanik, Jesus'i buruz egiten dautso berba. Kornelio, len etio-piar andikia lez, adoretu egiten da Jesus'ena entzutean, eta fededun egiten da. Gero, Pedro'k Kornelio'ri bateoa emoten dautso, baita aren etxeko guztiaia be.

298. Pedro'k egin dauana oso garrantzi andikoa da kristautasunarentzat. Lenengo aldiz, judar erlejiñoak ez dan Zesarea'ko jentil batek Kristo'gan jarri dau bere sinismena, eta Elizan onartua izan da beste bagarik, judar-legeetatik igaro bagarik.

Aurrerantzean, Elizea judarren artean bakarrik ez, baita jentillen artean be zabaltzen asten da.

Laster kristau egindako pariseo batzuk kristau egin diran jentillen aurka asiko dira.

### Pedro, espetxeratua.

299. Jerusalem'en zer bait jazoten da. Eroses Agripas'ek Santiago Nagusia ilteko agintzen dau; eta judar-buruai ori atsegingarri yakela ikusirik, Pedro'ri be oratzea erabagiten dau ilteko asmoaz. Pedro espetxean dagoan artean, kristau guztiak otoitzean diardure aren alde, euren espiritu-buru da-ta.

Eta ikusi ondo zelan entzuten dauzan Jaungoikoak bere se-meen otoitzak: Eroses'ek bere asmoak burutzeko zan gabean bertan, Pedro'ri espetxean aingerua agertzen yako, eta "Jagi arin", di-rautso. Eta bat-batean, eskuetatik kataiak jausi egiten yakoz. Eta aingeruak: "Artu jantziak eta jarraitu niri".

Kalera urteteko espetxeko ate guztiak berez zabaltzen yakez, eta zaintzailleak ez dira konturatu be egiten. Pedro oituta dago; beretzat guztia amesa da. Eta kalera eltzean, aingerua aldendu egiten da. Bereala, Pedro'k kristauen etxe batera jotzen dau eta

kristau-talde bat bere alde otoiizean diarduela ikusten dau. Oneik, Pedro ikusirik, pozez beterik gelditzen dira eta arek jazo dan guztia azaltzen dautse.

Geroago, Pedro'k, Jerusalem'dik urtenda, auzuna ta errietan Barri Ona iragarten dau, Kristo'gaitik bizia gaitzeko bildur bagarik.

### Antiokia'ko kristauak.

300. Aldi baten, Paulo Arabia'ko basamortuan bazturtuta bi-zi izan da. An, barau ta otoiiz, Jaunaren apostolu-bizitzarako gertatzeari ekin dautso. Jesus'en eta beste apostoluen ikasbideari jarraitu dautso, Barri Ona agirian iragarten asi baiño len.

Gertatze-aldia amaitu dala uste dauanean, Paulo Barri Ona iragartera urteten da. Orduan, Bernabe batzen yako. Aurrerantzean, Antiokia'ko kristauen artean biok batera lan egingo daben adiskide andiak izango dira. Kristau oneitariko asko len jentillak izan ziran, judarrak izan bagarik.

301. Egun baten Pedro Antiokia'ra eltzen da, eta antxe gelditzen da aldi baten. Kristauen etxekoai ikustaldia egiten dautse, bai jentilletarik bai judarretarik biurtuai. Edozelan be, sinismen bera daben anaiak dira guztiok. Eta Pedro'k guztiok maite ditu, norkeri bagarik.

Baiña judarretarik biurtuen arteko batzuek ez dabez jentilletarik biurtutakoak egiazko anai lez maitatzen. Jentilletarik biurtutakoak baiño obeak dirala uste dabe eta areik be judar-lege batzuk bete dagiezala nai dabe. Gaiñera, euren etxeetara joateko dirautsoe Pedro'ri, olan len jentillak ziran etxeetara gutxiagotan joan daiten.

Pedro'k, biurtutako judarrak ez mintzeko, amor egiten dautse, eta jentil izan ziranakandik urrundu egiten da zerbait.

302. Egun areitan Paulo be Antiokia'n dago. Oso ondo kon- turatzen da, Pedro'k jentilletarik biurtutako anaiak ez dautsoela ondo eritziko Pedro'ren jokabideari. Gaiñera, ori ikusita, benetako kristauak izateko, lenengo, judar egin bear dirala uste daikoe, urrean.

Paulo'k Pedro'gaz berba egiten dau, eta, onek, gizon laua ta apala zan ezkeru, Paulo'k errazoia dauala autortzen dau. Kon- turatzen da bere ekintza zerbait arriskokoa izan daitekera, jentilletarik kristauak ori txartzat artuko eben-eta.

303. Antiokia'ko jazarpen onek, Elizea ondo joan daiten, guztiok zelan-alan bearrezkoak garala irakasten dausku; eta beste au be ikusarazoten dausku gaiñera: gauzak obeto egiteko eta Jesukristo'ri zintzoagoak izateko, anaien arteko alkarrizketa be- netakoa guztiz egokia dala.

### Paulo Apostoluaren lenengo misaño-ibillaldia.

304. Espiritu Santuaren argiz, Antiokia'ko kristauak Bernabe, Paulo ta Markos bialtzen dabez mundua Jesukristo'rentzat irabazte-ko. Txipre'ra eltzen dira, eta an asko egiten dira fededun. Serjio Pau- lo'k ugarteko agintariak, beragana dei egiteko agintzen dau; eta, Paulo berba egiten entzutean, "ikaratuta gelditzen da Jaunaren ira- katsiaz", eta kristau egiten da.

Txipre ugartetik Asia Txikira doaz: Pisidia, Ikonio, Listra eta Darbe'ra urrenez-urren.

Judar eta jentil asko biurtzen dira. Baiña judar batzuk, jenti- llak be Jesus'egan sinisten dabelakoaren ikusi-eziñez, Paulo ta beste lagun biak aurrean erabilten asten dira. Oneik, barriz, curren euren eginkizuna beteten, nekeai jaramonik egin bagarik. Eta olan, Espiritu Santuaren laguntzaz eta apostoluen adore su- tsuz, Elizea geitzen doa jentillen artean.

### Jerusalem'go Batzar Nagusia.

305. Paulo'k eta Bernabe'k jentillen artean daben ondore ona\* beingoan zabaltzen da toki aretako kristauen artean. Or- duan, eritzi-burruka bat sortzen da pariseotarteko fededun batzuen eta Jesus'egan sinistu daben jentillen artean. Areik onei auxe dirautsee: "Ez dozue salbatzeko naikoa Jesus'egan sinistez. Baita judar be egin bear dozue eta, geuk egiten dogunez, Moises'en Legeko aginduak bete". Baiña Paulo'ren eta Bernabe'ren eritzia beste bat da: biurtutako jentillen alde jarten dira, eta ez dabela judar egin bearrik, ezta Moises'en Legea betebearrik be. Naikoa dabela Jesus'egan sinistez eta Jesus'ek aginduta daukana egitez.

306. Auzia astuna da, eta orrek kristauen artean banantzea sortu daike. Izan be, ori zala-ta, toki batzuetan zarraparrak sortu zi- ran. Pedro'k, kristau guztien Buruak, lenengo Aita Santuak, Espiritu

\* Ondore on: éxito.

Santuaren eragiñez, Amabiak eta Paulo ta Bernabe Jerusalem'en batzea erabagiten dau, auzi ori ebazteko. Eta batzar bat egiten da, Jerusalem'go Eliz-Batzar Nagusia deritxona, 49'garren urtean. Eliza guztiaren lenengo batzar nagusia da, kristauen onik andiena batera lortzeko. Batikano'ko 2'garren Batzar Nagusian Aita Santuak, munduko gotzaiñakaz batera, egin dauan antzera.

307. Jaungoikoari otoitz eginda eta alkarren artean berba eginda gero, Pedro'k, Elizaren buru lez, beste apostoluek, azken-erantzuna emoten dau. Auxe diño adore aundiz:

"Anaiok: Biotzak ikusten dauzan Jaungoikoak, arein alde autor egin dau, geuri lez arei be (kristau egindako jentillai be) Espiritu Santua emonaz... Zer dala-ta zirikatzen dozue, ba, orain Jaungoikoa, ez gure asabak (aurretikoak) ez guk ezin eron izan dogun buztarria ikasleen lepo-gaiñean ezarririk? Baiña, bai gu bai areik, Jesus Jaunaren graziaz salbatzen garala uste dogu guk".

308. Orren ondoren, Santiago Nagusiak, Jerusalem'go gotzaiñak, artu eban itza, Paulo'ren eritzia sendoturik. Eta Batzar Nagusi arek idazki bat egin eban, urrango au diñoala: "Espiritu Santuaren eta gure ustez, Kristo'gana biurtu diran jentillak ez dagoz judarren legeak beteteko beartuta".

Erabagi orren jakitun egin ziranean, jentillartetik etorritako kristauak arinduta eta pozez beterik gelditzen dira.

### Kristauarentzat, bizi izatea maitatzea da.

309. Zegaitik da San Paulo gizonen artean gizon guztiz andia ta ospetsua?

Asko maite daualako, indar guztiakaz guztien onerako arduratzen eta nekatzen dalako, toki askotan judarrak emoten dautsezan naigabe ta eriotz-zemaiak\* jaramon andirik egin bagarik.

Besteen ardurarik ez daukan kristaua, ildako bat da Jaungoikoarentzat. Bizi izatea, maitatzea da-ta. "Besteak maite bagarik, Jaungoikoa maitatzen dauala diñoana, guzurti bat da".

Orregaitik, Elizea bizi da oraindiño, eta beti bizi izango da:

guztien ardurea daualako, guztiak maite daualako: zuriak, balzak eta oriak; txiroak eta aberatsak, adiskideak eta arerioak.

Auxe da gure kristau-eginkizun arrigarria: apostoluen euren, Paulo'rena: besteak maitatzea, guretzat gogor izanarren. Orduantxe bakarrik esan daiegu kristau garana.

### ITAUNKETA

290. Zer jazoten da Esteban'en eriotz-ondoan?
291. Nor da Felipe?
292. Azaldu egizu etiopiar andikiaren kristau-biurtzea.
293. Zer egiten dabe Pedro'k eta Yon'ek, Samaria'n kristau barriak egin dirala jakitean?
294. Noragiño eltzen dira Jerusalem'dik iges egindako kristaustariko batzuk?
295. Zer jazoten yako Saulo'ri Damasko'rako bidean?
296. Zer izango da Saulo Kristo'gana biurtu ondoren?
297. Zelan izan zan onartua Elizaren lenengo jentilla?
298. Zegaitik da ain garrantzi andikoa Kornelio'ren kristau-biurtzea?
299. Zelan izan zan askatua Pedro Jerusalem'go espetxetik?
300. Zer egiten dau Paulo'k jentillen artean apostolutzarako gertatzeko?
301. Zer jazoten yako Pedro'ri Antiokia'n?
302. Zer jazoten da Pedro'ren eta Paulo'ren artean Antiokia'n?
303. Zer irakasten dauku Pedro'ren eta Paulo'ren artean Antiokia'n jazo zamak?
304. Azaldu egizu Paulo'ren lenengo misio-ibilaldia.
305. Zer auzi sortzen da Elizan kristautasunera biurtzen diran jentillai buruz?
306. Zer egiten dau Pedro'k Eliza barruan sortzen dan lenengo auzi astuna erabagiteko?
307. Zer diño Pedro'k Jerusalem'go Batzar Nagusian kristau biurtutako jentillai buruz?
308. Zelan gelditzen da erabagita Jerusalem'go Batzar Nagusian, jentillak Elizan onartzeko auzia?
309. Zein da kristautasunaren betiko eginkizun arrigarria?

### EGITEKOAK

—Marrastu egizu mapa bat, San Paulo'ren lenengo misio-ibilaldia izentaturik.


—Jarri egizu parean Batikano'ko 2'garren Batzar Nagusia eta Elizaren lenengo Batzar Nagu-

sia dan Jerusalem'go Batzarra, tzarra.

—Egizu kristau-bizitzaren egitarau bat San Paulo'k bizi izandako Ebanjelioaren espirituaren eraz.

OTOITZ EGIZU: "Jauna!, beste Paulo bat izan nadilla".

\* Eriotz-zemai: amenaza de muerte.



## 22'GARREN IKASKIZUNA

### Eliza Salbatzaillea munduan zear zabaltzen da

310. Paulo'ren biotzean egunean-egunean besteakanako ardu-rea geitzen doa. Orregaitik, beste misiño-ibillaldi barri bi egitea erabagiten dau. Andiak izango dira eragozpenak bere apostoluzan; baiña, Jaunagan dauan sinismenaz eta Espiritu Santuaren aparteko laguntzaz garaituko dauz eragozpenok. Munduan Kris-to'ren errelñua bakarrik sabaldu gura dau,geuk be gura bear dogunez.

#### PAULO, BIGARREN MISIÑO-IBILLALDIA EGITERA DOA

311. Bigarren ibillaldia egiteko, Paulo Antiokia'tik Silas'egaz urten eta Derbe ta Lистра'tik igaroten da; emen, Timoteo batzen yake, aurrerantzean Paulo'ren ikasle gogokoa izango dana.

Uri bietan, aurreko ibillaldian biurtutako kristauak ikusten dauz eta kristau barriak egiten ditu.

#### Paulo apostolua Europa'ra.

312. Asia Txikian, Paulo'k ikuskizun bat dau gabez. Maze-doniar bat ikusten dau, erreguz dirautsala: "Zatoz Mazedonia'ra ta lagun zakiguz".

Paulo ta onen ikasleak, amesa Espiritu Santuaren deia zala jabeturik, Europa'rako bidea artzen dabe.

Filipos'ko urian Lidia izeneko emakume bat kristautzen da, eta bere etxean artzen dauz.

Urrengo zapatuan, mirabe\* gazte batek deadak jarraitzen dautse: "Gizon oneik salbaziño-bidea iragarten dautsue".

\* Mirabe: esclava.

Espirituak artuta lez dago, ete bere igarketakaz ainbat diru irabazten dautse bere ugazabai.

Orixe jazoten da beste egun batzuetan be. Orduan, Paulo'k, Jesus'en aai-izateaz eta Beronen izenean, espirituari neskatilla aregandik urteteko agintzen dautso, eta bat-batean, urten egin yakon. Baiña gaztearen ugazabak, irabazteko ustea galdu yakela ikustean, Pedro ta Silas auzitegira eroaten dabez. Uria naasten diarduela salatzen dabez an. Laguntaldeak be arein aurka diardu deadarka. Orduan, auzi-epailleak areik zigorkadaz astintzeko eta espetxean sartzeko agintzen dabe.

Biaramonean, atara egiten dabez espetxetik. Baiña Paulo'k auxe gogorazoten dautse auzi-epailleen bialduai:

"**Erromar seme** garala, auzi bagarik gu zigorkadaz astindu ondoren, espetxean sartu genduezan; eta orain emendik isillean bialdu nai gaitue? Ez, orixel; datozala eurak, eta atara gagiezala".

Auzi-epailleak, ori jakitean, bildurtu egiten da: lenen auzia egin bagarik, ezin daikee erromar semerik galdu-ta; parka-eske datoz Paulo'gana.

113. Gero, Tesalonika'ra joten dabe, eta an ainbat jentil kristautzen dira. Emen be judarrak Paulo'ren aurka jarten dira, eta alde egin beaz dau uritik.

Berea'tik igarotean, Silas eta Timoteo antxe gelditzen dira. Paulo'k, barriz, Atenas'era joten dau, bakarrik. Nekeak, arrera txarrak, espetxea, dana eroaten dau ondo Paulo'k Kristo'ganako maitasun-indarraz.

### Paulo, gerkar jakitunen aurrean.

314. Atenas jakintzaren, kulturaren eta sasi-jainkoen uri nagusia da. Uria elizaz beterik dago, eta elizak sasi-jainkoen irudiz. Paulo'k sinagogetan, kaleetan eta plazetan Barri Ona iragarten diardu. Gerkar jakitun batzuek, jakin-guraz, iragarten dauanari buruz zerbait esan dagitsela eskatzen dautsoe Paulo'ri. Eta Paulo'k auxe dirautse:

"Emendik igarotean eta zuen jaungoikoen irudiak or-emen ikusten niarduala, altara-mai bat aurkitu dot, eta bertan idazkun au: **Jaungoiko ez ezagunari**. Or, ba; ezagutu bagarik gurtzen dozuen orixe iragarten dautsuet

nik: Mundu osoa eta bertan diran gauza guztiak egin dauzan Jaungoikoa, zeru-lurren Jauna izanik, ez da eskuz egindako elizetan bizi...; Berbera da bizia, arnasa ta dan-dana emoten dautsena, Beragan bizi, ibilli gabiz eta izan gara-ta, zuetariko batzuek esan dabenez: Aren jatorriko be ba-gara-ta".

Eta jarraian, ildakoen biztuerari buruz egiten dautse berba:

"Beraz, Jaungoikoak, jakiñezaldi\* au goitik ikusita, edonun garbatu daitezala dirautse orain gizon guztiari. Eta aretarako gizon bat aukeraturik, gizaldia epai-zuzenez ebazteko eguna erabagi dau, gizon ori illen artetik berbizturik, sinisbidea guztiari emonda".

Sinisten ez daben biztuerari buruz berba egiten entzutean, batzuek irri egiten dautsoe Paulo'ri; beste batzuek, ostera, auxe dirautsoe:

"Orretzaz beste baten entzungo zaitugu".

Eta guztiak bertan-beera izten dabe.

Paulo'k berealaxe ulertzen dau: euren buruak jakitun egiten dabeneztat, euren bizitzan iñoren bearririk ez dabeneztat, Ebanjelioa ia tentelkeria da. Izan be, Jesus'en irakatsia apaltasuna, lautasuna, txirotasuna da. Lauak eta biotz-zabalak diranak soillik ulertzen eta onartzen dabe. Alan eta guzti be, batzuek Jaunagan jarri eben euren sinistea.

### Paulo'k esku-lanean diardu.

315. Paulo'ren bigarren ibillaldiko azkenengo arazo-aldia Korinto da. Urtebete ta erdi egiten dau an. Lenengotan, irakatsiaz batera, bere adiskide batzukaz lanean diardu: adiskideok Akila ta Prizila dira, eta baso-txabolak egiteko lantegi bat dabe. Paulo'k langintza au ondo ekian.

Laster datoz Berea'tik Silas eta Timoteo. Orduan Pedro'k, lantegia itzirik, irakasteari bakarrik ekiten dautso. Beti lez, judarren artean diardu lenengo, eta sinagogako nagusi dan Krispo biur-tzen da. Gero, jentillari irakasten dautse, eta ainbat biur-tzen dira.

\* Jakifnezaldi: tiempo de la ignorancia.

Jazopen orrean aurrean, Paulo'ren biotza pozik gelditzen da. Ikus-kizun bat be ba-dauko, eta Jaunak auxe dirautso:

"Ez izan bildurrik; berba egizu, eta ez isildu. Neu nago zugaz, eta iñok ez dautsu kalterik egingo: uri onetan Nigan sinistuko dabenak asko dira-ta".

#### **Paulo'k idazki bi egiten dautsez Tesalonika'ko kristauai.**

316. Paulo guztiz arduratsu dago Tesalonika'ko kristau barriai buruz, ez dautse bear danez irakatsi-ta. Eta Korinto'tik Timoteo bialtzen dautse. Au barriro etorten danean, an jazoten dan guztia azaltzen dautso. Eta Paulo'k **Tesalonika'koai Lenengo Idazkia** egiten dautse, Barri Ona utsean iragarri dautsela gogorazorik. Timoteo'ren barri onakaz asko pozten da, eta arein fedea sendotu dagitsela eskatzen dautso Jaunari.

Azkenez, biztueraz egiten dautse berba, eta Jaunaren bigarren etorrerarako gertatzen adoretzen ditu.

317. Tesalonika'ko kristauak, Paulo'k bere lenengo idazkian dirautsena ondo ulertu ez daben ezkeru, onek **Tesalonika'koai Bigarren Idazkia** egiten dautse.

Batzuek oker ulertu dabela dirautse, lana itzi ta Jaunaren bigarren etorrera orduantxe itxaroten dabe-ta. Ez dakigula egun ori noiz elduko dan, fede-ukatzea ta antikristoa etorriko dira-ta. Beraz, lan egin dagiela, kristauak bere lanaz mundua Jaunarentzat irabazi bear dau-ta.

#### **Paulo, aurrean erabilia.**

318. Amazortzi illebeta geroago, judarrak, ikusi-eziñez, ondatu egin nai dabe Paulo'ren lana, eta, beste batzuetan lez, Akaiako prokonsul dan Galion'en aurrean salatzen dabe. Baiña onek, bera ez dala nor erlejiño-gaiak ebazteko jakiñerazoten dautse, eta, beste bagarik, alde eragiten dautse.

Amaitu dau Paulo'k bere eginkizuna Korinto'n. Espiritu Santuak emen kristau-talde andia sorrerazo dau. Orregaitik, Paulo pozik doa andik. Jerusalem'era eldu ta Antiokia'ra doa.

## **PAULO'REN IRUGARREN MISIÑO-IBILLALDIA**

319. Paulo'k, barriro be, alde egiten dau Antiokia'tik. Tito da-roa lagun. Galazia ta Frijia'tik igaroten da, eta aurreko ibillaldietan biurtutako kristau-lagunarteak ikusirik, Efeso'ra eltzen da, eta emen iru urte egongo da. San Paulo'ren idazkirik ederrenak aldi onetakoak dira.

#### **Paulo'ren lanbidea Efeso'n.**

320. Efeso erri ospetsua eta erromar errialde bateko uri nagusia zan, milloerdi bizi-lagun ebazala eta saldu-erosietan bizi andikoa.

Paulo eltzen danean, kristautasuna ez da guztiz ez-ezaguna, Apolo izeneko judar kristau batek iragarri dau-ta.

Paulo sinagogara doa, lenen judarrak berba egitera; baiña oneik ez dautsoe jaramon andirik egiten, eta Tirano'ko eskolan erriaren aurrean irakasten asten da.

Asko biurtzen dauz bere iragarteaz eta mirariakaz.

"Paulo'k soñean erabilitako zapitxo ta gerri-oialak geisoai ezarrita, bereala oiñazeak aldendu ta deabru gaiztoak arekandik urten egiten ziran".

Orregaitik, Paulo'ri uri onetan begirune andia dautsoe.

Baiña, ustebagako zerbait jasoten da. Demetrio izeneko zidargin batek, Efeso'ko jainko-emakume andia zan Artemisa'ren zidarrezko elizatxoak egiten dauz. Baiña, asko kristau egin diran ezkeru, lanbide ori ondatzeko zorian dago. Orregaitik, lan-saria jatsiten dalakoaren errua Paulo'k dauala dirautse Demetrio'k bere langilleai. Urian zarraparra andia sortzen da, eta Paulo urtik kanpora bialdu nai dabe.

Uria naaste utsa da, eta guztiak antzerkirantz (teatorantz) doaz deadarka: "Andia da efesotarren Artemisa!".

Paulo areik baretzeko sartu nai dau, baiña ez dautsoe izten. Ordu bi geroago laguntaldea baretu egiten da, eta Paulo'k, bere ikasleai agur eginda gero, Mazedonia'ra egiten dau alde.

#### **Paulo'k Korinto'ko kristauai idazten dautse.**

321. Paulo Efeso'n egoala, Korinto'ko kristau batzuk ikustera etorri yakozan. Arein artean banakuntzak egozala jakin eban are-

kandik. Beste itaun batzuk be egiten dautsoez, esate baterako, ildakoen biztuerari buruz.

Paulo'k **Korinto'koai Lenengo Idazkia** egiten dautse. Kristauak alkarregaz bananduta egoteko errazoirik ez dagoala dirautse, guztiok Jaun bakarra ta bateo bakarra dogula-ta.

Alkarren arteko maitasunak zelakoa izan bear dauan be azaltzen dautse:

"Maitasuna eroapen onekoa da, biozpera da; maitasunak ez dau ikusi-eziñik, ez dau asko-nairik; ez dau bidebagekeritan gogorik artzen, egia billatzen dau, oster; guztia alde onera botaten eta parkatzen daki".

Korinto'n, ildakoen biztuera sinisten ez daben kristau batzuk dagozan ezker, len irakatsi izan eutsen au gogorazoten dautse:

"Jesus biztu egin zan eta Pedro'ri, apostolui eta neuri agertu yakun".

"Biztuerarik ez ba'dago, Kristo be ez zan biztu. Baiña ez; Kristo biztu egin da, eta gero, aldi egokian, Bera sinisten dabenak biztuko dira".

Paulo'k Jaungoiko Aitari eskerrak emonaz amaitzen dau bere idazkia, Jesus Jaunaren bidez eriotza azpiratu euskulako.

322. Paulo'k beste idazki bat be egingo dautse. Mazedonia'tik **Korinto'koai egindako Bigarren Idazkian**, apostoluzan darabilen jokabidea azaltzen dautse, eta, Palestina'ko anai beartsuentzat egin nai dauan diru-batzean, Mazedoniarrek lez, eskuzabalak izateko adoretzen dauz.

#### Paulo'ren idazkia Galazia'koai.

323. Paulo Mazedonia'tik Grezia'ra joan zan, eta emen iru illebetean dago. Egonaldi onetan, Galazia'koai ta Erroma'koai idazten dautse.

Kristau bihurtutako pariseo batzuk Galazia'n bizi dira; Galazia, Asia Txikiko erdiko lurraldean dago, oraingo Turkia'n. Salbatzeko, Jesus sinistea eta Beronen irakatsia betetea ez dala naikoa dirautse pariseo areik kristauai. Orrezaz gaiñera, Moises'en legeak be bete eta judar egin bear dirala. Jerusalem'go Batzar Nagusi aurretik jazo zana bera da. Auzi ori erabagiteko, Paulo'k Galazia'koai idazki bat egiten dautse.

Barrero be, egia berak berbaz esan dautsena dala dirautse idazkiz Paulo'k Galazia'koai:

"Ez dago judar egin bearrrik; Jesus sinistea da garrantzitsuena".

Orretzaz jabetzeko, jazopen batzuk azaltzen dautsez:

—Urte batzuetan Jesus'i buruz arei irakatsi dautsenez irakatsita gero, Tito'gaz Jerusalem'era joan zan. An, Jesus'i buruz iragarten ebana apostolui azaldu eutsen, eta guztiak ondo eritzi eutsoen. Gaiñera, ez eben Tito judar egitera beartu.

—Urte batzuk lenago Pedro, lenengo Aita Santua, Antiokia'ra eldu zanean, kristau biurtu ziran jentillen artean ebillen eta bizi zan, Moises'en legeak beteten ez ebezanarren. Gerago, judar batzuk eldu ziran ara, eta Pedro'k, onein bildurrez, itzi egin eutsan biurtu ziran jentillakaz bizi izateari eta Moises'en legeak beteten asi zan. Paulo berak zuzendu eban Pedro jokabide orretzaz, eta Pedro'k errazoia emon eutsan.

#### Paulo'ren idazkia Erroma'koai.

324. Paulo beti egon da Erroma'ra joateko amesetan, baiña eragozpenak galerazo egin dautsoe. Erroma'ra joan aurretik, ango kristauai idazki bat bialtzen dautse aurretiaz. Idazki onetan, Paulo'k ordurarte irakatsi dauanaren laburpen bat lez da.

Ona emen Paulo'k Erroma'koai egindako zatirik garrantzitsuenak:

"Jaungoiko Aitak, ontasun bera dan ezker, gizon guztiok salbatu daitezala nai dau. Salbaziño ori, Jaungoiko Aitaren Semea sinisten dauanean datorkio gizonari; Jesus sinisten dauanean.

Salbaziñoa Moises'en legeak betetean dagoala uste dabe judarrak, baiña oker dagoz".

Benetan ederto esanda Adan'en eta Jesus'en arteko alde:

"Adan'ek Paradisuan esanik egin ez ebalako sartu zan pekatua ta eriotza gizartean; Jesus, gurutzean iltetan, esaneko egin zalako, grazia ta bizia etorri da barrero Aregan sinisten dabenentzat".

Gure salbaziñoa, gure barruan Jesus biztuaren bizitza bera eukitean dago. Jesus'en bizitza ori batean artzen dogu.

Eta zelan agertzen dogu bateoa artu dogula eta Jaungoikoaren adiskide garala?

Besteen adiskide izanda, besteak maite izanaz eta lagunduaz. Orregaitik, alkar maite dagiela eskatzen dautse, eta bakotzak bere lagun-urkoarentzat ona billatzen alegiñak egin dagizala.

### Paulo'ren irugarren misio-ibillaldiaren azkena.

325. Paulo'k Korinto'tik Siria'ra igaro nai dau; baiña, judar batzuek il egin nai dabela jakitean, Mazedonia'ra biurtzen da. Lukas'egaz Filipos'en itxasoratu eta bost egunera Troade'n dagoz. Emen auxe jazoten yake:

Domekaz da, Jaunaren egunez, arratsaldean.

Paulo kristauakaz batu da etxe bateko irugarren bizitokian. Paulo'k adoretu eten-bagarik egiten dautse berba. Mutil gazte bat leioan jesarrita ari entzuten dago; baiña, loak artuta, kalera jausten da. Guztiak jatsiten dira ariñeketan. Ilda dago. Paulo be beera doa, eta, Jaungoikoaren laguntzaz, bizia biurtzen dautso. Barrero be guztiak gora doaz, eta Paulo'k goizalderarte arei berba egiten diardu.

326. Paulo Troade'tik Mileto'ra igaroten da. Emen kristauai azken-burubideak emoten dautsez, barrero ez dauzala ikusiko uste dau-ta. Guztiak itun (triste) jarten dira, eta, belaunikoturik, otoltz egiten dabe. Paulo besarkatu ondoren, guztiak itxasontziragiño laguntzen dabe (dautsoe).

Zesare'a'ra eltzean, Agabo izeneko gizon bat urteten yako bidera, eta gerrikoa eskatzen dautso. Paulo'k emon egiten dautso. Agabo'k gerrikoaz bere esku-oiñak loturik, urrango au iragarten dautso:

"Auxe diño Espiritu Santuak: Olantxe lotuko dabe judarrak Jerusalem'en gerriko onen jabea".

An dagozan guztiak negarrez asten dira; baiña, Paulo'k, nasa-nasai, auxe dirautse:

"Zetan diarduzue negarrez? Lotua izateko bakarrik ez, baita Jesus Jaunaren izenagaitik ilteko be gertu nago".

Espetxean sartu ez dagien, an dagozan guztiak Jerusalem'era ez joateko erregutzen dautsoenarren, judarren uri nagusira doa Pentekoste'ko jaiak ospatzeko, berak gura ebanez. "Diru-batze andia" daroa beragaz: kristau biurtu diran jentillen artean batu-tako dirua da, Jerusalem'go Elizaren anai txiroen alderako.

### ITAUNKETA

310. Zer dala-ta egin ebazan Paulo'k bere misio-ibillaldi barri biak?
311. Nortzuek egiten dautsoe lagun Paulo'ri beronen bigarren misio-ibillaldian?
312. Azaldu egizu Paulo'ren lenengo ekintzak Europa'n.
313. Zer jazoten yako Paulo'ri Tesalonika'n?
314. Zer irakasten dautse Paulo'k Atenas'ko jakitunai?
315. Zer egiten dau Paulo'k Korinto'n?
316. Zer dala-ta egiten dautse San Paulo'k Lenengo Idazkia Tesalonika'koai?
317. Zetako egiten dautse Paulo'k bere Bigarren Idazkia Tesalonika'koai?
318. Zer atara eban Paulo'k Korinto'n?
319. Zein izango da Paulo'ren irakatsiaren erdi-tokia bere irugarren ibillaldian?
320. Zeintzuk dira Paulo'ren ekintza nagusiak Efeso'n?
321. Zer dirautse San Paulo'k Korinto'koai bere Lenengo Idazkian?
322. Zer dirautse San Paulo'k Korinto'koai bere Bigarren Idazkian?
323. Zeintzuk dira San Paulo'k Galazia'koai egindako Idazkiaren idea nagusiak?
324. Zeintzuk dira San Paulo'k Erroma'koai egindako Idazkian azaltzen dauzan oifiarri-egiak?
325. Zer jazoten yako Paulo'ri Troade'n irakasten ziarduan egun baten?
326. Zelan amaitzen dau Paulo'k bere irugarren misio-ibillaldia?

### EGITEKOAK

—Marrastu egizu mapa baten Paulo'ren bigarren eta irugarren misio-ibillaldia.

—Aukeratu egizuz Erroma'koai egindako Idazkitik idearik ga-


rrantzitsuenak eta norberaren bizikerari ezarri.

—Jarri parean Paulo'ren esku-lana eta gaur eguneko abade langilleena.

OTOITZ EGIZU: "Jauna, entzuten zaitut: Gure salbaziñoa, gure barruan Jesus biztuaren bizia bera izatean dago".







## 23'GARREN IKASKIZUNA

# Jesus, Salbatzaillea, bere Elizagan bizi da

### 23'garren Ikaskizuna.

327. Asi da Elizea ibilten. Pedro'k, Paulo'k eta beste apostoluak kristau egin diranak zaintzen diardue. Batzuetan eurak doaz laguntza eroatera; beste batzuetan idazkien bidez erabagiten da-bez arein auziak.

Kristauak be biziro artzen dabe Jaunaren egotea euren artean eta besteai Ebanjelioa ezaguerazoten dautse.

Ori gutxi dala, egunean-egunean geitzen da martirien aurtorra edo testigutza.

Nundik datorio Elizari sinismen-indar gartsu ori?

Jaunak berak dirausku:

"Neu egongo naz zuekaz azkenerarte".

## 1. SAN PEDRO

### Garrantzi andi-andiko jazopen bat.

328. Egun baten, Pedro'k Jerusalem'dik alde egin eban. San Paulo'k Galazia'kocai egindako Idazkian dirauskunez, Pedro gero Siria'ko Antiokia'n egon zan. Gure aurrean galtzen yakun urteetan, Pedro'k bere eginkizuna Asia Txikiko errialdeetako judarren artean izan eban, urrean. Geroago, Erroma'ra dator.

Pedro'ren etorrerak Erroma'ra, aparteko garrantzia dau kristautasunarentzat. Erromar Agintaritzako uri nagusitik kristautasuna errazago zabalduko da errialde guztietan.

Pedro Erroma'ra eldu baiño len, ba-egoan an kristau-talde eder bat. Onezkeru, Pedro lagunarte txiki onen buru da eta, batera, Eliza guztia ren buru. Orrexe gaitik esan eutsan Jesus'ek:

"Zu Pedro zara, eta arri orren gainean jasoko dot nire Eliza".

Pedro'k, adore guztiaz, Jesus'en Itza iragarten diardu. Fededunen taldea geroago ta ugaritsuagoa da.

### **Pedro'ren Lenengo Idazkia.**

329. Pedro'k, Erroma'ko bizilagunen artean, apostoluzan diardu. Alan be, ez ditu aazten Asia Txikiko urietan itzi izan ebazan kristauak be.

Kristau oneik une larri baten dagoz. Kristo'ganako euren sinismenagaitik, askok txarto begirutzen dautsee. Areik adoretzeko, maitasunez beteriko idazki bat egiten dautse. Jesus ur-urretik ezagutu dauanaren berotasun eta adoreaz egiten dautse berba Pepro apostoluak. Adiskidea ta gizonen Salbatzaille bakarra aurkitu dau Jesus'egan, eta Au gizon guztiakaitik il da.

Batiña Jesus bizitu egin da. Pedro berak ikusi dau. Eurak be bizitu egingo dira, sinismenean sendo irauten ba'dabe, daroezan naigabe guztiakarren.

Bateoa artu dabela gogoerazoten dautse, eta arrezkero arekan bizi dan Jesus'egaz bat-bat alkartuta dagozala. Eta ez dira orain lengoak:

"Jatorri aukeratua zaree, errege-abadetza, erri santua, Jaungoikoaren erria".

Alkar maite dagiela eskatzen dautse, maitasunak pekatuak kentzen dauz-ta.

Pedro'ren idazki au "Guztientzakoak" deritxoenetarikoa da, edo bardin dana, kristau guztiarentzat zuzenduta dagozala eta ez lagunarte edo persona bati soilik. Babilonia'n dago idatzita, edo bardin dana, Erroma'n. Silas'en eskuz egiña izan zan.

Pedro'gaz batera Markos dago, bigarren Ebanjelioaren egiilea.

### **Pedro Erroma'n ilten da.**

330. Pedro'k bere lenengo idazkia eginda ille batzuk geroago, Neron, erromar agintari nagusia, gogo biziaz kristauak aurrean erabilten asten da, elburu au dauka: "Debekatuta kristau izatea".

Kristau asko, uiaz igurtzita, agintari nagusiak bere lorategie-

tan egiten dauzan gau-jaietarako argi-zuzi lez argi egiteko artzen dauz. Pedro, sasi-anciren batek salatuta urrean, espetxeratua eta oiñazetua izan da. Antxiña danik agoz-ago datorrenez, Pedro buruz beera gurutzeratuta il zan, 64'garren urtean gutxi gorabehera. Eriotzan be, Elizaren buru ta artzainak Jesus Ar tzain Onari jarraitzen dautso.

Pedro apostoluaren gorpua, beste kristau askorenakaz batera, Batikano-menditxoan illobiratu eben. Aren illobia Batikano'ko Elizazpian dago, Aita Santua bizi dan tokian.

Pedro'ren eriotza ondoren, onen eginkizun bera bete dagian buruzagia aukeratzen dabe kristauak. Buruzagi barri ori Erroma'ko gotzain eta, Eliza osoaren Artzain lez, Pedro'ren ondorengoia da batera.

Pedro il egiten da, baiña Elizea aurrera doa. Jesus Elizagan bizi da.

## **2. SAN PAULO**

### **Paulo, espetxean Erroma'n.**

331. 58'garren urtearen Pentekoste-egunean, Paulo espetxean sartzen dabe Jerusalem'go Eliza Nagusia. Zesarea'ra daroe, eta emen Felix agintariaren aurrera. Espetxean egiten dauz urte bi. 60'garren urtean Festo'gana daroe, eta Paulo'k Zesar'en aurrera eroateko eskatzen dau. Orduan, Erroma'ra daroe.

61'garren urtetik 63'garrenera, gudarien zainpean dago, etxe baten. Antxe artzen ditu beragana doazanak, eta judarretariko nagusiak dei egiten dautse, onei bere auziaren laburpen bat egiñik; judar izaten zintzo irauten dauka dirautse. Jesus'i buruz be egiten dautse berba, Legean eta profetetan oiñarriturik. Batzuek sinistu egiten dabe aregan, beste batzuek ez.

Paulo ez da kikiltzen, bestetara baiño: irakasten diardu. Katiaz lotuta daukan gudari zaintzaillea kezkatu egiten da Paulo'ren irakatsiakaz, eta Jesus'i buruz berba egiten asten yake bere guda-lagunai.

Timoteo ta Markos barriro be Paulo'ri batzen yakoz Erroma'n.

### **Paulo'ren Idazkiak Erroma'ko espetxetik.**

332. Erroma'tik, Paulo'k Asia Txikiko ta Mazedonia'ko bere lagunartean idazkiak egiten dautsez. Idazki onei "Expetxe-aldiko

Idazkiak" deritxe. Onexeik dira: **Kolosas'koai**, **Filemon'i**, eta **Efeso'koai**.

- Paulo'k Tikiko'ri emoten dauzan **Kolosas'ko** kristaudentzako idazkian, espirtu-estualdi bat kentzeko alegiñak egiten dautsez. Epafra'sek egin dau orren jakitun; Epafra's au, Paulo'ren apostolu-ordekoa da, eta Kolosas'tik Erroma'ra etorri da.
- **Filemon'**entzako idazkian, Paulo'k biurtutako Kolosas'ko kristau oni, onen morroi Onesimo barriro artu dagiala eskatzen dautso. Morroi au Paulo'k egin eban kristau. Idazkia oso laburra izanarren, apostoluaren biotz samurra erakusten dausku eta argi andia emoten morroitza-azua ebazteko.
- **Efeso'**koentzako idazkian, Kolosas'koai egin eutsen idazkikoa azaltzen dautse zabalago: kristauak, Eliza bakarrean, Kristo'gaz alkartuta bizi dira guztiak. Bateoaren bidez Kristo il eta biztuagaz alkartuta, Beronen Gorputzaren atal dira eta Kristo'gandik bakarrik artzen dabe bizi barria.
- **Filipos'**koentzako idazkian, fededunai dagokien bizikera erocan dagiela dirautse Paulo'k Filipos'ko kristauai, eta une guztietan beragaz izan daben maitasun andiagaitik eskerak emoten dautsez.

### San Paulo'ren Artzain-idazkiak.

333. 61'garren urtetik 63'garrenera Erroma'n espetxean egonarren, Paulo kanpora ataraten dabe. Orduantxe joaten da, bearbada, España'ra, Korinto'tik Erroma'koai egindako idazkian agertzen dauan guraria currea erocanik Mediterraneo-sortzaldean zear be egiten dauz ibillaldi batzuk. Aldi onetan, Paulo'k bere ikasle zintzo Timoteo ta Tito'ri "Artzain-idazkiak" izenekoak egiten dautsez. Ez dira, ba, kristau-lagunarteentzat, beragaz apostolutzan diarduenentzat baiño. Oneixek dira apostolu andi onen azken-agerkariak. Idazki onetan, berak arein ardurapean itzi dauzan kristau-lagunarteak eratzeko ta zuzentzeko arauak\* emoten dauz Paulo'k: Barri Ona zelan irakatsi bear daben eta zelan egin bear dautsen aurka irakatsi okerrak zabaltzen dabezana; zelan aukuratu bear dabezana Elizen arduradunak; zelan irakatsi ta artu bear dabezana eliztar batzuk eta besteak.

\* Arau: norma, regla.

### Ebertarrentzako Idazkia.

334. Itxura danez, idazki onen egillea Italia'n bizi da, eta Jerusalem'en ondapena baiño len egiten dau. Egillea Paulo bera izan ezarren, onen ikasleren bat da, antza, eta ebertarrai idazten dautse, edo bardin dana, Judea'ko kristauai: oneik, Moises'en Legeari, Jerusalem'go Eliza Nagusiari eta emengo elizkizun ederrai lar lotuta dagoz oraindiño.

Jesus'en abadetza, Alkartasun Zaarreko abadetza baiño goragokoa dala agertzen dautse idazki onek eliztarrai.

### Paulo'ren eriotza.

335. Ez dogu zeaztasun askorik Paulo'ren azken-bizitzaldia buruz. Erroma'n barriro be espetxean sartzen dabe. Neron'en eraso-aldian samea ebagiten dautsoe, orduko tradiziñoak diñoanez. Aren odol-eriotza 67'garren urtean izan zala izentatzen dabe.

Apostolu-ekintzari iñok baiño sutsuago ekinda gero, Kristo'ren morroi andiak bere odola Jaunagaitik isuririk amaitzen dau bere bizitza neketsua.

Onezkero, apostoluen odola bizi-azua da Elizan.

## 3. JERUSALEN'GO SANTIAGO

### Santiago'ren Idazkia.

336. Jerusalem'go kristau-lagunarteak bertako burua dauko, ango gotzaiña. Santiago da, Jesus'en senitartekoa, eta orregaitik, "Jesus'en anai" deritxoe. Gotzain au guztiak maite dabe. Judarren Legeari eta egikeri betetzaille agertzen da, Jesukristo'ganako sinismenari kaltegarri izan bagarik, jakiña.

Erodes Agripa'ren eraso-aldian, Santiago Nagusiari samea ebaqi eutsoen, 44'garren urtean bearbada, eta Pedro espetxean sartu. Aldi onetan, kristau askok Jerusalem'go uritik alde egin eben.

Sakabanatutako kristau onein artean, judar askok Eliza Nagusia ta judar-oiurak maitatzen irauten dabe. Ori dala-ta, Santiago'k Jerusalem'go kristauen buru gelditu danak, idazki bat egiten dautse geroago. Idazki bat baiño itzaldiaren antz geiago dauko, bere idazkera ikusita. Apostoluak burubide batzuk emoten dauz erocapenari, tendaldiari, miiña erabilteari, oititzaren indarrari bu-

ruz... Mendiko Itzaldiko esanaldiak ekarten ditu gogora. Geisoen Igurtzia be aitatzen dau.

Idazkian idea nagusi bi agertzen dira batez be: bata, gizarte-azuzari buruzkoa, txiroak goraturik eta aberatsai oar zorrotzak egiñik. Bestea, maitasunari buruzkoa: egintza bagariko sinismena, sinismen illa dala esanik.

Santiago, Jerusalem'go gotzaiña, arrika ilten dabe bere endanaiak\*, 62 garren urtean, len Esteban il ebenez.

#### 4. EBANJELIO SINOPTIKOAK ETA APOSTOLUEN EGIÑAK

337. Lenengo iru Ebanjelioak, Mateo, Markos eta Lukas'enak, alkarren antzekoak dira. Orregaitik, "sinoptikoak" deritxe. Jesus'en irakatsia eta egintza arrigarri batzuk batzen dabez, lenengo kristau-lagunarteetan iragarten eta irakasten zana.

##### San Mateo'ren Ebanjelioa.

338. Mateo'k, amabi apostoluetarikoak, judutzatik kristau biurtakoentzat idazten dau. Bere ardura andia, Biblia'n idatzitakoak Jaungoikoaren Semea dan Jesus'egan eta Beronen egintzan bete dirala erakustea da. Lege Barriak burutzen dau Lege Zaarra; Pedro'ren gainean jasotako Eliza, Alkartasun Zaarreko jarraipena da.

Mateo'ren Ebanjelioa arameoz idatzi zan, eta gerkerara itzulitakoa artu eban Elizeak beretzat.

Beste Ebanjelioak gerkeraz idatzi ziran.

##### San Markos'en Ebanjelioa.

339. Markos, Jesus'en ikasle bat da; Jerusalem'en bizi da. Paulo'ri egin eutsan lagun apostoluzan, Bernabe bere lengusuari be bai, eta batez be, Pedro'ri, beronen adieratzaille lez. Bere Ebanjelioan, Jesus Mesiás gurutzeratua dala agertu nai dau batez be. "Mesias ezkutua" aitatzen dau sarritan, edo bardin dana: Kristo "Gizasemea" lez agertu, apala, mindua eta ezkututsua.

\* Enda-anai: hermano de raza.

##### San Lukas'en Ebanjelioa.

340. Lukas, jentil jatorrikoa da, Antiokia'n jaioa. Paulo'ri egin eutsan lagun onen bigarren eta irugarren ibillaldian. Gizon jakintsua zanez, osagillea\* ta elendar azieraz, idazkera landua darabil. Mateo'ren eta Markos'en idea berberak azaltzen ditu. Esku ona darabil erruki-ipuiñak azaltzen; orrexegaitik deritxoe Jaungoikoaren samurtasunen ebanjelioa. Bera da Jesus'en umetzarari buruz zeatzasunik geien emoten dauskuna.

##### Apostoluen Egiñak.

341. Lukas'ek beste liburu ba be idatzi eban: "Apostoluen Egiñak". Kristautasunaren lenengo aztarrenak azaltzen dauskuz, edo bardin dana, munduan zear Kristo'ren Elizaren lenengo oin-kadak.

##### Jaunak dei egiten dausku.

342. Ikaskizun au amaitzean, ausnartu egizu Elizaren misterioa. Lenengo, judarren artean jaioten da; gero, jentillakana igaroten da; azkenez, alde guztietara zabaltzen da.

Auxe da zu lagunkide zaituan Eliza. Kristo bera emoten dau-tsu, gu salbatzeko gizonakana urreratzen dana.

Jauna bere Elizan dago, eta dei egiten dausku. Erantzun egio-zu Pedro'k eta Paulo'k lez, kristau martiri ainbatek eta ainbatek lez. Guztiak, maitasuna ebelako il ziran. Izan egiozu zeuk be maitasuna Jaunari, benetako maitasuna, areik lez.

##### ITAUNKETA

327. Zelan arduratzen dira apostoluak kristau biurtu diranakaz?
328. Garrantzi andia ete-dau Pedro apostolua Erroma'ra joateak?
329. Zetarako egiten dau Pedro'k bere lenengo idazkia? Zer difio an?
330. Zelan ilten da Pedro apostolua?
331. Ze bizikera daroa Pedro apostoluak Erroma'n?
332. Zer difioe espetxetik idatzitako San Paulo apostoluaren Idazkiak?
333. Ze irakatsi dakarre San Paulo'ren "Artzain-idazkiak"?
334. Nortzui egiten dautse Ebertarrai idatzitako idazkia?
335. Azaldu egizu San Paulo'ren eriotza.

\* Osagille: médico.

336. Zetarako egiten dau Santiago'k bere idazkia? Zeintzuk dira emoten dausku-  
zan irakatsi nagusi biak?
337. Zegaitik deritzegu "sinoptikoak" San Mateo'ren, San Markos'en eta San  
Lukas'en Ebanjelioai? Nundik sortu ziran iru Ebanjelioak?
338. Ze gai darabil San Mateo'k, batez be, bere Ebanjelioan?
339. Zein da San Markos'ek bere Ebanjelioan azaltzen dauan egia nagusia?
340. Zer azaltzen dau aparteko eraz San Lukas'ek bere Ebanjelioan?
341. Zer azaltzen dau "Apostoluen Egia" izeneko liburuan?
342. Nori emoten gaitu Elizeak gu salbatzeko?

#### EGITEKOAK

—Orma-marrozki bat egin:

1. Aita Santuak igaro egiten  
dira.
  2. Elizea aurrera doa.
  3. Kristo'k iraun egiten dau.
- Idazlan bat egin, Batikano'ko  
Bigarren Batzar Nagusiaren

"Jainko-Agerpenari buruzko  
Erabagia" dala-ta, 17'garren zen-  
bakitik 20'garrenera.

—Jarri parean Eukaristiari buruz-  
ko iru azalpenok: Mk. 14, 22-  
24; Mt. 26, 26-28; Lk. 22, 19-  
20.

OTOITZ EGIZU: "Sinisten dot, Jauna, Elizaren barruan bizirik zagozana"



#### 24'GARREN IKASKIZUNA

## Eliza, Jaunari zintzo erantzunda salbatzen da

343. Elizea zabaltzen doa gizonen artean. Espiritu Santuak, aregan dagoala, Aitaren eta Onen bialdua dan Jesus'en salbazi-  
ño-egintza andia aurrera daroa. Eta egunean-egunean kristau-ko-  
purua\* geitu egiten da.

Baiña emen dator eragozpen andi bat: erromar agintari na-  
gusien erasoak.

Martirien ikasbideak Jaunarentzat zintzoak izateko egiten daus-  
ku bultza, eragozpenen erdian izanda be.

#### Neron'ek aurrean darabiz kristauak.

344. 64'garren urtea da. Neron, Erroma'ko agintari nagusia  
da. Kristauak, erritar onak lez, agintari nagusiari menperatzen ya-  
koz, baiña ez dabe nai gizon a jaungoikotzat artzerik, ezta jainko-  
irudiak gurtzerik be, euren sinismenak debekatu egiten dautse-ta.  
Orduan, kristauai eraso egiten asten dira Estaduaren arerioak  
bai' litzaz, legeak onartzen ez dabezala-ta.

Egun baten, sekulako suak artzen dabe Erroma. Ori egin dau-  
na Neron bera izan dala uste dabe erromarrak. Baiña Neron'ek  
kristauai ezarten dautse errua, eta sekulako eraso asten dau  
arein aurka; eraso onek amalau urte iraun dau. Ona emen or-  
duko mirtirik entzutetsuenak: Pedro, Paulo, Bernabe, Markos Eban-  
jelaria eta Kleto ta Martzelino Aita Santuak.

345. Aurrean erabilitako kristauak Jesus'en urrengo berbok  
gordeten dabez biotzean:

"Ni aurrean erabili ba'nabe, bardin egingo dabe  
zeuekaz be.

\* Kopuru: número.

Zorlontsuak izango zaree iraindu ta aurrean erabili zaglezanean..., zuen saria zeruetan andia izango da-ta".

Gaur be kristauak aurrean erabiliak dira. Batzuetan, sinisba-geak edo Jesus'en arerioak agirian diranen aldetik; beste batzue-tan, Jaungoikoa ta kristau-izena ukatu bagarik, Kristo'ren espiri-tuaren eraz bizi ez diranen aldetik.

Edozein eragozpenetan, egin dagiguzan alegin guztiak fe-dean zintzo irauteko, Jauna gugandik urren orduantxe dagoala jakiñik.

### **Jerusalen'go Eliza Nagusiaren ondapena.**

346. Judarrak bein baiño geiagotan gura izan dabe erroma-rran menpetik urtetea. 70'garren urteko Pazko-astean Tito'k Jeru-salen inguratu, uria ondatu eta Eliza Nagusia erre egiten dau. Or-duantxe beteten da Jaunak aurretiaz esandako au:

"Zu eta barruan egon daitezcan semeak lurrean za-palduak izango zaree eta ez dabe arri bat bestearen gaiñean itziko".

Eliza Nagusiaren ondapena judarrak eta kristauak bereizte-ko\* izango da. Aurrerantzean, judarrak pariseuen inguruan batu-ko dira. Kristauak, barriz, konturatuko dira Jaunaren Ebanjelioak ezin daikela erri bat bakarrik artu, Kristo'ren Salbaziñoa guztien-tzat da-ta. Olantxe beteko da obeto Paulo'k irakatsitako au:

"Jesus'egan sinistu ezkeru, Jaungoikoarentzat bar-din da jentilla naiz judarra izan".

### **San Judas'en idazkia eta San Pedro'ren bigarren idazkia.**

347. 70'garren urtean gutxi gora-beera, beste idazki bi egi-ten dira: San Judas'ena ta San Pedro'ren bigarrena.

#### **—San Judas'en idazkia.**

Judas'ek, Jerusalem'go gotzain izandako Santiago'ren anaiak, bere anaia ezagutu eben eliztarrai idazten dautse, urrean, edo bar-bin dana, kristau biurtutako judarrak.

\* Bereiztu: distinguir, diferenciar.

Idazkiaren gai nagusia, arein kristau-sinismena arriskuan ipinten daben sasi-irakasleai buruz kontuz ibili daitezala esatea da.

#### **—San Pedro'ren bigarren idazkia.**

Apostoluaren irakatsi batzuk baturik, Pedro'ren ikasle batek kristauak idazten dautse, sasi-profeten irakatsia buruz kontuz ibi-li daitezala esanaz.

### **San Joan'ek idatzitakoak.**

348. Il dira apostolurik geienak. Yon Efeso'n bizi da orain-diño; Efeso, Asia Txikiko uri bat da, gaurko Turkia'n. Yon'ek al-di onetan daroan bizikerari buruz, ia ezer be ez dakigu. Alan be, bere idazlan batzuk gelditu yakuz: Ebanjelioa, iru idazkiak eta Apokalipsis izeneko liburua; guzti ori lenengo gizaldiaren az-kenetan idatzi eban.

### **San Joan'en Ebanjelioa.**

349. Yon'ek bere Ebanjelioa beste ebanjelariak baiño asko-zaz geroago idatzi eban. Orrexegaitik banantzen da Ebanjelio sinoptikoetatik.

Zelakoa da San Joan'en Ebanjelioa? Ikusi dagigun.

Yon'ek astia izan dau Jesus'en berbak eta egifiak astiro aus-nartzeko. Astiroago ikusi dau gaiñera or-emengo kristau-lagunar-teak zelan bizi izan dabezcan Jaunaren Itza eta egintzak. Orregat-ik, San Joan'en Ebanjelioa, alde batetik, Jesus'en berben eta egin-tzen azalpena da, Jaunagaz batera bizi izan zan aurreko testigu batek azalduta; eta bestetik, egintzok ta berbok kristauen bizike-rari ezartea.

Olan, Jesus'ek Nikodemo'gaz izan eban alkarrizketa azaltzen dauskunean, bateoan bizi barria, edo bardin dana, Jainko-bizia ar-tzen dogula dirausku.

Emakume samaritarrena azaltzean, betiko bizitzako ura Je-sus'egana sinismenez urreratzen danaren biotzean urtetan dala.

Jaunak Eukaristia agintzen dauanean, Jaunaren aragia sinis-menez jatea, Bizi-Ogia artzea dala dirausku.

Jaiotez itsuaren osatzea azaltzean, gizon gutiak argitzen dau-an egiazko Argia lez erakusten dausku Jesus.

350. Yon, Espiritu Santuari buruz geien berba egiten daukun ebanjelaria be ba-da. Ondo daki Espiritu Santua Jesus'en Espiritua dana, eta Aitak Elizara apostoluak eta aldi guztietako kristauak argitzeko, sendotzeko eta santu egiteko bialtzen dauana.

Joan gaitezcan Beragana, Espiritu Santuagana, guretariko batkotxagan jarduten eta Jesukristo'ri zintzo jarraitzeko indarra emoten dauksuta.

351. Bere Ebanjelioaren azken-ataletan, Yon'ek oso sarri aitatzen dau alkarri izan bear dau sagun maitasuna. Jesus'ek, azken-agurretan, bere apostoluci maitasuna izten dautsela azken-naia lez:

"Auxa da nire agindua: alkar maite dagizuela, nik zuek maite izan zaituedanez".

"Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: zuek alkar maite izatean".

### San Joan'en idazkiak.

352. Yon'ek bere idazkietan barriro be maitasun-gaia aitatzen dau. Iru idazki egin ebazan:

#### —San Joan'en lenengo idazkia.

Idazki au da garrantzitsuena, eta Asia Txikiko kristau-lagunarteci egiten dautse, arein artean siniste-austeak sortzen dira-ta. Kristautasunean egi(a) nagusi biak aitatzen ditu: Jesukristo Jaungoikoaren Semea dala, gu salbatzeko gizon egiña. Eta gizon guztiak anai lez maite bear doguzala.

Yon'ek, berak bere bizitzan Jesus'egan ikusi dauana ezaguezazoten dau:

"Geuk entzun doguna, geure begiakaz ikusi doguna, geure eskuak ikutu dabena bizitzaren Itza ikutuez, orixe iragarten dautsuegu".

Eta aurrerago:

"Bere anaiari gorroto dautsan edonor, giza-iltzaille da... deabruaren seme da eta illunetan dago".

"Ene semeek, ez dagigun berbaz eta miñez maitatu, egiñez eta benetan baiño".

\* Azken-naia: testamento, última voluntad.

Ba-dakigu, ba: besteak maite ez ba'doguz, Jaungoikoak be ez gaitu maitatzen, ez gara Jaungoikoaren benetako semeek, ez-ta Jesus'en adiskide be.

#### —San Joan'en bigarren idazkia.

Idazki onetan, Joan'ek sasi-irakasleai buruz kontuz ibiltako dirautse kristuaci, Kristo ez zala gizon egin iñoen areik-eta.

#### —San Joan'en irugarren idazkia.

Idazki onen bidez, bere lagunarte baten sortu zan aginpide-auzi bat zuzendu nai dau Yon'ek.

### Domiziano'ren eraso.

353. Neron'en alditik aurrera, zoritxar batzuk sortu dira: izurriteak\* eta erri-arteko gudaketak Erroma'ren aurka jagiten diran erri batzuen aldetik.

Kristautentzat, Neron'en erasoagaitik lendik be zerbait bildur-tuta dagozanentzat, gauzak txarrago jarten dira, jentillen jokabi-dea gogorra da-ta.

Lenengo gizaldiaren azkenetan gagoz. Domiziano da Erroma'ko agintari nagusia: eriotz-zigorren azpian, bere menpekoak gurtza emon dagioela agintzen dau. Kristauak ukatu egiten yakoz, eta barriro be eriotzaragiño dira aurrean erabiliak.

### Yon'ek Apokalipsis idazten dau.

354. Erasaldi-erdian, Yon'ek, Turkia'ko Patmos ugartean erbesteratuta, liburu bat idazten dau, kristauen gogoan itxaropena isurteko asmoz. Barriro be Jaungoikoaren Itzak, bere apostoluetariko baten bidez, Kristo'ren jarraitzaileen bizitza argitzen dau.

Liburu au Apokalipsis edo Agerpena da. Irudiz eta antz-irudiz batutako mandatu\* bat da.

Ba-dagoz Alkartasun Zaarrecan onen antzeko liburu batzuk be, eta oneitan Jaungoikoaren Erreñuaren arerioen aldetik erri auke-ratuari etorriko yakozan nekeak, zoritxarrak, eta erasoak irakur-ten dira. Baiña bat-batean, Yabe'ren Eguna elduko da, eta bere etorreraz bakea ta zoriona ekarriko dau.

Yon'en liburu au oarra, itxaropenerako deia eta igarpena (profezia) da batera.

\* Izurrite: tiempo de peste.— \* Mandatu: mensaje.

**Oarra.** Otzituta dagozan zazpi elizetarako idazkia da. Otzitu-ta bizi diran ezkerro, asarre egiten dautse.

**Itxaropenerako deia.** Eraso-aldian, bertan-beera itziko ete-dauz Kristo'k bereak? Abereak irabazi dagiala itziko ete-dau, edo bardin dana, gaiztakeriaren indarrak?

Erantzuna argi dago: Elizeak irabaziko dau, bai, baiña burrukan egin bear izango dau. Apokalipsis liburuak kristau-itxaropena abesten dau. Jesus'ek esan ebazan berbok azaltzen dauz: "Munduan larrialdiak izango dozuez; baiña, izan adorea! Neuk azpiratu dot mundua".

**Igarpena** edo profezia. Jaungoikoak eta Kristo'k menpean dabe giza-istoria. Gizaldien azkena baiña len, aukeratuen bein-betiko gurenda\* aurretiaz agertzen yaku; aukeratuai, Kristo'k bizikoroia eskintzen dautse zeruko Jerusalem'en.

Alkartasun Zaarreko ta Biblia santu guztiko azkenengo liburuak azken-irakatsi bat emoten dauku: Kristo'ren Eliza, itxaroten bizi da; biotzean gurari andi bat daroa: "Parusia", edo bardin dana, "Jaunaren bigarren etorrera".

### Gure erantzuna Itzari.

355. Elizaren lenengo urteetako ikaskizun oneitan, ikusiko zenduan Jesus'ek lur onetatik alde egitean, bere Itzak zelan aldatu dituan biotzak eta irabazi arimak.

Orain, Jesus'en Itz berberak Alkartasun Barriko liburu santuetan egin dauku berba; orixe ezaguerazo nai izan dautsugu Salbaziñoko Istoriazati onetan: Alkartasun Barria.

Liburu guztioak Espiritu Santuaren argiz dagoz eginda, eta salbaziñoko egia dakarre. Irakurri dagiguzan biotz onez eta sinismenez, eta iraun dagigun euren irakatsia zintzo lotuta. Orduantxe urtengo gara onik, Elizea Jesus'i zintzo lotuta salbatzen da-ta.

### ITAUNKETA

343. Zetara egiten dauku bultza Martirien ikasbideak?
344. Zer dala-ta darabiz aurrean Neron'ek kristauak?
345. Eraso-aldian, kristauak Kristo'ren berba batzuk daukez aurrean. Zeintzuk?
346. Noiz izan zan ondatua Jerusalem'go Eliza Nagusia?
347. Esan egizu zerbait San Judas'en idazkiari eta San Pedro'ren Bigarren Idazkiari buruz.

\* Gurenda: triunfo.

348. Ze liburu idatzi eban San Joan'ek?
349. Zelakoa da San Joan'en Ebanjelioa?
350. Zer dirausku laugarren Ebanjelioak Espiritu Santuari buruz?
351. Zer irakasten dauku San Joan'en Ebanjelioak alkar-maitasunari buruz?
352. Zer dakarre San Joan'en idazkiak?
353. Zelan izan zan Domiziano'ren eraso?
354. Zer da San Joan'en Apokalipsis edo Agerpena? Zer dakar Apokalipsis liburuak?
355. Zeri izan bear gakioz zintzoak, salbatu gaitzean?

### EGITEKOAK


—*Idatzi egizu oraingo erasoan eta Elizaren lenengo aldietakoen artean dagozan antzak eta aldeak.*

—*Azaldu idatziz esanaldi au: "Larrialdietan Jauna kristauakandik urrago dago".*


—*Egizu Alkartasun Barriko liburuaren izenen eta egilleen zerrenda bat.*

—*Jarri egizuz parean Daniel'en liburuako zati batzuk eta Apokalipsis liburuua.*

OTOITZ EGIZU: "Jauna, onik atara nagizu zure Itzaz".







## ZATOS, JESUS JAUNAI

Alkartasun Zaarrean, itxaropenez beteriko erri bati Jaungoikoak egiten dauzan Agintzari Andia lez ikusi dogu Jauna.

Oraintxe ikusi dogu beteten Jesus'egan Agintzari ori.

Baiña, guztia amaitu ete-da?

Ezelan be ez. Jaunak geugaz irauten dau bere Elizagan, eta bere Itzaren Argiaz, Eukaristi-ogiaz eta bere Sakramentuen Ur biziaz salbatzen gaitu.

Itxaropen Andi bat sortu dau, gaiñera, guban:

"Gizasemeca, bere aingeru guztiak lagun dauzala, bere goraldian etorri daitenean, bere aintzaren errege-jarlekuan jesarriko da. Bere aurrean izango dira bat-  
tuak erri guztiak, eta alkarregandik banandu egingo ditu...

Eta Erregeak bere eskumaldekocai auxe esango dautse: 'Etorri zaiteze, nire Aitaren bedeinkatuokl: artu egizue munduaren asierarik zeuentzat atondutako Errei-ña'.

Eta bere ezkeraldekocai be auxe esango dautse: 'Alde nigandik, madarikatuokl, deabruarentzat eta onen aingeruentzat gertuta dagoan betiko sutara...'. Eta oneik betiko oiñazetara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara".

(Mt. 25, 31-46)

Gizonai Jaunaren bein-betiko etorrera eltzen yaken artean, euki dagigun iziotuta gure sinismenaren argi-ontzia. Ez gagiezala atzipetu munduaren lillurakeriak\*. Olan, Aitak emon eutsan eta guban bere Espirituak egiten dauan Salbaziño-Egintza burutuko dau Jesus'ek. Bizi gaitzean itxaroten diarduan Elizagan, biotzean gurari andi au dogula:

"Zatos, Jesus Jaunai".

\* Lillurakeri: seducción.

## ALKARTASUN BARRIKO KRONOLOJI-AROA

JAZOPENA	URTEA	IDATZIAK
Jesus'en jaiotza... Kristau-aroa baiñi len ... ..	6	
Erodes Andiaren eriotza ... ..	4	
Kristau-arocaren asiera ... ..	0	
Tiberio, Erroma'ko agintari nagusia.	14	
Pontzio Pilato, prokuradorea (26-36)	26	
Yon Bateatzaillearen iragartea eta Jesus'en agirizko bizitzaren asiera.	27	
Jesus'en eriotza. Pentekoste: Elizaren jaiotza ... ..	30	
Esteban'en odol-eriotza eta Saulo'ren onbideratzea; gutxi gora-beera ... ..	36	
Santiago Nagusiaren eriotza ... ..	44	
Paulo'ren lenengo misifio-ibillaldia ...	45-49	
Jerusalem'go Batzar Nagusia ... ..	49	San Mateo'ren Ebanjelioa arameoz.
Paulo'ren bigarren misifio-ibillaldia (Korinto'ra) ... ..	50-52	Tesalonika'koai egindako idazkia (51'garren urtean-edo).
Paulo'ren irugarren misifio-ibillaldia (Efeso'ra) ... ..	53-58	Korinto'koai, Galazia'koai eta Ero- ma'koai egindako idazkiak (57' garren urtean-edo).

JAZOPENA	URTEA	IDATZIAK
Paulo, Felix'en aurrera eroana; Zesa- rea'n espetxeratua ... ..	58-60	Santiago'ren idazkia, urtean (58).
Paulo, Festo'ren aurrera eroana; Ze- sar'egana jotea ... ..	60	
Paulo Erroma'ra eltzen da ... ..	61	
Jerusalem'go gotzain Santiago'ren odol- eriotza ... ..	62	Kolosas'koai, Efeso'koai, Filemon'i eta, bearbada, Filipos'koai egin- dako idazkiak (62'garren urtean- edo).
Paulo, espetxetik kanpora. Bearbada, España'ra doa ... ..	63	
Pedro'ren odol-eriotza Erroman'n. Juda- rrak erromarren aurka jagiten dira.	64-67	Pedro'ren 1.º idazkia eta Markos'en Ebanjelioa (64'garren urtean- edo). Timoteo'ri eta Tito'ri egindako 1.º idazkia (65'garren urtean-edo). Ebertarrak idazkia eta Timoteo'ri 2.ª (64-67). Mateo'ren eta Lukas'en Ebanje- lioak eta "Apostoluen Egiñak" (67'garren urtean-edo).
Paulo'ren odol-eriotza Erroma'n ... ..	67	
Tito'k Jerusalem inguratu eta ondatu egiten dau ... ..	70	Judas'en idazkia eta Pedro'ren 2.ª
Yon, Patmos'en erbesteratuta; gutxi gora-beera ... ..	95	Yon'en Apokalipsis, Ebanjelioa eta idazkiak.
Yon Efeso'n ilten da. Trajano, agintari nagusia; gutxi gora-beera ... ..	100	
Judarrak bigarrenez jagiten dira ... ..	132	
Jerusalem, azpiratua. Israel'go politika- istoriaren azkena ... ..	134	

## IZTEGITXOA

Aberri = patria.	Gudari = soldado.
Abesti = canto, cántico, canción.	Gudu = guerra.
Abestu = cantar.	Gur egin = reverenciár.
Agerpen = revelación.	Gurtu = adorar.
Aintza = gloria.	Idazlari = escriba.
Atzipetu = engañar.	Idatzi = escribir.
Aurkeztu = presentar-se.	Idatzi = libro.
Aurkitu = encontrar-se.	Igurtzi = unjir.
Autor egin = dar testimonio, testificar.	Iruzur = engaño.
Autorlari, autorle = testigo, confesor.	Iruzur egin = engañar.
Auzi-epaille = juez.	Itaun = pregunta.
Azaluts = hipócrita.	Itaundu, itandu = preguntar.
Billatu = buscar.	Itz = palabra.
Deun, done = santo.	Itz egin = hablar.
Edesti = historia.	Jasan = padecer.
Egizatu = probar.	Jazarpen = persecución.
Ekaitz = tempestad.	Jazarri, jazaru = perseguir.
Epaille = juez.	Laguntalde = muchedumbre, gente.
Eraso = ataque, persecución.	Odoleriotza = martirio.
Eraso egin = atacar, perseguir.	Oneraspen = devoción.
Espetxe = cárcel.	Onespen = bendición.
Ezetsi = despreciar, rechazar.	Opñetsi = bendecir.
Gaizpide = escándalo.	Opári = sacrificio, oblación.
Gizaseme = Hijo del hombre, Jesu- cristo.	Ospe = gloria, fama, renombre.
Gizatalde = muchedumbre, gente.	Txiro = pobre.
Gorapen = alabanza, gloria.	Ulertu = entender, comprender.
Goratu, goretsi = ensalzar, exaltar, glorificar.	Zerga = tributo, contribución.
Gotzain = obispo.	Zerga-batzaille = publicano.

## AURKIBIDEA

	Orrialdea
Itz bi ... ..	5
Sarrera: Kristo eta Alkartasun Barria ... ..	6

### LENENGO ZATIA

#### SALBATZAILLEA MUNDURA DATOR

##### Jesus'en umetzaroa ta bizitza eskutua

1. Ikaskizuna:	Salbatzaillearen Erria ... ..	15
2'garren "	Jaungoikoaren Erriak sarritan aginduriko Salbatzaillea itxaroten dau ... ..	21
3 " "	Jaungoikoak gizonen Salbatzaillea bialtzen dau ... ..	27
4 " "	Jesus Salbaziño-Egintzarako gertatzen da ... ..	35

### BIGARREN ZATIA

#### JESUS'EK SALBAZIÑO-EGINTZA BURUTZEN DAU

##### Jesus'en agirizko bizitza

a) Salbaziño-ordua:	Jesus'en eginkizuna Yon Bateatzai- llearen ondoan ... ..	46
5 " "	Yon Bateatzailleak Salbatzaillea aurkitzen dau ... ..	47
6 " "	Jesus'ek bere Salbaziño-egintza asten dau ... ..	55
b) Salbaziñoa iragarten:	Jesus'en eginkizuna Galilea'n	61
7 " "	Jesus'ek Salbaziño-Mandatu bat iragarten dau ... ..	63
8 " "	Jesus'ek bere Salbaziño-Mandatura mirariakaz sendotzen dau ... ..	73
9 " "	Jesus'en arerioak Erreiñuko Salbaziñoa ezetsi egiten dabe ... ..	79

Orrialdea

10'garren Ikaskiz.:	Jesus'ek Salbaziño-erreinua ipuiñen bidez azaltzen dau	87
11 " "	Jesus'ek, Beragan sinisten dabena salbatzen ditu ...	95
	d) <b>Salbaziño-ko bidea:</b> Jesus'en eginkizuna bere ikasleai zuzendua ... .. .	99
12 " "	Jesus'ek Gurutzeko bidea aukeratzen dau gu salbatzeko	101
13 " "	Jesus'ek, gu naigabearen bidez salbatu gaitetzala nai dau	107
14 " "	Gizon guztiok zeruratu gaitetzala gura dau Jesus'ek ...	113
15 " "	Bere Aita lakoa dala agertzen dau Jesus'ek ... .. .	121
	e) <b>Salbaziño-misterioa:</b> Jaunaren Eriotza ta Biztuera ...	127
16 " "	Jesus, gu salbatzearren, Jerusalem'era igoten da ... .. .	129
17 " "	Jesus, Salbatzaille lez agertzen da ... .. .	137
18 " "	Jesus, geure Salbatzaille lez oiñazetua ta illa ... .. .	143
19 " "	Jesus, geure Salbatzaille izateko biztu ta bizi da ... .. .	151

IRUGARREN ZATIA

**ELIZEAK SALBAZIÑO-EGINTZA EGITEN DIARDU**

20 " "	Jerusalem'go Eliza Salbaziño-bidean ... .. .	163
21 " "	Salbaziñoa gizon guztientzat da ... .. .	171
22 " "	Eliza Salbatzaille munduan zear zabalitzen da ... .. .	179
23 " "	Jesus, Salbatzaillea, bere Elizagan bizi da ... .. .	189
24 " "	Eliza, Jaunari zintzo erantzunda salbatzen da ... .. .	197
Zatoz, Jesus Jauna!	... .. .	205
Alkartasun Barriko Kronoloji-aroa	... .. .	206
Iztegitxoa	... .. .	208

